

1. GAIA. ANTROPOLOGIA. ZER DA ANTROPOLOGIA?



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Antropologia. Zer da antropologia?
 - 1.1. Gizarte Antropologia. Zertan datza?
 - 1.2. Gizarte antropologiaren ikergaia: Kultura eta aniztasun kulturala.
 - 1.3. Metodo antropologikoa
 - 1.3.1. Metodo antropologikoaren fase deskriptiboa edo etnografikoa
 - 1.3.2. Metodo antropologikoaren fase analitikoa edo etnologikoa
 - 1.4. Antropologiaren historia eta kulturaren teoriak
 - 1.5. Teoria antropologikoen kezkak
 - 1.5.1. Eboluzionismoa
 - 1.5.2. Difusionismoa
 - 1.5.3. Partikularismo historikoa
 - 1.5.4. Britainiar funtzionalismoa
 - 1.5.5. Estrukturalismoa
 - 1.5.6. Antropologia sinbolikoa
 - 1.6. Bibliografia

1.1. Gizarte Antropologia. Zertan datza?

'Antropologia' hitza, *anthropos* (gizakia) eta *logos* (jakintza, zientzia) hitz grekoetatik dator. Hortaz, antropologiak pertsonak ditu aztergai. Modu soil batean esanda, antropologiak gizadiari buruzko azterketa sistematikoa egiten du. Definizio honek, hala ere, ez du antropologia eta gainerako jakintzagaiak bereizten laguntzen. Azken batean, historialariek, psikologoek, ekonomialariek, soziologoek eta beste alor askotan diharduten adituek ere gizadia dute aztergai modu batean edo bestean. Hau dela eta, antropologiaren ezagutzaren zabalera kontutan izanik, harekin batera bestelako izenlagunak erabiltzen dira, hala nola, 'fisikoa', 'linguistikoa' edo 'soziala'. Hauek zera adierazten dute, gizakiaren ikerketa ezagutza eremu zehatz batera murrizten dela eta, honela, antropologiaren azpi-diziplinak sortzen dira. Ikasgaia hau konkretuki, gizarte antropologiaz arituko da.

Gizarte antropologiak iraganeko eta gaur egungo kulturak (gizartean geureganatutako ohiturak eta giza jokamoldea arautzen duten erakundeak: familia, ahaidetasuna, antolaera politikoa, erlijio sistemak, etab.) deskribatzen eta aztertzen ditu etnografiaren bidez. **Etnografiak** gaur egungo kulturen deskribapen sistematikoa egiten du. Bestalde, gizarte antropologiaren barnean posible da bestelako azpisailkapen bat egitea, kasu honetan aztertutako gaien arabera. Hala nola hiri antropologia, landa eremuko antropologia, garapenaren antropologia, elikaduraren antropologia, antropologia aplikatua, etab.

Gizarte antropologiak norbanakoak ditu aztergai. Baina pertsonok taldean bizi garenez, gizarte kideak gara. Ondorioz, antropologiak norbanakoak gizarte kide diren heinean aztertzen ditu beti. Gizarte antropologiaren interesa giza jokamoldearen eta munduan barreneko **gizartean bakartasuna eta aniztasuna** ulertzea eta mundu osoko gizakiak uztartzen dituzten oinarrizko **parekotasunak aurkitzea** da. Xede hauek lortzeko, antropologoek herri ezberdin askori buruzko (iraganekoak eta gau egungoak) **azterketa sistematikoak** burutzen dituzte eta **erkatze-teknikak** erabiltzen dituzte gizartean arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehazteko. Beraz, antropologia gainerako gizarte zientzietatik bereizten duena bi gauza dira bereziki; alde batetik **ikergaia** eta bestetik hura aztertzeko erabiltzen duen **metodologia**. Hauetaz, aurrerago hitz egingo dugu.

Diziplina antropologikoa XIX. mendeko bigarren erdialdean jaio zen, okupazio kolonialaren testuinguruan hain zuzen ere. Antropologiak, bere sorrera garaian, herri kolonizatuen gizarte antolakuntza eta ohiturei buruzko informazio baliagarria eskaini zien europar metropoliei. Kultur exotikoen ezagutza honek interes estrategikoa zuen europar gobernuentzako. Lehenengo antropologoek gizarte horien ahaidetasun sistemari buruz,

ekonomiari buruz, tokiko gobernuari buruz eta beste gai estrategikoei buruz informazio sakona lortu zuten. Mendebaldeko gizarte kolonizatzaileek, aurreko informazioa erabili zuten haien interes ekonomiko eta politikoen onurarako.

Historikoki, antropologiaren gaia 'gizarte primitibo' edo 'simple' deiturikoen inguruan eratu zen. Gizarte primitibo horiek, modu batean edo bestean, 'gizarte zibilizatuei' kontrajartzen zitzaizkien. Gizartearen ikuspegi dualista horretatik sortu ziren soziologiaren eta antropologiaren jakintza-arloak, bata gizarte konplexuak (modernoak) zituen aztergai eta besteak gizarte tradizionalak. Gaur egun, antropologiaren aztergaia ez da 'gizarte exotiko' edo 'primitibo' horietan geratzen, XX. mendetik aurrera, gizarte konplexuak ere aztergai izan baititu.

Gizarte antropologiak gizarte sinpleak nahiz konplexuak aztergai dituenetik, ekarpen handiak egin dizkio gizakiaren ezagutzari. Horietan garrantzitsuenetariko bat, bi gizarte mota hauek funtsez desberdintzat ez hartzea da. Honek tradizionalak gizarte zientzien barruan mantendu izan den aurreiritzi batekin apurtzen du: gizarte sinpleak edo primitiboak, konplexuenekin aldentuta, gutxien garatuak daudenak direla. Aldiz, azken hamarkadetako antropologiak erakutsi izan duen moduan, kultura guztiak balio berdina dute eta aniztasun kulturala da nagusi.

Badira gizarte antropologiaren definizio ugari eta ez ditugu hemen guztiak jasoko. Aitzitik, definizio horiek komunean dituzten ezaugarriak izendatuko ditugu. Izan ere, hauetan dago, gure ustez, gizarte antropologiaren izaera ulertzeko gakoa, diziplina honen ezaugarri nagusiak enpirikoa, holistikoa, konparatzailea eta transkulturala izatea baitira.

Gizarte antropologia zientzia **enpirikoa** da gizaki eta gizartearen inguruko ondorioak behaketa sistematizatuetatik ateratzen dituelako eta ez dedukzio abstraktuetatik. Beraz, enpirikoa da sortzen duen ezagutza beti esperientziatik eta errealitateatik datorrelako.

Antropologiak gizakiak bere osotasunean aztertzen ditu. Antropologiaren beste ezaugarri bereizgarri bat honen izaera orokorra da, bere ikuspegi **holistikoa**. Gizarte antropologiak, edozein fenomeno sozial aztergai duela, bertan ematen diren elkarreragin guztiak hartzen ditu kontuan. Errealitatea modu holistiko batean aztertzeak, irizpide ugari kontuan izatea dakar, hala nola, denbora (azterketa sinkronikoa eta diakronikoa), espazioa, ekonomia, politika, ideologia, etab.

Bestalde, gizarte antropologia **konparatiboa** da eta aspektu hau funtsezkoa da bere metodologian. Antropologiak gizarteak konparatzen ditu edo, zorrotzago esanda, gizatalde edo kolektibo ezberdinetan aurki daitezken ezaugarri kultural askotarikoak konparatzen ditu. Prozesu hau **modu sistematiko** batean egiten du, hau da, prozedura antolatua, arautua eta zuzendua da.

Azkenik, gizarte antropologiak ezagutza **transkulturala** eskaintzen duela aipatu behar da. Hala, ez du kultura baten elementuen konparaketa bakarrik egiten baizik eta kultura askoren arteko ezaugarriena. Ondorioz, gizarte antropologiak **aniztasun kulturalaren** berri ematen du eta hau da azken batean haren aztergaia. Mundu osoko herriek balio, arau, sinesmen eta jarduera desberdinak dituzte. Gizarteak askotan kultur eredu desberdin horien arabera bereizten dira elkarren artean. Konparaketa metodoari esker, mundu osoko herrien eta komunitateen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak zehaztea posible da eta hau da, hain zuzen ere, antropologiak egiten duena. Ondorioz, ezaugarri kultural guztiak eta kultura guztiak maila bereko garrantzi eta interesa dute antropologiarentzat. Izaera transkultural honi esker antropologiak laguntzen du aniztasunaz gain kulturen artean zenbait antzekotasun daudela ikusten, azken finean, gizatalde ezberdinetako pertsonen behar eta desira antzeko asko baitituzte atzean.

1.2. Gizarte antropologiaren ikergaia: Kultura eta aniztasun kulturala

Antropologia beste gizarte zientzietatik bereizten duena honen ikerketa objektua eta hau aztertzeke erabiltzen duen metodologia dira. Hitz gutxitan esanda, gizarte antropologiaren ikergaia 'kultura' eta honek hartzen dituen forma eta eredu askotarikoak dira. Benetako zailtasuna, ordea, kultura zer den definitzea da.

Kultura 'cult' hitz latinetik dator eta etimologikoki "erroak landu", "hazi" edo "laboratu" esan nahi du. Gizarte zientziek askoz beranduago bereganatu zuten kultura kontzeptua. Dena den, kulturaren definizio bakarra eta zehatza ematea ezinezkoa da korrante antropologiko bakoitzak berea sortzen baitu. Are gehiago, eta hobe esanda, antropologo bakoitzak berea sortzen du. Hau dela eta, kulturaren definizio bakarra lortzen saiatu beharrean, interesgarriagoa da haren ezaugarri garrantzitsuenak aztertzea.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da **kultura gizakien berezko ezaugarria** dela, beste animalietatik bereizten gaituena baita. Kultura existitzeko beharrezkoa da sistema

kognitibo bat izatea. *A priori* gizakiok bakarrik dugun sistema honek sinbolizatzeko gaitasuna ematen digu, hau da, esanahiak eraikitzea ahalbidetzen digu eta honekin inguruko errealitatea interpretatzeko gaitasuna ematen digu. Sinboloak errealitatea irudikatze erabiltzen ditugun esanahiez hornitutako hautazko unitate edo ereduak dira, hau da, elkarri ideia abstraktuak komunikatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuzko tresnak dira. Pentsamendu sinbolikoa gizakion bereizgarria da eta honekin loturik garatu dugu **hizkuntza**.

Animaliok ingurune aldakorrean bizi gara eta ondorioz honekiko egokitzapena ezinbestekoa da guretzat. Gizakiok inguruneari biologikoki baino kulturalki egokitzen gara. Gainerako animaliak ordea, biologikoki egokitzen dira soilik. Are gehiago, gizakion kasuan, egokitzapen kulturala ezinbesteko ezaugarria bihurtu da bizirik irauteko. Honi esker, testuingurua eraldatzeko gaitasuna garatu dugu.

Gizakien bereizgarria den ezaugarri nagusi hori, kultura alegia, **ikasia** da. Kultura ez da geneen bitartez jasotzen ditugun ezaugarri fisikoen modukoa. Aitzitik, *enkulturazio* prozesuaren bidez bereganatzen dugu, hau da, gizarte-elkarrekintzez osatutako prozesua jarraituz. Aurreko guztiaren ondorioz, **kultura beti taldekoa eta kolektiboa** izango da, hau da, ez dago kultura indibidualik. Kultura existitu eta transmititu egiten da norbanakoak talde kideak diren heinean. Ezaugarri honen ondorioz, kultura denboran zehar mantentzen da, pertsonak desagertu gaitezke baina gure kulturak iraungo gaitu. Hau posible da bakarrik kultura banakotasunaren gaineratik dagoelako eta **belaunaldi batetik bestera transmititzen delako**.

Kulturak, biologia eta psikologiarekin batera, giza esentzia osatzen du. Aipatu dugun moduan, kultura taldekoa da eta belaunaldi batetik bestera transmititzen da. Honek zera dakar, **kultura ikasia** dela. Kultura zehatz baten ikasketa prozesuari **enkulturazioa** deritzo. Enkulturazioa prozesu bat da, jendeak gizarte-elkarrekintzen bidez bere kultura ikastea eta bereganatzea posible egiten duen prozesua.

Gizakiok bi modutara bereganatzen dugu kultura, kontzienteki (hezkuntza arautuaren bidez, adibidez) eta inkontzienteki (egunerokotasuneko elkarrekintzen bidez, adibidez). Azken honekin loturik, jakin behar dugu pertsonok askotan gure kulturaren gauza garrantzitsuak ikasten ditugula modu mekaniko edo automatikoan beste taldekideekin ari garenean edo gure egunerokotasunean.

Kultura belaunaldi batetik bestera transmititzen da baina honek ez du esan nahi hau estatikoa eta aldaezina denik. Izan ere, **kultura errealitate egonkorra eta aldakorra da aldi berean**. Kulturak aldatzen dira taldekideak eta egoera sozialak ere aldatu egiten direlako. Baina unitate baten moduan identifikatzen jarraitu ahal izateko ezinbestekoa da elementu eta ezaugarri batzuk denboran zehar aldatu gabe mantentzea. Kultura batean iraunkor mantentzen diren elementu edo ezaugarri horiek gizatalde horren **egitura soziala** adieraziko dute (ahaidetasun sistema, erlijioa, hizkuntza, ekonomia sistema, etab.). Hauek dira kultura bat denboran zehar bereiztea posible egiten dutenak.

Bestalde, kulturaz ari garenean letra larriz ala xehez ari garen ondo bereizten jakin behar dugu. **Kultura** (letra larriz) gizakiaren **ezaugarri unibertsalaz** ari da, konkretuki, beste animali espeziengandik bereizten gaituena. Gizakiek oinarrizko ezaugarri berdinak dituzte mundu osoan zehar. Hauei, kultur unibertsalak deritzo, hau da, gizartearen jokamoldearen oinarrizko ezaugarriak, alegia. Hala ere, unibertsal hauen eduki zehatza gizarte batetik bestera alda daiteke eta zentzu honetan **kulturak** (letra xehez eta pluralaz) sortzen dira. Gizatalde bakoitzak bere kultura garatzen du edo, beste modu batean esanda, testuingurura egokitze eta taldekideen arteko erlazioak ulertzeko berezko modua sortzen du. Honela, **aniztasun kulturala** sortzen da eta hau da, hain zuzen ere, ikerketa antropologikoari gehien interesatzen zaiona.

Kultura **integrala** da gizakion bizimoduarekin erlazioa duten aspektu guztiak baldintzatu eta eraldatzen dituelako. Eguneroko hizkeran, jende gehienak kultura hitza 'kultura jaso' izendatzeko erabili ohi du (Shakespear-en idazlanak, Beethoven-en sinfoniak, Michelangelo-ren eskulturak, gourmeten sukaldaritza, hizkuntza jaso etab.). Antropologoek berriz, askoz adiera zabalagoan erabiltzen dute, gizarte bateko kideek ikasitako eta elkarrekin bat dituzten ideiak eta ekoizpenak barne hartzen baitituzte.

Kultura, bada, hainbat kidek bat duten bizimoduari deritzo, eta horren barruan gizarte jakin baten baitan belaunaldiz belaunaldi jasotako balio, sineste eta arauak biltzen ditu beste askoren artean. Ondorioz, taldekideen eguneroko bizitzari arreta jarriz posible da kultura zehatz bat aztertzea, kulturak pertsonen pentsatzeko modua, sentitzeko modua eta ekiteko modua baldintzatzen baitu. Gizarte antropologiak kultura aztergai duenez diziplina holistikoa izan behar du derrigorrez eta norbanakoak bere osotasunean eta elkarreraginean aztertu behar ditu; lehenaldia, orainaldia eta geroaldia kontuan hartuz. Banakoa nahiz taldea, hauek inguratzen dituten beste guztiarekin batera uler daitezke bakarrik.

Azkenik, azpimarratu behar da kultura zehatz bat osatzen dituzten elementuak eta alderdiak **materialak eta ez materialak** direla. Kultur elementu materialen artean harekin garatu edo erlazionatzen diren objektuak ditugu (etxea, sukalderako tresnak, garraiobideak, janzkera, aisialdirako materialak, etab.). Bestalde, kultura ez materiala taldearen ezagutza, ideiak, sentimenduak, jakintza, balioak, arauak eta bestelakoak osatzen dituzte.

1.3. Metodo antropologikoa: etnografia eta analisia

Metodologia hitza grekotik dator eta definizio etimologikoa 'haratago' (*meta*), 'bidea' (*ados*) eta 'ikasketa' (*logos*) da, hau da, 'ikasketarako bidea'. Hauxe da, hain zuzen ere, antropologiaren bereizgarria den bigarren ezaugarria: ikerketa objektu duen kulturaren azterketarako erabiltzen duen berezko bidea edo modua.

Metodo antropologikoa ondo berezitutako bi fasez edo urratsez osatua dago eta horietariko bakoitzean ikerketa teknika bereziak erabiltzen dira. Lehenengo urratsari fase deskriptiboa edo etnografikoa deitzen zaio eta bigarrenari berriz, etnologikoa.

Hasiera batean, antropologiak exotismoz beteriko ezagutza ekoizten zuen, urruneko gizarte primitiboak edo tradizionalak baino ezin zituela aztertu pentsatuz. Horregatik, gaur egun ere, antropologoei kostatu egiten zaie bidaiari nekaezin edo galdutako tribuen aurkitzaile gisa irudikatzen dituzten klixeeetatik aldentzea. Hala eta guztiz ere, **lekuan lekuko lana** deritzanak jarraitzen du izaten jakintza-arlo honen bereizgarri nagusia, hau da, aztergai diren populazioak denbora aski luzez eta bertatik bertara behatzea. Berezko teknika hau ezagutzaren lehenengo fasean edo fase deskriptiboan taxutzen da.

1.3.1. Metodo antropologikoaren lehenengo fasea: fase deskriptiboa edo etnografia

Gaur egungo esperientzia etnografikoak urrun daude exotismo bila egindako bidaia hutsak izatetik. Lekuan lekuko lana aztertutako fenomenoena izaera berari dagokio eta ez gertakizun hauek gizatalde tradizional edo primitibo batena izateari.

Etnografia, edozein fenomeno kulturalen lehen mailako ikerketa pertsonalari deitzen zaio. Azterketa *in situ* egiten da, hau da, gertatzen den tokian eta momentuan bertan. Ondorioz, antropologoak egin behar duena aurretik zehaztutako denbora batez gizatalde edo komunitate horretara mugitzea da. Hauxe da lekuan lekuko lanaren berezko ezaugarria, antropologoak, beste diziplinako ikertzaileak ez bezala, ikertzen ari diren komunitatean

bertan aritzen direla. Askotan, ikerketak irauten duen bitartean antropologoak ikergai duen gizataldearekin bizi behar du. Honen arrazoia da, kultura-egitateak inplizituak edo oharkabekoak zaizkiela sarritan kultura zehatz baten parte-hartzaileei. Kultura, erakundeetan edo arauetan baino gehiago, inkontzienteki bizi izaten diren jarduteko edo pentsatzeko moduetan adierazten da eta, horregatik, behaketa zuzena da hura antzemateko tresna eraginkorrena.

Bestalde, antropologia diziplina **enpirikoa** da. Honek esan nahi du ezagutza bera eguneroko esperientziatik jasotzen duela eta ez laborategietako esperimenduetatik. Praktika soziala bera du aztergai, beraz.

Metodo antropologikoaren lehenengo fase edo urrats honetan aztertzen ari garen errealitate sozial osoaren deskripzioa egiten da. Halako deskripzioa egiteko, lehenik eta behin behaketa **sistematikoa** egin beharko dugu. Sistematikoarekin esan nahi da antropologoak aztergai duen gizataldearen jarraipen arautua egin behar duela. Modu honetan, ikerketa objektuarekin harremana duen informazio guztia ondo definitutako urratsak jarraituz lortuko du.

Ikerketa prozesuaren lehenengo fase honetan badira informazioa jasotzeko antropologiari erabiltzen dituen hainbat **teknika**. Hauetatik garrantzitsuenak: behaketa parte-hartzailea, landa-koadernoa, bizitza kontakizuna, berriemaile pribilegiatuen elkarrizketa, autobiografia eta eztabaida taldeak. Informazioa jasotzeko teknika hauek, edozein azterketa antropologiko egiten ari garela behar dugun informazio etnografikoa jasotzeko erabil ditzakegun tresnak dira. Hauek erabiliz lortuko dugun informazioa erabakigarria izango da aurrerago gure ikerketa objektuaren ezagugarriez ohartzeko.

Landa lana metodo antropologikoaren berezko teknika da eta honen testuinguruaren barnean garatuko dira gainerako teknikak. **Landa lana** edo **lekuan lekuko lana** ikertu nahi dugun errealitate sozial horren inguruko informazioa *in situ* jasotzean datza. Hala ere, tokian tokiko ikerketa beste komunitate edo herrialde horretara joan aurretik hasten da. Edozein landa lan egin aurretik, ikertzaileek antropologiaren inguruko hainbat alderdi teorikori buruzko ezagutza sakona behar dute. Aurretiazko ezagutza horrek garrantzia handia du landa laneko ikerkuntzaren nondik norakoak finkatzeko. Horretarako, gai jakin bat ikertzeko estrategiak zehaztu eta ahalik eta datur gehien biltzeko metodorik egokiena aukeratu beharko dugu. Hau dela eta, zuzeneko landa lanarekin hasi aurretik,

antropologoek liburutegi edo fitxategietako datuak aztertzen dituzte lehenago haien ikerketa objektuari buruz idatzi dena ezagutzeko asmoz.

Datu hauek guztiak bildu ondoren, etnologoa aztertu nahi duen gizartera joango da bizitzera gizarte horretako erakundeak eta balioak aztertu ahal izateko. Hauxe da behaketa metodo parte-hartzaile baten oinarria, eta batzuetan, aztergai hartutako taldearen hizkuntza eta kultura ikastea eskatzen du, talde horren eguneroko zereginetan parte hartzeaz gain. Beste batzuetan, ikertu nahi dugun gizatalde hori oso arrotza ez zaigunean edo gugandik oso urrun ez denean bizi, ez da beharrezkoa izaten bertara bizitzera joatea. Kasu hauetan ikerketa iraunkorrak egitearekin nahiko izaten da. Bi kasuetan ordea, momentu zehatz honetan sortzen da 'bestearekin lehenengo harremana eta hau gertatzen denean, kontziente izan behar gara hainbat aspektu etikotaz. 'Bestearekin' erakusten dugun jarrerak, hark gurekiko erakutsiko duen jarrera baldintzatuko du halaber. Edozein kasutan, erlazio hauen nondik norakoak beti ikertzailearen ardura izango dira bera baita komunitate hori aztertzea eta bertan sartzea erabaki duena.

Lekuan lekuko lanaren bi euskarriak **behaketa parte-hartzailea** eta **landa-koadernoak** dira. Edozein kultura eta jokamolderen berri ikasteko bide nagusien artean zuzeneko behaketa edo behaketa parte-hartzailea dugu eta aztertzen ari garen pertsonen kokaleku fisikoaren eta eguneroko jardueren gaineko deskribapen zehatzak egitean datza. Ezinbestekoa da gizatalde horren egunerokotasuna aztertzea. Horretarako, ez da nahikoa izango errealitatea ikustearekin, errealitate horri begiratu egin behar zaio. Gauza bat begiratzeak, hura ikustea baino intentzio handiagoa inplikatzeko du, ekintza horretan helburu bat badagoela suposatzen baitu. Modu honetan, antropologoak aztergai duen komunitatearen egunerokotasunean parte hartzen duenean, gizatalde hori barrutik aztertzeko posizio pribilegiatua lortzen du. Antropologoei hasieran informazio asko ezkutatzen zaie baina taldearen konfiantza irabazi dutenean, orduan bai has daitekeela talde hori benetan ezagutzen. Beraz, hurbiltze arazoak gainditzeko konfiantza-harremanak ezarri behar dira. Ikertzaileak pazientzia izan behar du eta aztertutako subjektu edo taldearekin harremanak estutu, izan ere ezin baitzaio eskatu edonori bere bizitzako gauza pribatuak berez eta besterik gabe kontatu diezazkigun. Edozein kasutan, konfiantza hartze honen gorabeheran daude bai kontalaria zenbateraino irekiko den, bai haren informazioaren kalitatea.

Behaketa parte-hartzaileak printzipioz oso erraza eman dezakeen arren, lanarekin oso zorrotzak izatea eskatzen du. Tokian tokiko ikerlanarekin hasi baino lehenago beharrezkoa

den informazioa jasotzeko lan horretaz gain, behaketa parte-hartzaileak irauten duen bitartean ere lortzen dugun informazioa jasotzen oso zorrotzak izan behar gara. Informazio guztia landa-koadernoan bilduko dugu.

Landa-koadernoan, antropologoak tokian tokiko ikerlanak irauten duen bitartean jaso duen informazio guztia biltzen du modu sistematiko batean. Irizpide nagusia, gure ikerketarako interesgarria izan daitekeen edozein informazio modu argi eta zehatz batean biltzea izango da. Hau dela eta, zorrotzak izan behar gara landa-koadernoan betetzen eta gerorako daturik ez uzten. Askotan, landa-koadernoan jaso den informazio hori osatzeko beste erreminta batzuk erabiltzen dira, adibidez, grabagailuak, bideokamerak, etab. Orduan, landa-koadernoan informazio honen produkzio testuinguruaz mintzatuko gara; nola sentitu garen, nola uste dugu sentitu dela berriemailea, bere gorputzaren jarrera, inguruaren deskribapena, etab.

Edozein gizatalderen bizimoduan parte hartzen dugunean, halabeharrezkoa da pertsonekin topo egitea eta komunikatzea. Zentzu honetan, antropologiak elkarrizketa hauek bideratzeko eta hauetatik ahalik eta informaziorik erabilgarriena lortzeko hainbat teknika erabiltzen ditu baita ere.

Bizitza-kontakizunak areagotu egin ziren antropologiako ikerbide moduan Lehen Mundu Gerraren ostean, orduan konturatu baitziren dokumentu biografikoen tratamendu antropologikoaren balioaz. Teknika honen helburua ez zen norbanakoen nortasunari buruzko informazio zehatza jasotzea baizik eta gizarte osoaren inguruko informazioa jasotzea norbanako hauen lekukotzan oinarrituz. Taldearentzat garrantzitsua eta adierazgarria den hori izaten da ere norbanakoentzat, hortaz, norbanakoen bizitza aztertuz irits gaitezke gizartearen elementuak ezagutzera ere. Horretarako, kontutan izan beharko dugu beti talde osoaren aspektu adierazgarriak ezagutzea dela helburua eta ez pertsonen biografia hutsak.

Pertsonengandik informazioa jasotzeko beste modu bat **berriemaile pribilegiatuena** da. Gizatalde guztietan badira beti tokiko kulturaz informazio aberatsago eta sakonagoa duten pertsonak. Pertsona hauen konfiantza bereganatzea ezinbestekoa da eta behin hori lortuta, oinarritzko berriemaile bilaka daitezke. Esan bezala, berriemaile hauek dagokion gizarteko kultur ereduaren gaineko barne-ikuspegia ematen diete antropologoei. Horregatik, antropologoek oinarritzko berriemaileak aukeratzean komunitateari buruzko ezagutza sakona dutenak hautatzen saiatzen dira.

Bai bizitza-kontakizunen teknikan nahiz berriemaile pribilegiatuen teknikan ere, **elkarrizketak** egingo ditugu. Elkarrizketa gizarte zientzietan informazioa biltzeko askotan erabiltzen den teknika da. Elkarrizketen bidez 'bestea'-ren iritzia ezagutzen dugu. Hauek, zuzenduak, ez-zuzenduak ala erdi-zuzenduak izan daitezke.

Antropologoek **egituratu gabeko elkarrizketak (ez zuzenduak)** ugari erabiltzen dituzte. Hauetan, alde zuzenetik mugatu gabeko galderak egiten zaizkie berriemaileei, beren kulturari buruzko ikuspegiak eskuratzeko. Askotan jorratu nahi dugun gaiari hurbilpen zeharkakoa egiten dugu solaskide informalarekin. Honek, ikertzailearen aldetik jarrera enpatikoa eskatzen du eta ahalik eta baita neutralena izatea ere.

Askotan, elkarrizketa hauetan bildutako datuei jarraiki, aztergaitzat hartuko duten gaiarekin lotutako alderdi zehatzetan oinarritzen dira antropologoak. Orduan, **elkarrizketa egituratuak** lantzen hasten dira. Elkarrizketa mota hauek lehenago landu behar dira eta ondo prestatuta eraman. Askotan, galdera multzo berdina pertsona ezberdinei egiten zaie geroago emaitzak alderatu ahal izateko.

Azkenik, **elkarrizketa erdi zuzenduak** edo egituratuak aurreko bien arteko batura dira. Hauetan, elkarrizketatuari libreki hitz egiten uzten zaio baina beti ere, alde zuzenetik prestatu ditugun galdera zabalei erantzun.

Edozein elkarrizketa egiten ari dela **entzute aktiboa** jorratu beharko du antropologoak. Honek berriemailea kontatzen ari zaiona momentuan prozesatzeko, laburtzeko eta horren gainean galderak egiteko gai izatea inplikatzeko du.

Dakigun moduan, antropologoek aztergai duten gizataldea osatzen duten pertsonengandik jasotzen dute informazio osoa. Pertsona hauekin adosten dituzten bilerak edo topaketak banakakoak ala taldekoak izan daitezke. Taldean informazioa jasotzeko teknikarik erabiliena **eztabaida taldeak** dira. Ideia nagusia beharrezkoa dugun informazioa lortzea da alde zuzenetik gure helburuei erantzuteko asmoz sortu dugun eztabaida talde batetik. Teknika hau berriemaile soiletan oinarritzen diren beste teknikak baino zailagoa da eta esperientzia handiagoa eskatzen du antropologoaren partetik. Horretaz aparte, askatasunez hitz egiteko, partaideek gutxieneko konfiantza izan beharko dute beraien artean eta baita antropologoarekiko ere.

Hauek dira, modu orokor batean esanda, antropologiak bere ikergaiari buruz informazio deskriptiboa edo etnografikoa jasotzeko erabiltzen dituen teknika aipagarrienak. Hauen aplikazioaren ondorioz, aztergai dugun gizatalde edo fenomeno sozialari buruzko deskribapena edo testu etnografikoa lortzen dugu. Testu etnografikoa lortu dugunean hurrengo pausuari emango diogu hasiera, analisi faseari alegia.

1.3.2. Metodo antropologikoaren fase analitikoa edo etnologikoa

Esan bezala, lehenengo urratsaren amaieran antropologoek testu etnografikoa lortzen dute. Txosten etnografikoa informazioa jasotzeko hainbat tekniken aplikazioaren ondorioz sortzen da eta hauen bitartez lortutako datuen antolakuntza sistematikoaren emaitza da. Hau da, aurreko ikerketa lan guztiaren emaitzak **etnografia** deritzon **monografia deskribatzaile** batean jasotzen da. Deskribapen etnografikoa idaztean, etnologoek arreta handiz ibili behar dute. Bildutako landa ohar, argazki edota bideo zein zinta grabaketak, inkesten bidez jasotako datu kuantitatiboekin batera, arreta handiz landu behar dira aurreiritziak, itxuraldaketak eta hutsegiteak murrizteko.

Txosten honetan oinarrituz eta aurkitutako informazio teorikoa kontutan hartuz, datuen analisisa edo etnologia egingo da. Datu hauek guztiak aztertzean, hainbat iturrietatik (berriemaileak, erroldak, behaketa zein agirietako materialak...) ateratako ondorioekin erkatu behar dituzte. Horrez gain, argi eta garbi bereizi beharko dituzte aztergai hartutako pertsonen ikusmolde horren gaineko bere interpretazioak.

Txosten etnografikoa azterketa antropologikoaren lehengaia izaten da. Momentu honetan, aztergai dugun komunitatearen iritzia jaso dugu dagoeneko eta horren ondoren antropologoaren hausnarketaren garaia izango da.

Edozein datu etnografiko sortaren inguruko azterketa kultural egokia egiteko oinarri teoriko ona izan behar dugu. Horretarako lekuan lekuko lana hasi baino lehenago egindako berrikuste bibliografikoan oinarrituko gara. Errepaso teoriko honek lagunduko digu gure gaiaren inguruan egindako aurretiko ikerketak ezagutzen, ezagutza beharrak hautematen edo lan bikoitza ez egiten. Horretaz gain, antropologia diziplina konparatiboa den heinean, erreferente anitzak erabiltzen ditu bere ondorioak lortzeko.

Laburbilduz, metodo antropologikoaren azkenengo fase honetan, etnologikoa, aurreko fasean lortutako datu etnografikoen azterketa eta konparaketa egiten da. Analisisaren

ondorioz, antropologoak ikertu duen fenomeno sozialaren inguruko teoria eta ondorio berriak lortuko ditu. Askotan, ezagutza honek balizko arazo sozialak ezagutzeko, balioztatzeko eta konpontzeko balio izaten du. Ikerketaren helburua hauxe denean, **antropologia aplikatuaren** eremuan ari gara. Antropologia eta gizarte langintzaren arteko lotura aztergai hartuz, esan genezake hemen gertatzen dela bien arteko batasuna eta elkar harremana. Izan ere, antropologia aplikatua deritzonak edozein gizataldetan esku-hartzeko programa bat diseinatzeko testuinguru horri buruzko ezagutza eskaintzen du.

1.4. Antropologiaren historia eta kulturaren teoriak

Antropologiaren historiak hitz egiteak kulturaren ikerketari buruzko historiak hitz egitea esan nahi du, kultura antropologiaren ikergaia baita. Hala ere, Antropologiak ez du eman kulturaren inguruko definizio bakarra. Antropologia sortu zenetik, XIX. mendean, kulturaren inguruan interpretazio ezberdinak ekoiztu ditu. Teoria anitz hauek ezagutza metatzailea dakarte eta zentzu honetan, aurreko teoria eta baieztapenetan oinarrituz beste ikuspegi berri batzuk sortuz joan dira.

Antropologia, gizarte 'zibilizatu'-etan edo 'garatu'-etan sortu zen XIX. mendean. Hau da, antropologia, beste diziplina ugari bezala, Estatu Batuetan eta Europako gizarte modernoetan sortu zen. Beste diziplinatatik bereizten zuena bere ikergaia gizarte hauetatik at bilatzen zuela izan zen. XX. mendearen erdialdera arte, antropologiak "gizarte sinpleak" deituak edo gizarte ez-mendebaldarrak aztertzen zituen eta soziologiak, berriz, mendebaldeko gizarteak. Antropologia, urrutiko kulturak aztertzeagatik ezaugarritu zen. Orduetik aurrera eta kolonialismoak ekarritako kultura askoren desagerepenaren ondorioz, antropologia kultura guztiak aztertzen hasi da, berdin Mendebaldekoak nahiz urrunekoak izan.

Kulturekiko interesa, ordea, ez zen antropologiarekin jaio. Diziplina honen sorrera baino lehenago ere egon ziren kulturen inguruko hainbat deskripzio eta azterketa egin zituzten hainbat geografo, bidaiari edo eta erlijioso, besteak beste.

Liburu sakratuetan (hebrearrak, musulmanak edo hinduak) adibidez, antzinako kulturen ohiturei buruzko informazioa jasotzen da. Aurrerago, k.a. V. mendean, historiagile grekoek ezagutzen zituzten herri eta kultura berrien inguruko deskribapen zehatzak egiten zituzten. Inperio Erromatarreko bestelako filosofo eta bidaiariek ere, konkistatu berri zituzten

herrien kulturaren inguruko deskribapenak egiten zituzten. Aurrerago, Errenazimenduan, hainbat aldaketa gertatu ziren diziplina antropologikoaren sorrera ahalbidetu zutenak.

XV-XVI mende bitartean, Errenazimendu garaian, munduaren konfigurazio espaziala aldatzen da aurkikuntza geografiko berriei esker. Orduetik aurrera, europar kulturak urruneko kultura ugari ezagutzen ditu eta globalizazioaren lehendabiziko kontaktuak hasten dira (data adierazgarria, Cristobal Colon eta bere espedizioa Ameriketara iritsi zenean 1492. urtean).

Espazioaren inguruko ikuspegiarekin batera, denborarena ere aldatu zen. Ohartu ziren gizakiaren sorrera ordura arte uste zena baino askoz zaharragoa zela eta, honekin batera, gizakion jatorriari buruzko kezka nagusitu zen. Honela, gizakion jatorria Jainkotik at azaltzeko lehenengo ahaleginak egin ziren.

XVIII. mendean, Ilustrazioarekin batera, pentsamendu arrazionala nagusitu zen. Orduan, gizakion ikerketa esperimentalak egiten eta ingurune naturalak eta testuinguruak gizakiengan zuten eragina aztertzen hasi ziren. Gizartea ulertzeko ikuspegi sistemikoa sortzen da, hau da, banakakoak sistema baten parte dira eta haien arteko harremanek ere sisteman eragina dauka. Garai honetako pentsalari aipagarri moduan Jean-Jacques Rousseau (1712-1778), Adam Smith (1723-1790) eta Montesquieu (1689-1755) aipa daitezke. Ilustratu hauen ekarpen teoriko aipagarrienak hauek izan ziren:

- Eboluzioaren ideia defendatzen dute. Eboluzio lerro bakarra ('unilineal') dago eta gizartearen eboluzio prozesuan eman diren etapak edo garaiak antzeman behar dira.
- Garapenean sinesten dute.
- Gizakien batasun psikikoan sinesten dute, pertsona guztiak berdinak gara.
- Kultura aldatzeko boterea gizakiengan dago eta ez Jainkoan.

Ilustrazioarekin batera, kultur ezberdinen inguruko ikerketa enpirikoak hasi ziren. Antropologia diziplina moduan, ez zen existitzen oraindik baina haren ikergaiarekiko interesa geroz eta handiagoa izan zen garaiko filosofo eta pentsalarien artean. Hala ere, herri eta kultura 'primitibo' hauen inguruan egindako lehen azterketa hauek geroz eta etnozentrismo eta intolerantzia kutsu handiago erakusten zuten positibismoaren eraginez.

XIX. mendean, Europa eta Ipar Amerikatik at existitzen ziren kulturekiko interesa handituz joan zen garaiko jakitunen artean, batez ere, kolonizazioaren ondorioz. Antropologia sortu

zen, hain zuzen ere, desagertzeaz zeuden kulturen inguruko ezaugarriak eta izaera ezagutzeko interesaren ondorioz eta baita kolonizatzaileentzat datuak biltzeko ere.

Antropologia lanbide moduan, XIX. mendeko bigarren erdialdean sortu zen. Garaiko mugimendu intelektualetan eta Europako hegemoniaren artean nagusi zen espekulazio eboluzionista. Zientzia Naturalen emaitzak garrantzia handia hartu zuten eta lan antropologikoetan eragina izan zuten (adb. Charles Darwin-en eboluzioari buruzko teoria).

1.5. Teoria antropologikoen kezkak

Diziplina antropologikoa XIX. mendean sortu zenetik gaur egun arte 6 ikergai edo kezka teoriko nagusi jorratu ditu.

Gizakiaren eta gizadiaren jatorria

Ez dago beti presente, saltoka agertzen da. Eboluzionismoaren kezka nagusia izan zen. Beranduago, neo-eboluzionismoak eta antropologia marxistak ere jorratu zuten.

Kultura, Kultura Vs. Natura eta aniztasun kulturala

Antropologiaren ikergaia kultura den heinean, kontzeptu hauek diziplinaren kezka nagusia izan dira, ardatz gorenak, norabide teoriko guztietan agertzen direnak, alegia.

1910. urtean Franz Boas-ek partikularismo historikoa eskola sortu zuenean, harekin 'erlatibismo kulturala' kontzeptua sortu zuen. Honekin adierazi nahi zuen hauxe zela antropologiak aniztasun kulturalaren aurrean aurkeztu behar zuen jarrera metodologikoa eta planteamendu teorikoa.

Estruktura, gizartea eta politika

Hauen inguruan, esangura eta ikuspegi ezberdinak egon dira antropologian. Soziologiaren eraginez sartu ziren antropologiara XIX. mendean Herbert Spencer eta Emile Durkheim-ek. Aurrerago, estruktural-funtzionalismoak (Radcliffe-Brown) eta eskola frantses estrukturalistak (Levi-Strauss) ildo honetatik jarraitu zuten.

Denbora prozesuak, sinboloak eta esangurak

XX. mendeko bigarren erdialdeko eskolen aztergai nagusia izan zen. Gizarte antropologia britainiarretik hasita Antropologia Sinbolikora eta, beranduago, Interpretatzaileira.

Ezberdintasun soziala, konpromisoa, antropologiaren berrikuspena

Antropologiaren espezializazioak sortzen dira eta hauen artean halako eremu teorikoak aztergai dituztenak. Aipagarrienak antropologia kritikoa eta antropologia feminista.

Antropologiaren berrikuspena, antropologiaren antropologia

1980tik aurrera, antropologia posmodernoaren sorrerarekin, diziplina berak bere burua berrikusten du.

Ikuspegi eta kezka teoriko hauek guztiak beraien artean konbinatzen dira teoria antropologiko ezberdinak sortuz.

Antropologiaren sorreratik gaur egun arte, kulturaren inguruko teoria eta korrante teoriko ezberdinak agertu dira bere barnean. Antropologian, ikuspuntu teorikoak fenomeno kulturalak azaltzeko norabide eta jarrera zehatzak islatzen ditu. Jarraian, hauen azterketa egingo dugu eta bakoitzean antropologo aitzindari aipagarrienak ezagutuko ditugu.

1.5.1. Teoria Eboluzionista

Teoria eboluzionistaren arabera, ez dago harremanik kulturen sorreran, guztiak modu independentean sortu dira. Hala ere, kultur orok garapen estadio berdinegatik pasatzen dira. Beraz, teoria honen arabera, gizarteek garapen prozesu lineala bizi dute eta kulturak, berriz, garapen aldi berberak pasatzen ditu.

Eboluzionismo sozialaren aitzindaria Herbet Spencer (1820-1903) naturalista, filosofo eta soziologoa izan zen. Darwinismo Soziala delakoa sortu zuen, Charles Darwin-ek mundu naturalaren eta biologiaren gainean garatutako teoria eboluzionista gizarte eta kulturari aplikatuz. Gizarte zientzia eta biologiaren arteko erlazio honen gainean eraiki zen analogia organikoa, hau da, gizartearen azalpena gorputz organiko bat balitz bezala egitea. Spencerek, *superorganikoa* kontzeptua erabili zuen kulturari erreferentzia egiteko. Kontzeptu honen bitartez gizakien banakotasuna gainditzen zen eta interes pertsonaletatik kanpo kokatzen ziren ideien multzoan jartzen zen arreta (kulturan, alegia).

Spencer-en hipotesi orokor hauen inguruan, planteamendu teoriko ezberdinak ekoiztu zituzten hainbat antropologok. Eskola Eboluzionistaren aitzindariak izan ziren, bestek beste, Lewis Henry Morgan (1818-1881) eta Edward B. Tylor (1832-1917) antropologoak.

LEWIS HENRY MORGAN abokatu ipar amerikarrari, Ameriketako bertako kulturenganako interesa piztu zitzaion helduaroan. Berak egin zuen Ameriketako jatorrizko kulturen inguruko lehen lan etnografikoa, konkretuki, Iroquois kultura aztertu zuen (*League of the Iroquois*). Morganen ikergaiak gizadiaren jatorria, senidetasun harremanak eta garapena eta teknologia (teknikak) izan ziren. Ameriketako kulturen inguruan egindako ikerketa guzti horien ondorioz eta beti ere, Darwinen teoria biologikoan oinarrituz, bere teoria antropologiko nagusia sortu zuen. Morgan-ek zazpi aldi edo fasetan oinarritutako garapen historikoaren inguruko eskema proposatu zuen.

Garapenaldiak edo faseak	
Basatitasuna	1. Behekoa (basoko fruituen bilketa, biltzaileak)
	2. Erdikoa (arrantza, hizkuntzaren jatorria eta suaren erabilpena)
	3. Goikoa (arkuaren eta geziaren erabilpena)
Barbariea	4. Behekoa (zeramika asmatu)
	5. Erdikoa (landare eta animalien zainketa, ureztaketa laborantza, adobe eta harria)
	6. Goikoa (armak eta metalezko erremintak erabili)
Zibilizazioa	7. Zibilizazioa (idazkera eta alfabetoa asmatu)

Garapenaren estadio edo fase hauek hurrenez hurrenekoak izango liriteke, oinarrian garapenaren (progresoaren) ideia dago beraz. Morganen ustez, gainera, bere gizartea eta kultura zen garapen eskema honen barruan kulturaren zibilizazio maila gorena lortu zuena (XIX. mende amaierako gizarte Estatu Batuarra).

EDWARD BURNETT TYLOR antropologo britainiarra Morganen garai berekoa izan zen eta antropologiaren bilakaera sustatu zuen European. Aurreko kasuan bezala, bere ikuspegi teorikoa eboluzionista zen. Tyloren garapen eskema Morganenaren antzekoa zen, honek ere kulturak sinpleenetatik konplexuenetara garatzen zirela uste baitzuen. Hiru garapen fase edo aldi banatu zituen; basatitasunetik zibilizaziora doana barbarieriatik ere pasatuz.

Tyloren ustez, fase edo estadioen bilakaera progresiboa da baina ez iraunkorra. Izan ere, badira oraindik aurreko eskemaren arabera, hasierako faseetan aurkitzen diren gizarteak. Garapena da, Tyloren ustez, kulturak garatzeko eta aurrera egiteko bidea.

Zibilizazioa fase ideala da eta hona iristeko, derrigorrez, aurretiko fase guztietatik pasa behar da. Hau da, zibilizazioa beheko faseetatik (gizarte sinpleetatik) goiko faseetara

(gizarte konplexuetara) doan garapenaren emaitza da. Izan ere, ezaugarri kultural konplexuenak (goi mailako faseetan ematen direnak), ezaugarri sinpleenetatik sortu izan dira.

Tylorek gizaki guztien artean batasun psikikoa existitzen zela defendatzen zuen. Batasun honi esker, herri guztiek garapen fase edo maila berdinak biziko lituzkete. Modu honetan, esan daiteke Tylorek Kulturaren sinesten zuela, Kultura unibertsal moduan ulertuz, gizaki guztiok gizakiak izateagatik daukaguna. Bera izan zen Kulturaren lehenengo definizioa eman zuena:

“Kultura... gizarte bateko kide moduan gizakiak bereganatutako ezagutzak, sineskerak, artea, moralak, zuzenbidea, ohitura eta bestelako gaitasunak barne hartzen dituen osotasun konplexu hori da”

Definizio honen arabera, Kultura errealitate bakarra eta unibertsala da eta gizaki guztiok dugunez, herri guztiek kultur fase edo estadio berdinak bizi dituzte.

1.5.2. Difusionismoa

Eskola antropologiko difusionistak, eboluzionismoaren helburu berdina du: gizadiaren historia kulturala eraikitzea. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, teoria eboluzionista oraindik nagusi zenean, difusionismoa sortu zen Europan. Honen oinarri teorikoa zera da, kulturek asmakuntza gaitasun murriztua dutela eta beraien joera naturala beste kulturak imitatzea eta kopiatzea dela. Difusionismoa aniztasun kulturala azaltzeko lehen teoria moduan sortu zen.

Kultur aniztasuna maileguaren ondorioa dela baieztatzen du difusionismoak. Ez elementu soilen mailegua baizik eta ‘konplexu kultural’-ena (adibidez, senidetasun sistema, erlijioa, etab.). Eskola alemaniarraren arabera, gainera, kultur fokua edo *zirkulu kulturalak* deiturikoak daude eta Kultura, gune hauetatik zabaldu da historian zehar. Tendentzia honen arabera, zibilizazioaren elementu gehienak Egipton sortu ziren eta historian zehar munduko parte guztietara zabaldu ziren migrazio eta merkataritza prozesuei esker.

Difusionismoaren garapenean Alemaniako eskola izan zen garrantzitsua. Honen barruan aipatzekoak dira, Fritz Graebner (1877-1934) antropologoa eta Fr. Wilhelm Schmidt (1868-1959) apaiza.

SCHMIDTten ekarpenen artean, kultur zikloen ideia dago. Teoria honen arabera, historian zehar, kultura ziklo ezberdinak garatu dira.

Kultur zikloak

0. Ziklo arkaikoak	Zentrala (Afrikako pigmeoak...)
	Artikoa (Inuit-ak)
	Antartikoa (Australiako tribuak, tasmaniarrek)
1. Lehen mailako zikloak	Patriarkalak (totemistak, ehiztariak...)
	Matriarkalak (nekazariak)
	Patriarkalak (artzain nomadak)
2. Bigarren mailako zikloak	Mistoak
3. Hirugarren mailako zikloak	Asia
	Europa
	Amerika

Difusionismoaren helburua zirkulu kulturalak eta konplexu kulturalak antzematea zenez, antropologo hauek tokian tokiko lan ugari egin zuten eta honi esker material etnografiko aberatsa bildu zuten.

XX. mendean eta konkretuki, Lehen Mundu Gerra ostean, eboluzionismoaren eta difusionismoaren aurkako teoriak ugaltu ziren bai Europan nahiz Ipar Ameriketean. Aurreko bien ikuspegi etnozentrista eta unibertsalistarekin bukatu nahian aniztasun kulturalaren inguruko teoriak garrantzia hartu zuten antropologian. Jarraian jasotzen diren teoriak eta antropologoak logika honen barruan kokatu behar dira.

1.5.3. Partikularismo historikoa (tradizio Ipar Amerikarra)

Partikularismo historikoa eta konkretuki korrante honen aitzindari den Franz Boas (1858-1942) teoria Eboluzionistaren suntsitzaila nagusia izan zen. Bere kritika nagusia kultura lege unibertsalen menpe dagoenaren baieztapenari zuzendu zuen.

FRANZ BOAS-ek jatorri alemaniarra zuen eta bere ibilbide profesionala antropologian Ipar Ameriketean egin zuen. Ipar Ameriketako tokiko kulturetan lan etnografiko sakona eginez, kultur aldakuntzaren konplexutasuna erakutsi zuen. Lan etnografiko aberats honetatik

lortutako ondorio nagusia honakoa izan zen: kultur aniztasuna da nagusi eta kulturek komunean dutena ezberdintasuna da, ez berdintasuna. Hau dela eta, kultur ezaugarri guztiak bere testuinguruan ulertu behar dira.

Boasek, gizadiaren historia osatu nahi zuen arraza, hizkuntza eta kultura aztergai hartuta. Hortaz, ikerketa holistikoak egiten zituen, gizakiak bere osotasunean aztertuz. Horretarako, antropologiaren adar ezberdinak jorratu zituen: fisikoa, arkeologikoa eta kulturala, besteak beste. Bere ikerlanetatik lortutako ondorio teoriko aipagarrien artean hurrengoak aurkitzen dira:

-Kulturak, beste kulturetatik jasotako elementuez osatuak daude, baina hauek testuinguru berrira egokituz. Difusionismoaren oinarritzko teoria onartzen du beraz, baina ezaugarri kulturalak norabide guztietara zabaltzen direla esango du eta ez, ordea, zentro batetik periferiara.

-Baldintza geografiko eta fisikoak ez dira determinanteak kulturen, faktore baldintzatzaileak dira soilik.

-Kultura ez da sortzen gizakion beharizan organikoari erantzuna emateko. Kultura ez da pentsamenduaren garapenaren emaitza, giza antolakuntza eta prozesu historiakorekin sortzen da.

-Kulturaren historia, azken finean, herrien arteko harremanen eta maileguren ondorioa da. Maileguan hartutako elementuak, ordea, testuinguru berriaren arabera moldatzen dira ezaugarri kultural berria ekoiztuz.

-Erlatibismo kulturala kontzeptua sortzen du. Honen arabera ohiturak eta gizataldearen ezaugarriak, dagokion kulturaren arabera aztertuak izan behar dira.

Dudarik gabe, erlatibismo kulturala izan zen partikularismo historikoaren ekarpen teoriko adierazgarriena. Boasek ordura arte antropologiako gainontzeko teorien ikuspegi etnozentrista salatu zuen eta aniztasun kulturalaren aurrean jarrera berri hau proposatu zuen ikerketa antropologikoak egiterakoan. Aurreko planteamendu teoriko guztien arazo nagusia, Boasen arabera, kultura modu estatiko batean ulertzen zutela zen. Partikularismoaren arabera, kulturak dinamikoak dira, historian zehar aldatzen dira, euren

artean harremanak dituzte eta, hartu-eman horien ondorioz kultur ezaugarri berriak sortzen dira.

1.5.4. Britainiar funtzionalismoa

XX. mendean eta beti ere, teoria eboluzionista gainditu asmoz, frantses soziologiaren ekarpenekin jarraitu eta sistema soziokulturalaren azterketa egiten jarraitu zuen antropologiak. Bide horretatik, Britainia Handian teoria funtzionalista sortu zen fenomeno sozialen azterketari ekinez.

Funtzionalistek ez zuten lege orokorretan sinesten, aldiz, induktibistak eta enpiristak ziren. Behaketatik jasotako informazioaren azterketan oinarrituko dira, hau da, ordena soziala esperimentalean sinesten dute.

Ekarpen teoriko garrantzitsua giza egitura edo estruktura soziala izango da, nahiz eta bere esanahia teoria estrukturalistak emandakoarengandik aldentzen den. Lehen aldiz erabili zuten “estruktura” hitza talde sozialen arteko harremanak nolakoak ziren adierazteko. Honetaz gain, erakundeen inguruko azterketa ere egin zuten. Erakundea, helburu komuna duen jende multzo moduan ulertzen zuten. Kulturetan aurki daitezkeen erakundeak senidetasuna, politika, hezkuntza, etab. dira. Bestalde, eskolaren izenak adierazten duen moduan, funtzioa izan zen teoria honek garatu zuen kontzeptu nagusia. Britainiar funtzionalismoaren barruan, funtzioaren adiera ezberdinak garatu ziren eta bi eskola ezberdin sortu ziren: alde batetik, Bronislaw Malinowski (1884-1942) aitzindari izan zuena eta bestaldetik, A. R. Radcliffe-Brown-ek (1881-1955) sustatu zuena.

BRONISLAV MALINOWSKIren eredu funtzionalistaren arabera, ezaugarri kultural guztien funtzioa gizabanakoen interesei eta behar izanei erantzutea da. Ondorioz, kultura bera gizakion beharrian biologiko eta psikologiko oinarritzkoerantzuteko baliabide moduan ulertzen du. Pertsonen errekerimendu biologikoak kultur erakundeen bitartez asetzen dira. Ildo honetatik abiatuz, esan bezala, funtzionalismoaren norabide zehatz bat garatu zen, batzuetan, funtzionalismo biologiko moduan ezagutu dena.

RADCLIFFE-BROWM antropologoak, funtzionalismoaren beste aitzindari bat izan zena, kulturaren eta, orokorrean, funtzioaren inguruko bestelako ikusmolde bat garatu zuen. Honen arabera, ezaugarri kulturelek ez diete interes pertsonalei erantzuten, hauek egitura sozialaren oinarri dira eta hau mantentzeko eta bizirauteko balio dute. Erakunde sozialen

funtzioa, erlazio sozialetan ematen den kohesioa mantentzea da. Horrela, kulturari esker norbanakoak egitura sozialetan biltzen dira eta honek, kanpo eta barne egokitzapena posible egiten du.

Frantses soziologoek aurretik defendatu zuten moduan, gizartea sistema integratu moduan interpretatzen zen. Hau da, sistema hau osatzen duten elementu bakoitzak paper edo funtzio zehatz bat betetzen du osotasunak, gizarteak, jarraitu ahal izateko. Beraz, ikuspegi honen arabera, kulturak ez ditu norbanakoen interes pertsonalak asetzen, kontrakoa baita gertatzen dena; kulturak norbanakoak gizartearen beharrezanen arabera menperatzen ditu.

Aurreko guztia posible egiten duena gizarte egitura da. Gizarte egiturak, gizarteko norbanakoak eta taldeak antolatzen ditu eta elkarrekiko erlazioan jartzen ditu, beti ere, gizartearen onerako edo mantenturako (horixe da bere funtzioa). Horregatik, Radcliffe-Browmen ikuspegi hau Malinowskirenetik aldentzeko, honi eskola estruktural-funtzionalista deitu zitzaion. Edozein kasutan, bietan giza egitura maila enpirikoan kokatu zuten, hau da, praktika sozialaren behaketatik ateratzen zituzten ondorioak.

Aurreko eskola edo teoria guztiek garaian zientzietan nagusi zen ikuspegi positibistaren eragina zuten. Ikuspegi honek gizarte zientzietako eredu teorikoa natur zientzietan bilatzen zuen. Hemendik sortu zen gizartea giza gorputz baten metafora moduan ulertzea. Ikuspegi honen helburua, gizarteak eta kulturak azaltzeko lege unibertsalak lortzea zen (partikularismo historikoan izan ezik) eta horretarako, tokian tokiko lan ugari ekoiztuko zuten. Eskola hauei guztiei esker urruneko gizartei buruz eta askotan kolonizazioaren ondorioz galtzar edo desagertu ziren kulturei inguruko informazio etnografiko ugari bildu zen.

XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, ordea, ideien mailan kokatutako ezagutza antropologikoa nagusitzen da. Bigarren Mundu Gerraren ostean Kultura, ideien sistema baten moduan aztertzen hasi zen eta norabide honen barruan estrukturalismoa, antropologia sinbolikoa eta etnozientzia eskolak aurki ditzakegu. Jarraian, lehenengo biak aztertuko ditugu.

1.5.5. Estrukturalismoa

Eskola Estrukturalistaz hitz egiterakoan, derrigorrez bere sortzaileari buruz hitz egin behar dugu, Claude Leví-Strauss (1908-2009).

CLAUDE LEVÍ-STRAUSS, Bruselan jaio zen eta jatorri judutarra zuenez, 1940. urtean Estatu Batuetara ihes egin behar izan zuen. Formazioz filosofoa zen baina jorratu zituen gai guztiak antropologia gaiak izan ziren.

Estrukturalismoak kultura du aztergai eta hau giza egituraren adierazpen moduan ulertzen du. Baina aurrekoak ez bezala, Levi-Straussen ustetan egiturari buruzko ezagutza ezin da errealitate sozial edo enpirikotik inferitu edo lortu hau gizakion ideietan edo buruan baino ez baitago.

Kultura, eskola honen arabera, sistema sinboliko bat da. Konkretuki, komunikazio sistema bat da eta horregatik hau aztertzeko linguistikaren arauak erabili zituen. Kultura sistema sinboliko bezala aztertzetik, Levi-Straussek ondorioztatu zuen gizaki guztiok batasun psikikoa dugula. Batasuna hau *inbarianteatatik* dator, hau da, pertsona guztiok partekatzen dituzten elementu edo ezaugarriak. Kultura beti izango da berdina eta aniztasun kulturala, aurrekoaren interpretazio ezberdinen ondorioz sortzen da. Aniztasun kulturalak kulturak (herriak) bereizten ditu baina ez pertsonak, pertsona guztiok ideien edo logiken egitura berdina konpartitzen baitugu. Beraz, pertsona guztiak batzen gaituen irizpide mental unibertsala kultura egiteko gaitasuna da. Gainera, gaitasun honi esker beste kulturak interpretatzeko ahalmen daukagu. Azken finean, teoria estrukturalistak egiten duena *inbarianteak* aztertzea da, hau da, mundu osoko pertsonak komunean dituzten ezaugarriak.

Aurreko guztia hobeto ulertzeko musikarekin lotura duen hurrengo metafora erabili zuen. Sinfonia bat partitura batean jasota dago, beraz, partitura moduan existitzen da. Baina sinfonia berbera modu ezberdinetan interpreta daiteke, orkestra ezberdinek (kulturak) partitura berdina desberdin joko baitute. Sinfoniaren interpretazio txar bat entzuten badugu, hau ez da izango partituraren arazoa, hura berdina baita kasu guztietan, interpretazio arazoa izango da.

Beraz, pertsona guztiak batzen gaituena, irizpide unibertsal edo inbarianteak, partitura izango litzateke eta aniztasun kulturala, berriz, horren interpretazio pluralak. Hau, giza estrukturarekin lotzen du Levi-Straussek. Egitura, ideien sistema bat da eta praktika sozialarekin duen erlazioa partitura eta haren interpretazioen artekoaren berdina da. Horregatik, errealitate enpirikoa aztertuz ezin dugu giza egitura inferitu edo ezagutu, baina kultura sistema sinboliko baten moduan interpretatzen badugu, azkenean errealitate horren azpian dauden arau unibertsal multzoak aurkituko ditugu.

1.5.6. Antropologia sinbolikoa

Antropologia Sinbolikoa Europan nahiz Estatu Batuetan garatu zen. Lehenengo kasuan Victor Turner (1920-1983) antropologoa izan zen aitzindaria eta bigarrenean berriz, Clifford Geertz (1926-2006). Teoria honen planteamendu orokorraren arabera, kultura sistema sinboliko bat eta partekatzen diren esanahi multzo bat da. Hala ere, ezberdintasunak egongo dira sinboloaren definizioan.

VICTOR TURNER-ek Britainiar funtzionalismoaren eragin handia izan zuen eta, horren ondorioz, ez zuen bere teoria ideien munduan eta ezaugarri unibertsaletan oinarritu. Turnerrek testuinguru zehatzetan norbanakoek egiten zituzten sinboloen erabilera konkretuak aztertu zituen.

Turnerrekin, Durheim-ek ez bezala, ez zuen uste gizartearen ezaugarri naturala elkartasun egoera zenik, aldiz, gatazka eta kontraesana zirela uste zuen. Interesatzen zitzaiona, testuinguru jakin horretan elkartasuna mantentzea zelan zen posible aztertzea zen. Zentzu honetan, sinboloak gizartearen indar aktibo moduan interpretatu zituen. Sinboloek ekintza soziala bultzatzen dute eta, era berean, norbanakoen interesak asetzeko tresna moduan erabiltzen dira.

Turnerrekin sinboloen erabilera Zanziako Iparmendebaldeko *ndembu* herrien ekintza erritualetan aztertu zuen eta ikerketa horretatik hurrengo ondorio teorikoak lortu zituen. Sinboloek, unibertsoaren sailkapen kognitiboa ahalbidetzeaz gain, giza emozioak bideratzeko balio dute. Hau da, giza ekintza gidatzeko balio dute eta, horregatik, izaera instrumentala dute. Sinboloen esanahi soziala pertsonen motibazio inkontzienteekin lotzen du Turnerrek.

CLIFFORD GEERTZ amerikarra, Turner bezala, ekintza sinbolikoaz arduratuko da, hau da, gizakiek sistema sinbolikoaz egiten duten erabileraz.

Ikuspegi honen arabera, kultura kontrol mekanismo multzoa da eta gizadiaren ezaugarriak gidatzen ditu. Berezkoak diren gizadiaren ezaugarriak ez dira giza estrukturan bakarrik antzematen, norbanako bakoitzean ere azter daitezke baina horretarako beharrezkoa da norbanako hauen bizimoduak aztertzea. Hortaz, Geertz ez da ideien munduan eta ezaugarri

unibertsaletan geratuko, Turnerrek bezala eta Estrukturalismoaren kontra, berak ere testuinguru zehatz bakoitza kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen baitu.

Honela, Geertzek herri ezberdinetako kulturak testu (irakurgai) baten moduan aztertzen ditu eta antropologoen zeregina testu horiek interpretatzea litzateke. Testu hauetan ez da bakarrik ideien sistemari buruzko informazio azaltzen, izan ere, pertsonen egunerokotasunean bizitzen dituzten ekintza sinbolikoei buruzko datuak ere jasotzen baitira. Hortaz, Geertzen aburuz, giza ekintza guztiak sinbolikoak dira eta antropologoak horiek interpretatzen jakin behar du. Honetan datza, Geertzen teoria interpretatzailea.

Korrante sinbolikoa Europan garatu zen batez ere. Estatu Batuetan, berriz, zentzu eta norabide berria hartu zuen Clifford Geertzerekin ikusi ahal izan dugun moduan. Bertan, antropologia sinbolikoa kulturaren teoria interpretatzailean bilakatu zen. 1970. hamarkadaren ostean, hainbat antropologok antropologiaren interpretazio gaitasunean jarri zuten arreta eta baita fenomeno kulturalak modu objektibo batean deskribatzeko eta neurtzeko ezintasunean.

1.6. BIBLIOGRAFIA

Bartoli, Laura. (2002). *Antropología Aplicada. Historia y perspectivas desde América Latina*. Editorial Abya-Yala: Quito (7-18).

De la Cruz, I. (2002). Introducción. En De la Cruz, I. (Coord.), *Introducción a la antropología para la intervención social* (11-15).

Gonzalez, I. & Gaztañaga, A. & Iriondo, R. (1999). *Balioak, ezkon-arauak, hizkuntzak, sexualitatea, familia...gizarte ezberdinetan*. Donostia: Gaiak.

Kottak, Conrad Phillip. (2007). Capítulo 1. La Antropología y sus aplicaciones. En Kottak, C.P. *Introducción a la Antropología Cultural*. McGrawHill: Madrid. (1-10).

Cap. 2. Códigos éticos y métodos de investigación. En Kottak, C.P. *Introducción a la Antropología Cultural*. McGrawHill: Madrid (21-41).

Rossi, Ino & O'Higgins, Edwar. (1981). *Teorías de la cultura y métodos antropológicos*.
Anagrama: Barcelona.

2. GAIA. KULTURAREN NOZIOA



EDUKIEN AURKIBIDEA

2. Kulturaren nozioa

- 2.1. Kultura eta kulturak
 - 2.1.1. Ikuspegi unibertsalista
 - 2.1.2. Ikuspegi partikularista
- 2.2. Kultura materiala eta kultura ideazionala
- 2.3. Kulturaren definizioak
- 2.4. Sinboloa eta sistema sinbolikoa
- 2.5. Bibliografia

2.1. Kultura eta kulturak

Kultura oinarritzko kontzeptua da antropologian. Eguneroko hizkeran, aipatu genuen bezala, jende gehienak 'kultura jaso' izendatzeko erabili ohi du kultura hitza. **Antropologoek askoz adiera zabalagoan erabiltzen dute ordea hitz hori: gizarte bateko kideek ikasitako eta elkarrekin bat dituzten ideiak eta ekoizpenak ere barne hartzen baitituzte.** Kultura, beraz, hainbat kidek partekatzen duten bizimoduari deitzen zaio eta horren barruan gizarte jakin baten baitan belaunaldiz belaunaldi jasotako balio, sineste eta arauak biltzen dira. Hannerz-en (1998:55) hitzetan **kultura toki guztietan dago.** **Honek implikazio metodologiko garrantzitsua suposatzen du; edozein talde ezagutzea posible izango bailitzateke bere eguneroko bizimodua aztertuz.** Ideia honen ondorioz, eman dezakegu kulturaren definizio laburra: **kultura edozein herri edo gizatalderen bizimodua da.**

Kulturaren inguruko hausnarketa antropologikoen bi teoria edo ikuskera mota sortu dituzte kontzeptu honen inguruan. **Lehenik eta behin Kultura (letra larriz) gizakiaren berezko ezaugarritzat hartzen duena eta bigarrenik, testuinguru bakoitzean gertatzen den Kultura horren zehaztasunak aztertzen dituena, kulturak** (pluralez eta letra txikiz), alegia.

2.1.1. Kulturaren **ikuspegi unibertsalista**- Kultura

Kulturaren interpretazio unibertsalistak Ilustrazioaren (XVIII. mendea) mugimendu kultural europarraren baitan du bere jatorria. Burgesiaren mugimendu hau ezaugarritzen zuten printzipio humanistekin bat eginez, **Kultura aztertzearen azken helburua giza espeziea batzen zuten aspektuak zehaztea zen, analisi konparatiboaren bitartez unibertsal kulturalak ezarriz.**

Korronte honen lehen premisa honakoa da: **Kultura Naturari kontrajartzen zaion guztia da.** Hortaz, **Kultura gizakiak gainerako izaki bizidunengandik bereizten gaituena da.** Beste hitzekin esanda, giza izaeraren berezitasuna ingurura egokitzeko Kultura erabiltzea da, egokitze biologikoari kontrajarririk.

Adibidez. Artikoan bizi diren Inuit kulturako pertsonak 30 hitz ezberdin erabiltzen dituzte guretzat "zuria" den kolorea izendatzeko. Honetaz gain, elurrak izan ditzakeen 20 egoera ezberdin bereizten dituzte.

Gutziz lokalizatua den ezagutza hau ezinbestekoa da talde honetako biziraupenerako eta garapen ekonomikorako. Testuinguru gogor honekiko egokitzapenak gizatalde

horren kultura baldintzatu egiten du. Inuit kulturak berezko sistema sinbolikoa sortu du testuingurua eraldatzearekin batera.

Kultura ezaugarri guztiz **gizatiarra** da. Are gehiago, ezinezkoa da kulturarik gabeko **gizakiaz hitz egitea**. Zentzu honetan, **Kultura** (letra larritz) ez da bakarrik **gizakion ezaugarri bat** baizik eta **nortasun gizatiarra bereizten edo definitzen duena** da. Horregatik, **Kultura ezaugarri unibertsala** dela baieztatzen da giza espeziearen behar oinarritzko bati erantzuten baitio, **ingurura egokitzeko beharra**.

Ikuspegi honen arabera, gizakia biologikoki bukatu gabeko animalia da, bakarrik ezinezkoa baitzaio bere testuingurura egokitzea. Horregatik, gizakiok falta zaigun informazio biologikoa gizataldean biziz osatzen dugu, hau baita kultura bereganatzeko eta transmititzeko modua. Hau da, gizakiok jaiotzen garenean bukatu gabe gaude eta gure nortasuna gizataldean bizi garenean osatzen dugu.

Kultura honela ulertuz eman dira haren inguruko definizio ugari. Azalpen soilak eman arren, erabilgarriak dira kontzeptu honetaz ideia orokor bat egin ahal izateko. Linton-ek, adibidez, **kultura herentzia sozialaren sinonimotzat hartu zuen**. **Kultura, belaunaldi batetik bestera transmititzen den guztia moduan definitu zuen**. Honek, hurrengo aspektuei ematen die garrantzia. **Alde batetik, taldean konpartitutako ezaugarria da eta, bestetik, hura transmititzeko modua ikasketa prozesua da**. Aipatu dugun moduan, Kultura ez da biologikoki jasotzen. Are gehiago, Kultura gure biologiaren parte ez diren elementu guztiak lirateke, ikasketa prozesuaren bitartez bereganatzen ditugunak. **Edozein kasutan, jaiotzen garen momentutik aurrera daramagun ikasketa prozesu honi enkulturazioa** deitzen zaio. Ondorioz, Kultura ez da norbanakoarena, **norbanakoen ginetik** dago, hau da, **taldekoa eta kolektiboa** da beti.

Kulturaren ikasketa prozesu hau ez da inola ere prozesu pasiboa. Ikasketa testuinguru eta errealitate historiko zehatz batean ematen da eta, horregatik, emaitzak ezberdinak izaten dira beti. Pertsonok gure kulturaren mezuak barneratzen ditugu baina, aldi berean, gure praktikari esker mezu horiek egokitzen eta aldatzen ditugu. Hortaz, **giza ekintzak** Kultura eraldatzeko gai da.

Enkulturazioa gizakiok Kultura (eta honen forma anitzak) bereganatzeko dugun modu **unibertsala da**. Kontzeptu hau pertsona guztiok gure gizataldearen kultur eredu bereganatzeko prozesuari deitzen zaio. Laburbilduz, enkulturazioa kulturaren ezaugarriak belaunaldi batetik bestera transmititzeko **prozesu kontziente eta inkontzientea da**.

Bestalde, kultura toki guztietan dagoenez, **enkulturazioa inoiz amaitzen ez den prozesua da eta gure bizi eremu guztietan gertatzen da.** Kultura, hein handi batean, inkontzientea zaie parte-hartzaileei, erabat barneratu eta bereganatu baitute. Hala ere, honek ez du esan nahi kulturala natura denik, ezaugarri kulturalak beti transmitituak baitira. Kultura norbanakoa baino lehen existitzen da eta halako moldez transmititzen eta ezartzen zaie pertsoneri.

Adibidez. Gure testuinguruan Kultura bereganatzeko prozesuan garrantzi handia duten bi erakunde familia eta eskola dira. Hala ere, geroz eta garrantzi handiago hartzen ari dira beste erakunde batzuk, hala nola, teknologia berriak eta komunikabideak (telebista, internet, sare sozialak, e.a.).

Kontzienteki gertatzen den enkulturazio forma posible batzuk hitzaldiak, ikastaroak, tailerrak edo gairen batean espezializatua den pertsona batek emandako mintegia izan daitezke. Irakasleak bere ikasleei edozein gai edo trebetasunetan gaitzen dituenean ere gertatzen da.

Enkulturazio forma inkontzienteak talde berri batean parte hartzen dugunean eta hitzik esan gabe errolak ezartzen direnean, beste pertsonekin harremanak ditugunean eta ezer ez esan gabe haien gorputz posizioa eta joeratik ikasten dugunean, etab.

Kulturaren beste ezaugarri bat hura aldi berean **estatikoa eta dinamikoa izatearena da.**

Aldaketa kultura guztien ezaugarria da baina aldaketa eta eraldaketa ez dira gauza bera.

Kultura bat denboran zehar horrelakoa izaten jarraitu ahal izateko haren oinarritzko

sinesmenak, balioak eta ezaugarriak eraldatu gabe mantendu behar dira. Sinesmen, balio

eta ezaugarri hauek izango dira, hain zuzen ere, kultura bat besteetatik berezituko

dituztenak. Hauek eraldatzen badira kultura hori izateari utziko dio eta beste batean

bilakatuko da. Hortaz, kultur nortasuna kulturaren esentzia osatzen dituzten ezaugarri

hauetan oinarrituko da. Kulturak aldatzea posible dela jakitea oso garrantzitsua da, izan ere,

tradizioaren izenean **praktika diskriminatzaile** ugari justifikatzen dira oraindik. **Jakin**

behar da ere giza ekintza dela, hain zuzen ere, kulturak eraldatzen dituen. Kultura

taldekota izanda eta norbanakoen gainean egonda, pentsatu behar dugu edozein aldaketa

sustatzeko ezinbestekoa dela talde moduan planteatzea.

Adibidez. 1901. urtean lehenengo garbigailu elektrikoa asmatu zuen Alva John Fisher ingeniari estatubatuarra. Honek aldaketa nabaria ekarri zuen, bereziki, etxean halako tresna bat edukitzea lortu zituzten mendebaldeko emakume pribilegiatuentzat. Hortik aurrera, ez zuten horrenbeste denbora erabili behar izan familia guztiaren arropa garbitzen eta aurreztutako denbora hori beste etxeko lan batzuk egitera bideratu zuten.

Mendebaldeko hainbat emakumeren bizimoduan aldaketa garrantzitsua suposatu arren, garbigailu elektrikoaren asmakuntzak ez zuen inola ere ez mendebaldeko kulturaren eraldaketa ekarri. Aurrerakuntza teknologiko honek ez zuen ekin garaiko emakumeak familia guztiaren arropa garbiketaz arduratzen jarraitzea eta ustezko

denbora aurrezte hori beste etxeko lanetara bideratu zen eta ez ordea emakumeak gizarte ekintzetan gehiago parte-hartzera, adibidez.

Garbigailuaren asmakuntza ez zituen garaiko gizarte mendebaldarraren genero balio eta sinesmen sistema eraldatu, sexuaren lan-banaketan egituratua jarraitu baitzuen. Sexuaren araberako lan banaketak emakumeak erreprodukzio lanetara bideratzen zituen gizonak lan publikoetan aritzen ziren bitartean. Garbigailu elektrikoak ez zituen garaiko gizonak bultzatu hura erabiltzera eta, ondorioz, lanak berdin banatuta jarraitu zuen.

Kulturaren azken ezaugarri garrantzitsua bere izaera **holistikoa da**. Kultura osatzen dituzten **elementu eta ezaugarri guztiek sistema integrala osatzen dute (ohiturak, sinesmenak, balioak, erakundeak, objektuak, praktika sozialak, etab.).** Sistemaren ideiak **bertako elementu bat aldatzen denean gainontzekoengan eragina duela suposatzen du.** Elementuen arteko konexioa ez da kasualitatez ematen, ondo integratutako sistema logiko eta integral baten moduan funtzionatzen baitu. **Kultura horrelakoa da, integrala, gizatalde guztien bizitzaren eremu guztietan baitago; lo egiteko forman, elikagaiak prestatzeko moduan, inpultso erotikoak bideratzeko moduan, mahaiari esertzeko moduan, etab.**

Adibidez. Aurreko adibidearekin jarraituz, XX. mendearen erdialdean, gizarte industrialetako emakume asko beraien etxeetatik irteten hasi ziren kanpoan lan egiteko. Hau da, sistema produktiboan barneratu ziren.

Emakumeak sistema produktiboan masiboki sartu ziren denbora gutxi batean eta honek lanaren banaketa sexualaren arauaren kontra egin zuen. Historikoki emakumeei atxikitako rolen eraldaketa suposatu zuen.

Lan munduan gertatutako eraldaketa honek berehala beste gizarte esparruen eraldaketa ekarri zuen, hala nola, familia ereduak edo genero rola. Honek erakusten duena zera da, kulturaren osagarri eta elementu ezberdinen arteko lotura sistemikoa dagoela.

2.1.2. Kulturaren **ikuspegi partikularista- kulturak**

Kulturaren interpretazio unibertsalista pentsamendu Ilustratuaren inguruan sortu bazen, ikuspegi partikularista Erromantizismoan (XIX. mendean) garatu zen. Kulturaren inguruko korrante honek Ilustrazioa ezaugarritu zuen arau estereotipatuaren bilakearekin hautsi zuen, hauen artean Kulturaren unibertsalen bilaketarekin. **Ikuspegi honi benetan interesatzen zaiona kultura espazio eta denbora zehatz batean zehaztea da.** Pertsona guztiok belaunaldi batetik bestera transmititzen den arau kultural multzo batean jaio eta garatzen gara, tradizio kultural hauek direlarik antropologoek aztergai dituztenak.

Kulturaren ikuskera autonomoa eta esentzialista baino haratago, kultur partikularitasunak aniztasun kulturalaren azterketari ekarpen nabariak egiten dizkio. Aniztasun kulturala Kulturaren zehaztapen historikoa eta geografikoaren ondorioz sortzen da. Hau da, gizatalde bakoitzaren tradizio historikoaren ondorioz sortzen da aniztasuna. Beraz, antropologiak hurrengo baieztapena egiten du: gizaki moduan batzen gaituena eta komunean duguna, kultur unibertsaltasuna baino aniztasun kulturala da. Hortaz, ez da existitzen Kulturaren definizio bakanik. Bestalde, kulturak ezin dira kuantitatiboki neurtu eta konparatu. Kulturen arteko ezberdintasunak ez dira sekulan graduak ezberdintasunak izango baizik eta ezberdintasun kualitatiboak, bakoitza bere testuinguruan ulertua behar dena. Hirugarrenik, aniztasun kulturala errealitate bat izan arren, hau antzemateko eta batez ere ulertzeko ikerketa antropologikoa egitea ezinbestekoa da. Aniztasun kulturalaren ikerketa antropologikoak 'beste' kulturenganako aurreiritziak izateko arriskua murrizten du.

Azkenik, kulturak ez dira entitate autonomo eta hermetikoak eta, ondorioz, ezin dira hierarkikoki egituratu. Azken finean, mundu errealitatea ez dago kultura ezberdinetan zatituta, gertatzen dena *continuum* bat da, muga zehatzik gabea baina ezaugarri aniztasun handikoa. Aniztasun kulturala egungo mundu errealitatean parte da eta kultur zatiketak eta muga zurrinak, aldiz, ez dira existitzen.

2.2. Kultura materiala eta kultura ideazionala

Kulturaren inguruko bi orientabide teorikotaz gain (unibertsalista eta partikularista), badago kulturaren edukiei arreta jarriz egin daitekeen bestelako sailkapena ere. Alde batetik, materialismoak kulturen objektuei eta teknologiari jartzen dio arreta. Beste aldetik, idealismoak kultura osatzen duten elementu ez materialetan eta ideietan jartzen du arreta.

Kultura baten **osagarri ideazionalak** edo ez materialak hura osatzen duten ideiak, helburuak, esanahi kolektiboak, balioak eta arauak dira. Kultura bat osatzen duten ideiak, sinboloak eta sistema sinbolikoak dira. Hortaz, kultura egoteko lehenik eta behin **pentsemendu sinbolikoa** egon behar da. Gaitasun hau, pentsemendu sinbolikoarena, gizakiok bakarrik garatu dugu eta, horregatik, kultura gizakion berezko ezaugarria da beste animalietan existitzen ez dena.

Ikuspegi materialistak kultura bat identifikatzeko orduan objektuak eta materiak duten garrantzian jartzen du arreta. Edozein kultura erreminta eta objektu ezberdinez osatzen da

eta, hauei esker, gizatalde horretako kideen arteko harremana gertatzen da (kotxea, telefonoa, jateko erremintak, etab.).

Antropologo kognitibistek edo sinbolikoek (kulturaren ikuspegi ideazionala jarraitzen dute) uste dute gizatalde baten egunerokotasuna osatzen duten objektu eta elementu oro ideien emaitza dela, hau da, irudizko kulturaren ondorioa direla. Hortaz, hauentzat kultura materiala kultura idealaren emaitza da eta, beraz, bigarren mailako gauza. Baina kultura materialari esker gizataldea bere ingurunera egokitzeaz gain, testuinguru horretan eraldaketak sustatzen ditu. Horregatik, kulturen garapen eta ezaugarrietan paper zentrala betetzen du.

Gainera, gizatalde batek sortutako objektuak eta teknologia gizatalde horren ideia politiko, zientifiko, ekonomiko eta erlijiosoen adierazgarria dira. Horregatik, kultura elementu materialak (objektuak eta teknologia) eta idealak (esanahiak, balioak eta arauak) barne hartzen dituen gizakion berezko ezaugarri moduan ulertzen dugu.

2.3. Kulturaren inguruko definizio antropologikoak

Badira kulturaren definizio ugari. Are gehiago, korrante antropologiko bakoitzak eta askotan antropologo bakoitzak bere definizioa du. Horregatik, gure helburua ez da izango kulturaren definizio bakar bat osatzea, baizik eta orain arte antropologian eman direnak jasotzea eta ezagutzea.

Antropologiaren sortzaileetako batek, E. Tylor britainiarrek, modu honetan definitu zuen Kultura *Primitive Culture* (1871) bere lanean:

Gizakiak gizarteko kide moduan bereganatzen dituen jakintzak, sinesteak, arteak, arau etikoak, ohiturak, legeak, usadioak eta gizartean bereganatutako jarrera edo gaitasunak barne hartzen dituen osotasun konplexu hori.

Definizio hori nahitaezko sarrera da jakintza-arloarentzat. Antropologiak kulturari buruz emandako lehenengo definizio honek interes antropologiko handia izaten jarraitzen du, bertan orain arte aipatutako ezaugarri gehienak biltzen baitira. Alde batetik, Tylorrek bazekien kultura elementu materialez (*adib. artea*) eta ez materialez (*adib. jakintzak, sinesteak, ohiturak...*) osatua dagoela. Bestalde, kultura gizakion berezko ezaugarria dela esaten du baina, era berean, norbanakoaren gainera dago, gizataldean agertzen baita.

Bestalde, *bereganatutakoa* dela aipatzen duenean gizakideen artean kultura zabaltzeko modua ikasketa dela azpimarratu nahi du.

Aurrerago, 1948. urtean Alfred Kroeber antropologoak beste definizio interesgarri bat eman zuen:

Biologikoaren, psikologikoaren eta organikoaren gainetik dauden gizakiaren inguruko 'gauzen' multzoa da kultura.

Definizio honekin azpimarratzen duena da kultura naturatik at dagoen errealitatea dela. Beste hitz batzuekin esanda, kultura: biologia, psikologia eta organikoa ez den beste guztia da. Hala ere, errealitatean, hiru esparru hauek nahiko elkarlotuak daude gizakiengan. Edozein kasutan, honen guztiaren oinarrian Kultura Vs. Natura delako dikotomiaren azpimarratzea dago.

Askoz aurrerago, Clifford Geertz-ek (1992) kulturaren hurrengo definizioa bota zuen:

Sinbolo bihurtu eta historian zehar transmititzen diren esanahien eredu bat da; sinbolikoki adierazten diren ikusmolde jarauntsiek osaturiko sistema bat; ikusmolde horien bitartez, gizakiek bizitzaz duten ezagutza eta honen aurrean dituzten jarrerak komunikatzen, betiketzen eta garatzen dituzte (Geertz, 1972: 21).

Kultura sistema sinbolikoen multzo bezala definitzen du Geertzek. Kultura sistema sinboliko batek osatuko luke beraz, hau da, ideia, balore eta sinesmenez osatuko litzateke.

Beste antropologo batzuk, Marvin Harris moduan (1986), kulturaren aspektu historiko eta materialei jartzen diete arreta gehiena.

... Gizatalde baten bizitzeko estilo totala da, sozialki bereganatua, eta pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko modu arautuak barne hartzen ditu.

Aurreko definizioaren garrantzia, hark, kultura eta gizartea batzen dituela da. Honen ustez, kultura gizatalde baten bizimodua baino haratago doa eta haren gizarte egituraz eta talde antolakuntzaz ere ari da. Horregatik, Harrisek kulturaren talde izaera azpimarratu nahi du eta baita konpartitutako ikasketa prozesuak duen garrantzia ere.

Ikusi ditugu antropologiak, garai historiko ezberdinetan ekoiztu dituen kulturaren inguruko hiru definizio posible. Hurrengo gaian ikusiko dugun moduan, bakoitzaren izaera antropologoen erabilitako marko teorikoaren arabera da.

2.4. Sinboloak eta sistema sinbolikoak

Sinboloak errealitatea irudikatzeko erabiltzen ditugun esanahiez hornitutako **hautazko unitate edo ereduak** dira, hau da, elkarri **ideia abstraktuak** komunikatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuzko tresnak dira. Sinbolo horiek askotan hizkuntzaren bidez komunikatzen dizkiogu elkarri. Sortzetik dugun hizkuntzarako ahalmenak bereizketa sinbolikoak egiteko eta erabiltzeko gaitasun paregabea ematen digu.

Gizakiok ikaskuntza sinbolikoaren bidez geureganatzen ditugu jokamolde eta kontzeptu gehienak. Ez dugu egoerazko ikaskuntzaren edo besteen jokamoldeen behaketaren beharrik mundua eta bata bestea ulertu ahal izateko. Gertaera eta eredu konplexuen muina isolatzeko ahalmen berezia dugu eta, horretarako, sinboloen bidez irudiak sortu eta dagokien esanahia egotzen diegu.

Adibidez. Gurasoek beraien seme-alabei errepidea zebra bidetik eta semaforoa oinezkoentzako berde dagoenean pasa behar dutela irakasteko ezagutza sinbolikoaz baliatzen dira. Lehenik eta behin, zebra bidea eta semaforoak berak, gure kulturaren sinboloak direlako. Bigarrenik, pentsamendu abstraktu edo sinboliko honi esker, ez delako beharrezkoa gurasoek seme-alabak errepidera botatzea kotxe batek mina egin diezaieketela erakusteko. Hizkuntzak eta balizko egoerak pentsatzeko ahalmenak lortzen dugun ezagutza ugari esperientziatik urrun egotea ahalbidentzen digu.

Bestalde, sinboloak **arbitrarioak** dira, hau da, beraien esanahia taldean erabakitzen da, ez da prozesu naturala beraz. Sinboloak arbitrarioak dira beraien esanahia hitzarmenez adostuta izan delako.

Adibidez. Kotxeek semaforoa berde jartzen denean ibiltzen hastea adostasun sozialaren emaitza da. Berdeak hartzen duen esanahai gizataldeak erabaki du ez dauka zerikusirik kolore horren izaerarekin.

Sinboloak sortzeko ahalmenaren bidez gizakiok **esanahiak ikasi eta sor** ditzakegu, eta ondoren esanahi hauek beste batzuei helaraz diezazkiekegu modu eraginkorren. Gurasoek ez dute zuzeneko esperientziarik behar beren seme-alabak hezteko. Haurrak hazi ahala, komunikazio sinbolikoez osatutako arau eta kontzeptu abstraktuak ikas ditzakete. Matematikak ikastean, sinbolo abstraktuak erabiltzen ikasten dugu. Edozein liburu irakurtzen ari zarela orrialde batean idatzitako euskal hitzen bidez heltzen zaizkizun sinboloetan oinarritutako ideia berriak ikasten ari zara. Ikaskuntza sinbolikoak aukera mugagabeak ditu informazioa sormenez bereganatu eta erabiltzeari pasatzeko. Gizakion ikaskuntza gehiena sinboloak ikasteko prozesu honetan oinarritzen da.

Sinboloak, esan bezala, esanahiz hornitutako **hautazko unitateak** dira eta gizakiek nakarrik erabiltzen ditugu. Hainbat animaliak keinuak erabiltzeko gaitasuna dute (adibidez, txakurrak kanpai baten soinua janariarekin lotu dezake) baina ez sinboloak, hauek erabiltzeko adimena eta pentsamendu arrazionala eta abstraktua beharrezkoa baitira.

Sinboloak **abstraktuak** dira eta horregatik, gehienetan, bere esanahia ez da agerikoa. Hala ere, sinbolo askok indar handiko eragina izaten dute jendearen jokamoldean. Adibidez, herri bakoitzeko banderaren diseinuak eta koloreek ideia eta kontzeptu abstraktuekin lotutako sinbolo-asoziazioak adierazten dituzte. Ikurrinek nazioarekin lotutako ideia eta kontzeptuak adierazten dituzte eta hauek emozio biziak sustatzen dituzten gizakideen artean. Ondorioz, ikurrina bat erretzeak esanahi sinboliko handia dauka eta ulergarria da egoera zehatz batean ekintza honek iraultza egoera batera eraman ahal izatea.

Hortaz, giza kulturaren ahalmena sinbolizatzeko ditugun hizkuntzazko eta ezagutzazko gaitasunetan oinarritzen da. Kultura belaunaldiz belaunaldi jasotzen dugu ikaskuntza sinbolikoaren eta hizkuntzaren bidez. Kulturaren transmisioari esker, besteren artean, bizirauten, besteekin harremanak izaten, gure gizartea antolatzen eta gurtu beharreko jainkoak bereizten ikasten dugu. Ezagutza sinboliko hori ikaskuntzaren bidez heltzen zaigu eta berehala alda daiteke gurasoengandik seme-alabengana edo belaunaldi batetik bestera igarotzean. Hala eta guztiz ere, jendeak bere kulturari eta ohitura sinbolikoei eusteko ahalegin handia egiten du oro har. Eta kulturaren eta ohitura sinbolikoen iraupena kultur aldaketa bezain hedatuta dago.

Esandako guztiagatik, Geertz bezalako hainbat antropologok **kultura** sinbolo bihurtu eta historian zehar transmititzen diren esanahien eredu baten moduan definitzen dute. **Sinbolikoki** adierazten diren ikusmolde heredatuek osaturiko **sistema** bat izango litzateke eta ikusmolde horien bitartez gizakiek bizitzaz duten ezagutza eta haren aurrean dituzten jarrerak komunikatzen, betikotzen eta garatzen dituzte. Sinbolo terminoak kontzeptu baten adierazpide den objektu, ekintza, gertaera, tasun edo erlazio oro izendatzen du; **kultura-ereduak**, berriz, **sinbolo-sistemak** edo multzoak dira.

Pertsonon enkulturazioa eta integrazioa gure kulturaren sistema sinbolikoa modu egokian interpretatzen jakitearen menpe dago. **Enkulturazioa**, beste modu batean esanda,

gizatalde baten kide garen heinean, gure taldearen sinboloak eta esanahiak bereganatzean datza.

Bestalde, kultura errealitate aldakorra da eta hau sinboloz osatzen denez honek zera esan nahi du, gizatalde baten **sistema sinbolikoa** bera **aldakorra** dela. Hau da, sinbolo baten esanahia alda daiteke produzitzen duen testuingurua aldatzen bada.

Adibidez. Koroak, tradizionalki, monarkia adierazi du gure kulturaren. Baina sinbolo hau testuinguru ezberdinetan erabiltzen hasi zenetik, bere esanahia ere aldatu egin da. Gaur egun, koroaren sinboloak tabako, garagardo edo janari azkarra irudikatzen ere erabiltzen da.

Gizakiok berezkoa dugun kultura izateko ahalmena ematen digun ikaskuntza-ereduari **ikaskuntza sinbolikoa** ere deitzen zaio. Ikaskuntza hau gure hizkuntz gaitasunean eta sinboloak erabili eta ulertzeko dugun ahalmenean oinarritzen da. Gizatalde baten kide guztiek **pentsamendu sinboliko** berdina konpartitzen dute eta horri esker egiten da posible berauen arteko komunikazioa. Baina gure gizartean kultur aniztasuna dago eta kultura ezberdinetako sinbolo sistemek topo egiten dutenean, **talka kulturala** gerta daiteke. Hau da, gurea ez den beste kultura baten sistema sinbolikoa interpretatzeko zailtasunaren ondorioz sortzen den elkar ez-ulertzea.

Edozein kasutan, gizarte antropologia kultura zehatz baten sinboloak eta sistema sinboloak deszifratzen aritzen da. Hau dela eta, gure kulturakoak ez diren beste gizataldeekin lan egiteko giltza eskaintzen digu diziplina honek, gainerako sistema sinbolikoak interpretatzeko gakoak eskaintzen baitizkigu. Ulertezina egiten zaigun edozein fenomeno kulturalen aurrean aurkitzen garenean, honen sinbolo sistema kultura zehatz horren eskemari jarraituz interpretatu beharko dugu beti, ez gure eskematik. Modu honetan, antropologiak, kulturen arteko talkaren ondorioz sortutako egoerak gainditzen laguntzen dio gizarte langileari.

2.5. Bibliografia

- Bonte, P. & Izard, M. (Coautor). *Diccionario de etnología y antropología*. Akal; Madrid, 1996.
- Buxó, M.A. (1982). Cultura. En Agirre, A. (Ed.), *Los 60 conceptos clave de la antropología cultural*. Daimon: Barcelona (149-150).

Hannerz, U. (1998). Cuando la cultura está en todas partes. En Hannerz, U. *Conexiones transnacionales*. Madrid: Cátedra.

Harris, M. (1986). *Introducción a la Antropología General*. Madrid: Alianza Universidad.

Kottak, C. P. (1997). La cultura. En Kottak, C.P. *Antropología Cultural. Espejo para la humanidad*. Madrid: McGrawHill (17-31).

Maestre, J. (1983). *Introducción a la antropología social*. Madrid: Akal.

Mantecón, A.R. (1993). Globalización cultural y antropología. *Alteridades* nº 3, 79-91.

Moreno, I. (1999). Globalización, identidades colectivas y antropología. En: VV.AA. *VIII Congreso de Antropología. Las identidades y las tensiones culturales en la modernidad*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela (95-137).

Rossi, I. & O'Higgins, E. (1981). *Teorías de la cultura y métodos antropológicos*. Barcelona: Anagrama.

Sack, R. D. (1997). *Homo geographicus. A framework for action, awareness and moral concern*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press.

3. GAIA. ETNOZENTRISMOA ETA ERLATIBISMO KULTURALA



EDUKIEN AURKIBIDEA

3. Etnozentrismoa eta erlatibismo kulturala.
 - 3.1. Komunitatea
 - 3.2. Etnozentrismoa
 - 3.3. Erlatibismo kulturala
 - 3.4. Bibliografia

3.1. Komunitatea

Komunitate hitza kontzeptu garrantzitsua da bai antropologiarentzat bai gizarte langintzarentzat ere, hauxe baita bi diziplina hauen **behaketa unitatea**. Komunitatea gizartearen barruan aurki daitekeen **oinarrizko unitate soziala** da. Komunitatea osotasun baten moduan ulertu behar da eta, horregatik, hau aztertzerako goazenean ezinbestekoa da ikuspegi holistikoa mantentzea, hau da, ezaugarri guztiak kontutan hartzea (senidetasun sistema, ekonomia, politika, genero sistema...).

Etnologia eta Antropologiako Akal Hiztegian komunitatearen hurrengo definizioa jasotzen da:

Komunitatea unitate sozial murriztua da, ekonomia partzialki itxi bat du eta lurralde zehatz batean bizi da bertatik bizirauteko behar duena lortuz (Bonte & Izard 1966:183)

Hortaz, kokapen espaziala komunitatearen adierazgarri aipagarria da. **Lurraldea** edo **tokia** deitzen diogu gizatalde batek sozialki eraiki duen eta honekin estuki lotua sentitzen den espazioari. Badaude espazio, lurralde eta toki kontzeptuen arteko ñabardurak. **Espazio** hitza zonalde geografiko baten **ezaugarri fisikoak** adierazteko erabiltzen dugu eta **lurraldea edo tokia**, berriz, bertako **ezaugarri kulturalak** adierazteko. Lurraldea edo tokia gizatalde baten kideek sortutako erlazio multzoen emaitza eta, era berean, lurralde edo toki horrek taldekideak batu edo mugatzeko gaitasuna du. Zentzu honetan, gizatalde eta lurraldearen arteko **erlazioa dialektikoa** edo bi norabidetakoa da. Komunitateak lurraldea sortzen du eta, era berean, honek bere botere sinbolikoari esker nortasun balio handia dauka taldearentzat.

Adibidez. Landa komunitateak dira gure kulturaren lehenago aipatutako lurraldea eta gizataldearen arteko lotura hau hoberen erakusten dutenak. Landa testuinguruko komunitateek berezko ezaugarriak dituzte eta, dudarik gabe, irizpide sozioekonomikoak eta lurralde zehatz baten ustiakuntza dira garrantzitsuenetarikoa batzuk.

Giza ekintza komunitatearen ezaugarri garrantzitsua da honen bitartez **talde kohesioa berresten** baita. Komunitate-kideek honen partaide direla baieztatzeko hainbat giza ekintza antola dituzte: festak, erritualak, talde bilkurak.... Komunitatea denboran zehar mantendu ahal izateko ezinbestekoa da talde kohesioa baieztatzea modu jarraikor batean. Talde kohesioaren berrespenak **komunitatearen jarraikortasuna indartzeko** balio du. Komunitatea, talde kohesioa indartzen dituzten senidetasun harremanak baino zerbait

gehiago da. Komunitatearen **giza harremanak bereziak** dira, **berezko izaera** dute eta senidetasun harremanetatik baino harantzago doaz.

Edozein komunitateren beste ezaugarri garrantzitsua bat taldekideen artean talde honen **partaide izatearen sentimendua** eta **konpartitutako nortasuna** dutela sinestea da. Komunitatearen kasuan, partekatzen den nortasun sentimendu hau komunean duten **tradizio eta herentzia sozial** batetik dator. Hortaz, espazioaren okupazioaz gain, denboran zehar taldeak bizirauteak eta iraunkortasun nahia talde oroimenaren bitartez indartzea dira beste ezaugarri garrantzitsu batzuk. Askotan, lurralde eta talde zehatz batenganako identifikazioa **tokiko sinbolo** baten bidez adierazten da (ikurrina, etab.).

Adibidez. Komunitateek nortasun sinboloak sortzen dituzte taldea hauen inguruan biltzeko baina baita, kanpora begira talde moduan erakusteko ere. Hau da, 'bestearen aurrean bere burua aurkezteko. Funtzio hauek betetzen dituzte ikurrinek, himnoek, tokiko ospakizunek, janariak, etab.

Komunitate guztiek, noizean behin beraien nortasuna azpimarratzeko grina dute. Askotan, ekintza sozialak berak halako dinamikak sortzen ditu eta hauei esker talde kohesioa gertatzen da. Nortasun indartze hau garrantzitsua da jarraikortasuna baieztatu eta taldearen existentzia bera indartzen duelako. Hau da, komunitate bateko kideek talde zehatz horren partaide direla erakusten duten eta indartzen dituzten ekintzak eta jarrerak aurkezten dituzte etengabe. Hau, kontzienteki nahiz inkontzienteki gertatzen da eta talde kohesioa ahalbidetzen du.

Aurreko guztia kontutan hartuz, modu honetan definitu daiteke komunitatea: erlazio sozialen sistema bat da ondo definitutako espazio batean (edo ez), denboran zehar eta partekatutako interesei erantzuten diona. Komunitate bat osotasun bat da, hortaz, hura aztertu edo ulertu nahi izan ezkerro jarrera holistikoa mantendu beharko dugu beti.

Historikoki, antropologiak komunitate hitzak gizarte primitibo edo sinplearen sinonimotzat hartu izan du. Hau, Estaturik gabeko gizartea litzateke eta antolakuntza politiko eta soziala mendebaldeko estatudun gizarte demokratikoengandik urrun egongo litzateke. Komunitateetan 'bestearen'ekin ematen diren gatazkak ugariagoak eta zuzenagoak dira gobernuaren zentralitatea ez delako existitzen eta, horregatik, norabide anitzetako erlazioak ugariagoak dira. Gutariko gehienok komunitate ezberdinen kide gara gure bizitzan zehar; auzokideen komunitatea, ikasketa zentro baten komunitatea, zerbitzu zehatz baten erabiltzaileen komunitatea, etab. Hauek guztiak dira antropologoak nahiz gizarte langileak aztergai dituzten oinarritzko giza unitateak.

3.2. Etnozentrismoa

Etnozentrismo hitzak **jarrera** mota bat izendatzeko erabiltzen du antropologiak. Jarrera hau gizarte baten edo kultura baten arauak, balioak, pentsamoldeak, jarduteko moduak, etab. arbuiatzean eta norberarenak ez bezalakoak direla sinestean datza. Honi jarraiki, gure kultura egokia eta aukeretan onena dela pentsatzean datza, kultura propioari gainerakoei baino balio handiagoa emanez. Jarrera hau indibiduala nahiz kolektiboa da eta gu eta gurea dena eredutzat hartzean datza.

Etnozentrismoa **jarrera unibertsala** dela erakutsi izan du antropologiak. Mundu osoko toki guztietako norbanakoek nahiz gizataldek uste dute beraien azalpen, iritzi eta ohiturak direla zuzenenak eta moralenak direnak. Ondorioz, gure eredutik aldetzen den jarrera azpikoa eta basatia iruditzen zaigu.

Adibidez. Conrad Phillip Kottak (1997:25) antropologoak aipatzen duen moduan, liburu antropologiko askotan agertzen diren izen tribalak, bertako hizkuntzan 'pertsona' izendatzeko hitzetik eratorriak dira.

"Nola duzue izena?" galdetzen du antropologoak. "Mugmug" erantzuten dute berriemaileek. Mugmug gizakia hitzaren sinonimoa izan zitekeen baina baliteke, hura natiboek beraien burua izendatzeko erabiltzen duten hitz bakarria izatea ere.

Modu honetan, gainontzeko tribuak ez dira erabat gizatiarrak moduan ikusten izan ere, ezaugarri hau gurea baita. Ondoko herrixketako biztanleak, hortaz, sasi-pertsonak dira 'mugmug' izena ez dutelako hartzen

Esan bezala, gizarte tradizional askok taldeko kideetara mugatzen dute gizaki estatusa eta beren buruak izendatzeko aukeratzen dituzten hitzek 'gizakiak', 'onak', 'bikainak' edo 'osoak' esan nahi dute. Ondoko tribuak berriz, hitz gaitzesgarrien bidez izendatzen dituzte, hots, gizaditik kanporatzen dituzte. 'Bestea', desberdina dena, gu baino gutxiago edo okerrago izango balitz moduan ikustea **jarrera unibertsala** da.

Etnozentrismoa, beraz, beste kulturak arbuiatzea baino gehiago, **norberaren kultura erreferentzia-balioztat** ezartzean datza. Gu/bestea oinarrizko dikotomia honekin jarraituz, norberaren gizartea ginetik dagoela pentsatzeak, nahitaez, beste kulturak gutxiago direla sinestea dakar.

Aurreiritzi etnozentrikoetatik dator arau zientifiko etnozentrikoa deritzona. Gizarte zientzietara zabaldu zen jarrera edo sinesmen hau eta, ondorioz, hasiera batean antropologok aztergai zituzten kulturak beraien kultura baino arraragoak eta azpikoak zirela sinesten zuten. Etnozentrismoa, gizarte zientzien kasuan, beste kulturak eta

pertsonen jokaerak eta sinesmenak norberaren eredu kulturalaren arabera aztertzean datza. Etengabeko konparaketa desorekatsu honek errealitatea aurreiritzien gainean eraikitzea dakar.

Adibidez. Camboyan tarantula frijitua jatea 'nazkagarritzat' hartzea jarrera etnozentrikoa da. Zer pentsatuko dute beraiek txipiroiak tintan edo txerri muturraz?

Hainbat kulturetako emakumeek poligamiarekin pozik bizitzea 'ulertezina' dela pentsatzea jarrera etnozentrista da. Zer pentsatuko dute hauek gure gizartean ez ezkontzea erabakitzen duten emakumeez?

Metodo antropologikoa oso lagungarria izan daiteke **etnozentrismotik aldentzeko**. Izan ere, ezagutza etnografiko metodiko eta gardena egitea, *besteak* aurreiritzirik gabe ezagutzen lagun diezaguke. Hala ere, lehenengo ikerketa antropologikoak oso etnozentrikoak izan ziren. Kultur exotikoak aztertzeraz joan ziren lehenengo antropologoek beraien kultur eredian oinarrituz egin zuten azterketa eta, ondorioz, urruneko kultura horiek azpikoak eta basatitzat jo zituzten.

Diziplina antropologikoan etnozentrismoaz ohartu eta salatu zuen lehenengo antropologoa Bronislav Malinowski izan zen. XX. mendearen erdialdean Mendebaldeko Pazifikoko hainbat kultura aztertu zituen eta Malinowskiren ekarpenik garrantzitsuena etnozentrismoaren azpian zegoen logika antzematea izan zen, gu/bestea-ren arteko erlazioaren gorabehera, alegia.

Norberaren nortasun indibiduala eta taldekoa eraikitzeke funtsezko estrategia da 'ni' (Gu) / 'bestea' (Besteak) delakoa azpimarratzea. 'Ni' (Gu)-a azpimarratzeko eta definitzeko modurik eraginkorrena beti 'beste' batekin alderatzea edo kontrajartzea izaten da. 'Bestea', 'ni' (Gu) ez naizen/garen guztia da. Ingurukoa identifikatzeko modu hau gurea beste guztiarekin konparatzeko abiapuntutzat hartzetik dator, gu beti erdigunean jartzen garelarik.

Hortaz, **'bestea'** beti izan da **kategoria analitiko garrantzitsua** gizarte antropologiarentzat. Are gehiago, askotan antropologoaren lana 'bestea' aztertzea da. Gizarte langileek ere 'bestea'-rekin egiten dute lan. Kasu honetan, 'bestea' proiektu, programa, politika edo esku-hartze baten erabiltzaileak dira. Beste-arekin lan egiteak jarrera behatzailea izatea eta norberaren izaera eta kulturarekin kritikoak izaten jakitea dakar. Modu honetan bakarrik izango gara gai besteekin lanean ari garenean ager daitezkeen aurreiritziak alde batera utzi eta desberdintasunean lan egin.

3.3. Erlatibismo kulturala

XIX. mendean antropologia akademikoa sortu zenetik, etnozentrismoa izan zen lehen antropologoek buruturiko akatsik larriena kulturen ikerketan. Jarrera etnozentrista, dakigun moduan, 'beste' kulturetan hezitako pertsonen jokamoldeak eta sineskerak ikertzailearen balore kulturalen arabera aztertzean eta epaitzea da, hauek hobetzat hartuz gainera. Gaur egun, antropologiaren azken zeregina urteetan zehar buruturiko akats hori gainditzea izan da eta horretarako **erlatibismo kulturala** delako printzipio teoriko eta metodologikoa sortu zen. Erlatibismo kulturalaren arabera, **kultura bakoitza bere arau eta baloreen arabera ulertu behar da**, kultura baten esanahia beste baten ereduari jarraituz ezin baita lortu.

Aurreko bi jarrerak, etnozentrista eta erlatibista, aniztasun kulturala onartzen dute baina horren aurrean ikuspegi kontrajarria erakusten dute. Lehenengoak, aniztasunaren antolakuntza hierarkikoa egiten du eta bigarrenak, berriz, kultura guztien balioa berdina onartzen du. Bestalde, bi jarrera hauek ez dira ematen bakarrik antropologoengan baita beste kultura eta gizarteekin lan egiten duten profesional guztietan ere. Horregatik, erlatibismo kulturala eta etnozentrismoa gizarte langintzaren praktikan ere kontutan hartu beharreko bi jarrera eta printzipio garrantzitsu dira.

Erlatibismo kulturala antropologiak proposatutako jarrera eta irizpide metodologikoa da, ikerketa etnozentristen aurreiritziengandik babesten gaituena. Kontzeptu hau sortu zuena Franz Boas (1858-1942) antropologo iparramerikarra izan zen bertako kultura amerikanoetan ikerketa etnografiko ugari egin eta gero.

Modu soil batean esanda, erlatibismoa kultura bat beste kultura ezberdin baten ikuspegitik ez ikertzea eta epaitzea da. Honetarako, antropologiak proposatzen duen arau metodologikoa 'bestea'-ren lekuan jartzearen ahalegina egitea da. Hau da, ohiturak, balioak eta sinesmen kultural guztiak sortu dituen kultur ereduaren arabera aztertzea.

Muturreko interpretazio erlatibistaren arabera, ez da existitzen inolako ezaugarri unibertsalik. Adierazpen forma eta sinesmen guztiak beraien erabilera testuinguru zehatzean bakarrik dute esanahia eta balioa. Planteamendu honi jarraituz, kultura bakoitzetik at erabiltzen diren ideia eta kontzeptu guztiak etnozentristak dira, ezinezkoa baita kultur bateko kidea ez den pertsona batek kultur fenomeno batzuk aztertzea ez baldin badu produkzio testuinguru horretarako hizkuntza eta sinesmen sistema berdina erabiltzen.

Erlatibismoa zorroztasun osoz erabiltzeak arazo teoriko eta metodologiko serioak sor ditzake. Alde batetik, kulturen arteko ideia, balio eta jarrera komunik edo unibertsalik ez badago, zaila edo ezinezkoa izango da gu beste kultura batera hurbiltzea eta hura ulertzen saiatzea edo gu beste kultura bateko kideengatik ulertuak izatea. Jarrera mota honi jarraituz, ezin dira kulturen arteko puntu komunak lortu eta, noski, ezin dira Giza Eskubide Unibertsalak bezalako egitasmoak sortu, hauek kultura bakoitzaren baldintzei egokitu beharko bailirateke. Hau da, erlatibismoa muturrera eramaten badugu justizia eta moralitate balio internazional batzuen onarpena ezinezkoa egiten da. Ondorioz, ezinezkoa litzateke kulturak elkarri hurbiltzea, komunikatzea eta ulertzen saiatzea.

Beste jarrera mota batek defendatzen du aniztasunaren aurrean errespetuz jokatzek ez duela zertan esanahi praktika kultural guztiak onargarriak direnik. Are gehiago, beti izan behar dugu kontuan kultura guztiak gainbegiratuak eta eraldatuak izan daitezkeela eta, ondorioz, badira transformatu daitezkeen hainbat praktika kultur nortasuna eraldatua izan gabe.

Adibidez. Hainbat kulturetan infantizidioa, kanibalismoa edo tortura ohikoak izan daitezke. Hala ere, kultura horiek errespetuz ikertzeak ez du zertan esanahi halako praktikak onartu behar ditugunik. Badira gizakiok gizakiak izateagatik dauzkagun oinarrizko eskubideak eta hauek hainbat fenomeno kulturalen gainetik egon beharko lirateke.

Hortaz, aniztasun kulturala errealitate bat da gaur egun eta kultura bat ez dela beste kultura bat baino hobea onartzen ikasi behar dugu. Hala ere, kultura guztiek gizakien oinarrizko eskubideen kontra egin dezaketen hainbat praktika edo jarrera izan ditzakete eta hauek ez dute zertan onargarriak izan behar. Hori bai, hauek kenduta, ohitura, balio eta sinesmen guztiek errespetu bera merezi dute. Hau ziurtatzeko, antropologiak eta gizarte langintzak, kultura bakoitza bere eredu kulturaletik abiatuz aztertu behar du.

3.4. Bibliografia

Bonte, P. & Izard, M. (Coautor). *Diccionario de etnología y antropología*. Akal; Madrid, 1996.

Harris, M. (1986). *Introducción a la Antropología General*. Madrid: Alianza Universidad.

Kottak, C. P. (1997). La cultura. En Kottak, C.P. *Antropología Cultural. Espejo para la humanidad*. Madrid: McGrawHill (17-31).

4. GAIA. POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALAREN INGURUKO HAUSNARKETA ANTROPOLOGIKOAK



EDUKIEN AURKIBIDEA

4. Pobrezia eta bazterketa sozialaren inguruko hausnarketa antropologikoak

4.1. Oinarrizko irizpideak

4.2. Bazterketa soziala eta kulturala kontzeptuaren bilakaera

4.3. Bazterketa soziala eta kulturalaren inguruko oinarrizko teoria interpretatzaileak

4.3.1. Chicago-ko eskola

4.3.2. Pobreziaren kulturaren eskola

4.3.3. Teoria Neoklasikoa

4.3.4. Teoria Kritikoa

4.3.5. Azpiklasearen teoria

4.4. Txirotasuna bazterketa soziala iturri bezala

4.5. Ondorioak

4.6. Bibliografia

Gai honetan, ikuspegi antropologiko batean oinarrituz marjinazio soziala eta kulturala nahiz honek beste errealitate sozialekin duen elkarlotura aztertuko dugu. Hala nola, bazterkeria, diskriminazioa, segregazioa, etab.

Antropologia eta Soziologiaren ikuspegitik XX. mendetik aurrera teoria ezberdinak sortu dira kontzeptu honen inguruan. Jarraian, marjinazioaren inguruan sortu diren tesi garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

4.1. Bazterketa sozial eta kulturalaren inguruko teoriaren oinarritzko premisak

Marjinazio sozial eta kulturalaren fenomenoak aztertu baino lehen, jarraian jasotzen diren premisak kontutan hartu behar dira. Izan ere, marjinazio prozesuak ulertu ahal izateko, lehenengo, hau mantentzen laguntzen duten baldintzak (sozialak, instituzionalak, etab.) ezagutu behar dira. Lehenik eta behin, marjinazioa ezin da prozesu natural baten moduan ulertu. Bigarrenik, marjinazioa, antolakuntza sozialaren ondorioa da eta berezko izaera eta adierazteko forma dauka.

-Marjinazioa ez da prozesu ekonomiko eta geografikoen ondorioa bakarrik, erabaki politiko eta botere estrategien emaitza ere bada.

-Kultura eta sinboloak (kultura sistema sinboliko moduan ulertuta) ere izan daitezke marjinazio soziokulturalen sortzaile.

-Marjinazio, bazterketa eta diskriminazio kontzeptuak sinonimo moduan erabiltzen dira baina zenbait ñabardura dituzte:

-Marjinazio soziala: kanporatze prozesua da, gizatalde edo subjektu indibidualak ordena sozialetik sistematikoki eta modu integral batean ateratzeko prozesua da. Arrazoiak anitzak izan daitezke: ekonomikoak, politikoak, kulturalak, etab.

-Diskriminazioa: bereizketa prozesua da, botere erlazioetan oinarritzen da eta prozesu honetan kolektibo edo subjektu indibidual jakin batzuen berdintasun printzipioa urratzen du.

-Bazterketa soziala: bereizketa eta marjinazio prozesu zehatz bat da, bereziki arlo ekonomiko eta geografikoaren eraginez ematen dena.

Kontzeptu hauen arteko bereizketa ez dago erabat argi. Guztiak lagun izaten dituzte prozesu sinbolikoak, ekonomikoak, politikoak, etab. Ondo bereizten jakin behar da, ordea, ezberdintasun kulturalengatik ematen direnak (adb. ijitoena), boterearen logikaren ondorioz gertatzen direnak (adb. emakumeenganako diskriminazio zuzena ala zeharkakoa) edo produkzio bidetara iristeko ezintasunagatik sortzen direnak (adb. epe luzeko langabetuak).

-Marjinazioa ez da egoera amaitua edo behin betiko produktua, etengabe aldatzen ari den prozesua baizik. Prozesu hau gizarteak bere egindako botere dispositiboan arabera aldatzen da. Gizarteek norbanakoak marjinazio egoeretan mantentzen dituzte gizakideek bere egindako dispositibo batzuen ondorioz.

4.2. Bazterketa sozial eta kulturala kontzeptuaren bilakaera

XIX. mendearen erdialdean, ezberdintasun sozialaz hitz egiten hasi zen gizarteko hainbat sektorek bizi zuten ezberdintasun egoerari buruz hitz egiteko. Gogoeta eta hausnarketa hauek emakumeek eta pertsona beltzek bizi zuten egoeraren hausnarketatik hasi ziren.

1970ko hamarkadatik aurrera, gizartearen talde batzuk pairatutako bazterketa dela eta ezberdintasun sozial modu berriak agertu ziren. Gizarte batean (gehiengoa eta dominantea) gizartearen segmentu batek bertan parte hartzeari usten dionean (segmentu banatua) bazterketa sozialari buruz hitz egiten hasten da. Egoera hori sortzen duten arrazoiak batez ere merkaturako sarreratik eratorriak dira.

Segregazioaren edo bereizketaren ideia agertzen da baita ere, hainbat talde etnikok gizartean jasaten duten bazterketa izendatzeko.

Azaldutako prozesuak ez daude faktore bakar baten menpe, baina prozesu bakoitzean faktore batzuk gailentzen dira:

- Bazterketa: Faktore ekonomikoak, merkaturako sarrera eta espazioaren antolamendua.
- Diskriminazioa: Botere faktoreak, berdintasun printzipioaren haustea.
- Segregazioa edo bereizketa: kultur eta etnia faktoreak.

(Azken hau, bazterketa soziokulturalaren kontzeptuaren sinonimo bezala erabili daiteke).

Kontzeptu hauen garapen analitikoa 1960ko hamarkadan hasi ziren arren, lehenago, 1920ko hamarkadan, Estatu Batuetan errealitatearen analisiaren saiakera garrantzitsuak sortzen hasi ziren.

Robert Park Chicagoko Eskolaren (1928) fundatzailea izan zen. Bere inguruko errealitate sozialak sortu zion interesa. Chicagon, 1920ko hamarkadan gizarteratzeko arazo larriak

zituzten taldeak zeuden hirian integrazeko arazo larriak zituztenak eta auzo marjinaletan bizi zirenak (*sluns*). Talde hauen marjinazioa lurralde, ekonomi zein kultura fragmentazioagatik ematen ziren. Ezaugarri soziokultural bereziak dituzten talde minoritarioak gizarte dominantetik edo gehiengoaren gizartetik at bizi dira. Bazterketa hori espazialki ere ikus daiteke eta, horregatik, Park-ek, hiri plangintzaren ikerketan sakondu zuen benetako espazio-fragmentazioa ezagutzeko eta marjinazio egoerak gainditzeko estrategia moduan.

Aurrerago, 1960ko hamarkadan, Oscar Lewis-ek frogatu zuen hiriak hedatzean Park-ek azaldutako auzo marjinalak irentsi egin zituela, baina hala ere, marjinazioak existitzen jarraitzen zuela. Lewis-ek ondorioztatu zuen marjinazioa funtsean kulturala zela, eta ez territoriala. Marjinazio mota hau ez da aurrekoa bezain erraza identifikatzen eta honi erreferentzia egiteko, “pobreziaren kultura” kontzeptua erabili zuen. Kontzeptu honek eskola honi izena ere eman zion. Lewisen arabera, marjinazioa arazo kulturala zen heinean, irtenbide bakarra baztertutako kolektiboen heziketa bidezko integrazioa zen.

Aurrerago teoria hauetan sakontzen jarraituko dugu, orain aipatu egingo dira marjinazio kontzeptuak historian zehar izan duen bilakaera ulertzeko. Teoria hauetatik ondoriozta daiteke:

-Marjinazio, marjinatutako taldearen berezko ezaugarrietatik gertatuko litzateke. Bere ezaugarri soziokulturalen ondorioz honek gizarte dominante edo hegemonikoan parte hartzeko arazoak izango lituzke. Beraz, talde marjinatuaren ezaugarri fisiko, kultural, sozial, etab.-en ondorioa izango litzateke marjinazioa.

-Ez litzateke inolako loturarik egongo marjinazioaren edo talde marjinatuaren eta gizarte hegemonikoaren artean. Marjinazioaren sortze prozesuak ez luke loturarik izango gizarte hegemonikoarekin.

Bi teoria hauek erreformistak dira gizarte minorizatuaren arazoak gizarte hegemonikoan integrazten saiatzen direlako. Marjinazioaz hitz egiten dute integrazioaz hitz egitearekin batera. Honekin erlazonaturik asimilazioa kontzeptua azaltzen da. Honek integrazio esan nahi du baina baita normalizazioa ere. Ideia hauen inguruan joan ziren garatzen marjinazioarekin amaitzea helburu zuten esku hartze linea guztiak.

Chicagoko Eskolak eta Pobreziaren Kulturarenak errealitatearen analisirako ikerketa etnografiko ugari egin zituzten. Marjinazioaren aurrean estrategia plurala edo anitza erabiltzearen beharraz ere hitz egin zuten. Lan eredu honek, beraz, ekonomiaren analisia botere, kultura, politika etab.ekin batera egitea ahalbidetzen zuen.

1970. hamarkadatik aurrera, lehenago aipatu den moduan, ezberdintasun sozialaren eredu berriak agertu ziren. Hauek marjinazioa ulertzeko moduan eragina izan zuten. Orduetik aurrera:

-Marjinazioa ez da talde minoritarioaren ardura izango. Marjinazioa arau, baliabide, baldintza sozial, etab.-en emaitza moduan ulertzen hasiko da. Eta hauek talde hegemonikoak sortuak dira. Ondorioz, lehen aldiz marjinazioaren ardura gizartea hegemonikoaren gainean kokatuko da, hau talde minoritarioen marjinazio egoeraren erantzule bihurtuz.

-Ezaugarri estrukturaletan jartzen da arreta (ekonomia, demografia, politika...). Kontuan izan behar dena gizartearen baliabideetarako sarbide moduak dira.

Ondorioz, lehen aldiz, marjinazioa gizarteko hainbat taldek gizarte nagusiaren baliabide sozialetara, arauetara, ekintzetara, etab.-i heltzeko duten aukera falta moduan definitzen da.

Aurreko bi teoretara bueltatzen gara (Chicagoko Eskola eta Pobreziaren Kulturaren Eskola). Biak XVIII. mendean Europan pobreziaren inguruko teoria handietan oinarritzen dira. Pobreziaren teoriaren arabera, pobreek garatzen ari zen merkatu ekonomiara egokitzeko arazoak zituzten pertsonak ziren. Hortaz, pobrezia egoerak sortutako desberdintasun soziala norbanako bakoitzaren errua zen, bere egoera horrelakoa baitzen bere baliabideak eta ekonomia kapitalistak eskaintzen zituen onurak aprobetxatzen ez jakiteagatik eta, ondorioz, bere nortasun soziala galtzen uzteagatik.

Pobreziaren inguruko ikuspegi horren ondorioz XVIII. mendetik XX. mendera arte pobreziaren gaineko kontrola benefizentziarako instituzioen bitartez egiten zen. Aurrerago, Estatuak moldatu gabeko (inadaptado) norbanakoen kargu egin zen hauentzat hainbat internamendu zentro sortuz (psikiatrikoak, kartzelak, etab.).

Pobreziaren teoriarekin jarraituz eta bereziki, honek marjinazioaz egiten zuen interpretazioan zentratuz, teoria honek defendatzen zuen pobrezia bi subjektu motatan gorpuzten dela:

-Arrazoi ezberdinengatik gizarte dominanteko lan merkatuan edo kulturaren integratu ez diren pertsonak baina integrazioarekiko jarrera positiboa dutenak. Hauek, egokitzeko aukerak badituzte oraindik.

-‘Pobre duingabeak’ (Malthus) jokamolde patologikoa erakusten dutenak dira eta, ondorioz, gizarte dominantearen balore sistemara egokitzeko arazoak dituzte eta ez dute horretarako asmorik ere aurkezten.

Marxismoak logika soziala indibidualaren gainetik kokatzen du. Marxismoaren aburuz, pobrezia kapitalismoaren ondorioz hedatzen diren erlazio sozialen emaitza da eta ez ordea arazo indibidual bat. Marxismoak *lumpenproletalgoa* (edo azpiproletalgoa) kontzeptua sortu zuen Malthusek ‘pobre duingabeak’ deitzen zituenak izendatzeko. Hau da, beraien jarrera marjinalaren edo delituzko jarreraren ondorioz lan merkatuko baldintzetara egokitzea lortzen ez zutenak. Azken finean, Marx-ek bi subjektu moten artean berezitasunak azpimarratu zituen. Alde batetik, klase ideologia barruan daramatenak eta, bestaldetik, langile duingabeak, biziosoak, delituak egiten dituztenak (*lumpenproletalgoa*). Azken hauek, langile klasea berarentzat etsai garrantzitsuak izango lirateke Marxen arabera.

4.3. Marjinazio kultural eta sozialaren inguruko oinarrizko teoria interpretatzaileak

Lehenago aipatu izan den moduan antropologiak eta orokorrean gizarte zientziek marjinazio kontzeptuaren inguruan eta honekin lotura duten beste batzuen inguruan interpretazio ugari eman dituzte. Jarraian, teoria aipagarrienak aztertuko ditugu.

4.3.1. Chicagoko Eskola

1920. hamarkadan Robert Park antropologoak sortu zuen Estatu Batuetan. Aurrekari analitikoa izan zen eta bertatik abiatuz hainbat pentsalari gizarte hegemonikora egokitzeko eta integratzeko arazoak dituzten subjektu multzoen inguruan hausnartzen hasi ziren.

Chicagoko Eskolak hiri-espazioan jarri zuen arreta. Hiri planifikazio politikak korronte honen oinarrizko printzipiotik eratortzen dira oraindik ere. Korronte honen arabera hiri berrantolaketak norbanako eta gizataldeen integrazioa bidera dezake. Integrazioa, berriz, gizarte dominantearen funtzionamendu eta jokabide arauen asimilatze moduan ulertzen zuten.

Chicagoko Eskolaren irizpide nagusietatik ondoriozta daiteke espazio fisikoa marjinazioa bultzatzeko funtsezko faktorea dela, interakzio sozialak gertatzen diren leku pribilegiatua

baita. Modu honetan, espazio horretan esku hartuz eta zonalde marjinalak hiriaren zentroarekin erlazionatuz benetako erreforma soziala lor zitekeela uste zen. Helburua, XVIII. mendeko 'pobre duingabeen' ideiarekin amaitzea zen, honen arabera pobrezia gertaera naturala zen, giza naturan bertan zegoena. Park eta bere ondorengoen ustez, pertsona marjinatuak integratzeko eta asimilatzeke aukera zegoen espazioaren berrantolaketaren bidez.

Planteamendu teoriko hauek oso berriztatzaileak izan ziren eta aldaketa nabariak ekarri zituzten:

- Gizarte Zientzia guztien berriztatze teoriko eta metodologikoa ekarri zuen lehen aldiz antropologia hirian aplikatu baitzen (gizarte 'konplexuetan').
- Hiria eta, konkretuki *ghetto*-a produkzio kulturalerako gunea denaren ideia sortzen da.
- Hiria espazio heterogeneo eta konplexua denaren ideia sortzen da, hiri idilikoaren ideiare kontrajartzen dena (klase ertainetako gizon zuriena).

Espazioaren berrantolaketak espazio marjinalen osasungarritasun ezaren inguruko eztabaidari konponbidea ematen dio. Egoera honi aurre egiteko lehen Zerbitzu Sozialak sortzen dira.

Chicagoko Eskolatik lehen aldiz antropologia eta soziologiaren arteko banaketa egiten da (ordura arte gizarte antropologia soziologiaren azpi-diziplina moduan ulertzen zen). Chicagoko Eskolak lehen aldiz planteatzen du antropologiak gizarte konplexuak azter ditzakeela ordura arte gizarte sinpleak aztertzeke erabilitako metodologiarekin. Modu honetan, marjinazioarekin loturiko arazo sozialak aztertzeke lehenengo ikerketa kulturalak garatzen hasi ziren.

Espazioaren ulertzea zenbait hiri espazioren osasungarritasun ezaren arazotik abiatuz egin zen. Auzo pobreek osasungarritasun falta zuten eta kontaminazio gunek ekiditeko garrantzitsua zen bertan esku hartzea. Osasungarritasunaren inguruko eztabaida honen harira espazioaren birbanaketaren eta berrantolaketaren inguruan hitz egiten hasi zen eta baita arazo hauei aurre egiteke zerbitzu sozialak sortzeke beharrari buruz ere.

Chicagoko Eskolaren beste ekarpen garrantzitsua, esan bezala, *ghetto* kontzeptua izan zen. Hau zona marjinal bezala definitzen da, erlazio sozial espezifiko batzuk sortzen dituen eta honekin baita kultura zehatz bat ere. Louis Wirth-en arabera, *ghettoa* hiriaren kanpoa da

eta berezko kultura bat du, kanpoan egote hori fisiko nahiz kulturala delarik. Parken arabera, gizatalde bakoitzak bere *ghetto*a sortu eta mantentzen zuen eta horregatik *ghetto*a bera isolamenduaren sinbolo fisikoa bilakatzen zen. *Ghetto*arekin erlazioan, antropologia gizarte konplexuen barruan 'bestea'-ren inguruko azterketa egiten hasten da eta, ondorioz, marjinazioa ikuspegi antropologikotik planteatzen hasten da.

*Ghetto*ari dagokionez, hau bi edukien gainean ezartzen da:

-Eduki soziokulturala: *ghetto*an bertan bizi diren gizatalde sozialen (etnikoak) protagonismoa, ekintza eta esku hartzea ematen da. Beraz, gizatalde marjinatuak ez dira biztanleri apatikoa, jokamolde desbideratuen produktuak, gizatalde hau kultura, baloreak, jokamoldeak, etab. sortzen dituen taldea baita. Aurrerago, 1990. hamarkadan erakutsiko den moduan, *ghetto*a ez da produkzio kulturalerako gunea bakarrik bertan biziraupen ekonomikorako estrategiak ere ekoizten baitira.

-Eduki espaziala: *ghetto*a hiriaren parte da leku hauek erlazio ekonomiko eta politiko multzo baten ondorio baitira. Ez da naturala, beraz. Chicagoko Eskolaren helburua *ghetto*ekin amaitzea izango da eta, horretarako, barruko logika ezagutzea eta deuseztatzea planteatuko dute. Azken helburua, *ghetto*a osatzen duten norbanakoak gizarte hegemonikoan integratzea eta asimilatzea izango da.

Aurreko planteamenduaren aspektu garrantzitsu bat *ghetto*-aren naturalizazioa desagerraraztea eta estrategia soziokultural ezberdinek sortutako espazio bezala definitzea da. Ideia berriztatzailea da arrazoi hauengatik:

-Modu honetan ondorioztatzen delako marjinazioa ez dela egoera naturala baizik eta kulturak sortutako egoera.

-Kulturari emandako garrantzia ezinbestekoa izango da 1960. hamarkadatik aurrera hezkuntzak marjinazioaren kontra izan dezakeen garrantziaren inguruan pentsatzeko.

Chicagoko Eskolak *ghetto*etan sortutako kulturak aztertu zituen eta hainbat funtzio eta beharrian betetzen zituela ikusi zuen:

-*Ghettoko* kulturak etnien arteko gatazkak gainditzen laguntzen du. Ondorioz, muga zehatz batean bizi den komunitatearen kontrol mekanismoan bilakatzen da.

-Taldea isolamenduaren beharrianak asetzen ditu gizatalde dominantearen aurrean defentsa mekanismoa bezala.

-Hiri hazkunderaren prozesuaren aurrean biztanleriaren asentamenduak banatu eta distantziak ezartzen ditu.

-Mugikortasun egoera batean edo testuinguru ezagun batetik ezezagun baterako prozesuan taldeen artean ager daitezkeen gatazkak leuntzen ditu.

-Marjinazioa eta talde minorizatuaren isolamendua sortzen duten mekanismoen desegite prozesua leuntzen ahalbidetzen du.

-Testuinguru gatazkatsu eta aldakor bateko subjektuen izaera eta balioak moldatzen laguntzen du eta, era berean, balio berriak eta kontrol sozialerako mekanismo berriak agerrarazten ditu.

Ondorioz, Chicagoko Eskolak hiriaren inguruko ikuspegi heterogeneo eta konplexua ematen du, hiria espazio ordenatua denaren ideia modernoari aurre eginez. Heterogeneotasuna espazioen konplexutasuna eta aniztasuna ez ezik norbanakoena ere onartu beharrekoa dela defendatzea da. Horretaz gain, hiri testuinguruen ikerketa antropologikoari esker norbanakoen jokamoldeen tipologia ezberdinak antzeman daitezkeela baieztatzen du eta honela subjektu guztiak berdinak garela baieztatzen duen paradigmarekin hausten du.

4.3.2. Pobreziaren Kulturaren Eskola

Pobreziaren kulturaren teoria 1960. hamarkadan sortu zen Chicagoko Eskolak aipatutako hainbat ideiekin jarraitzeko asmoarekin baina baita honen muga teorikoak gainditu nahiarekin ere. Oscar Lewis antropologoa izan zen talde honen sortzailea.

1950. hamarkadatik aurrera *slun*-ak hirietan integratzeko helburua zuten hirigintza eta etxebizitza politikak hasi ziren. Ez zen esperotako emaitza lortu, ordea. Politika hauek porrot egin zuten auzo marjinatuetan bizi ziren pertsonak erdialdera bizitzera joan zirenean kolonizazio prozesu bat ematen hasi zelako. Honetaz gain, Bigarren Mundu Gerra osteko hazkunde ekonomikoaren ondorioz ertain klase bat sortu zen eta hauek bizi kalitate hobea izateko hiri-inguruetan bizitzeko espazioak aldarrikatu zituzten.

Aldaketa soziala ahalbidetu zuten hainbat ezaugarri honakoak izan ziren:

-1920. hamarkadatik aurrera Ongizatearen Estatua garatzen hasten da.

-Lan munduan aldaketa handiak ematen dira sindikatuek taylorismo izeneko lan prozesua onartzen dutenean. 'Lanaren antolakuntza zientifiko' honek taylorismoa industria osora zabaltzea ahalbidetzen du eta honela ordura arte ezagutzen ez zen produktibitate maila lortzen hasi zen. Baina era berean, eskaeraren arazoa ematen da; ez daude kontsumitzaile nahikorik horrenbeste produkziarako. Ford-entzat, honen konponbidea soldata-gabekoak soldatapekoak eta, ondorioz, kontsumitzaileak bihurtzea da. Hau lortzeko ezinbestekoa izan zen:

-Pertsona guztientzako oinarrizko soldata.

-Industrian inbertsioa egitea langileria handitzeko eta honekin baita kontsumitzaileak ere.

Aldaketa guzti horiek industriaren hazkundera, aberastasuna eta lanaren hazkundera ekarri zuten. Modu honetan, 1950. hamarkadara arte marjinatuak bizi izan ziren pertsona askok (dirugabeak, bereziki) bizitza sozialean parte-hartzeko aukera izaten zuten.

Hau guztiori baino lehenago, 1930. hamarkadan, J. M. Keynes ekonomistak lantegietako langileriaren aldarrikapenei aurre egiteko konponbidea proposatu zuten. Akordio sozial eta politiko bat zen honen proposamena eta biztanleriaren gehiengoak bi diru iturri mota ezberdin izateko aukeran zegoen oinarritua:

- Osagai zuzena: hilerokobratzen dena.
- Zeharkako osagaia: langileak ez du kobratzen eta, honen ordez, Estatuak diru hori eraikuntza berriak eraikitzen, zerbitzuak eskaintzen, etab. bideratzen du. Estatuak eta industriak, biak batera, oinarrizko zerbitzu sozialak (osasuna, hezkuntza...) eraikitzen zituzten eta Ongizatearen Estatua sortzen zen.

Laburbilduz, 1950. hamarkadatik aurrera, pobrezia eta marjinazioa desagerrarazteko ahalmena dago, baina ez da gertatzen. Gainera, ezaugarri ekonomiko gehitu behar zaie momentu historiko honetan gizartearen osaketa multietniko berriak sortzen dituen aldaketak.

-‘Zuriak’ ez diren immigrante berriak agertzen dira Estatu Batuetan. Kultur arazoei, orain, azalaren kolorearen arazoa gehitzen zaie.

-Mundu mailan, Ipar-Hegoaren arteko menpekotasun erlazio berriak sortzen dira, aurrekoak sistema koloniala ordezkatzeko dutenak. Estatu independente berriek Estatu zentralaren baldintzak onartu behar dituzte ez dutelako beraien ekonomia kontrolatzeko ahalmenik. Garapenaren hazkunde azkarraren faseak landa eremuetako biztanle ugari hiritara eta iparraldeko estatuetara emigratzea ekarriko du.

Aurreko aldaketa guztiek eta beste batzuk, ordura arte marjinazioari buruz zegoen ideia (Chikagoko Eskolarena) birplanteatzea ekarri zuen. Pobreziaren kulturaren teoriak, hurrengo galdera egin zuen: nola da posible bizi den hazkunde ekonomikoarekin oraindik ere pobrezia existitzea? Gizarteak aurrerakuntzan eta gizartearen barruan bertikalki hazteko aukeran sineste sendoa zegoen, baina hainbat gizataldek eta pertsonak aukera hori ez zutela aprobetxatzen ematen zuen.

Ondorioz, hainbat ikerketen ostean Lewis baieztatzen hasi zen pobrezian eragiten duen faktore bakarra ez dela ekonomikoa. Ondorio horretara hegoaldeko herrialdetan landa-lan

ugari egin eta bertan garapenaren efektuak aztertuz iritsi zen. Lewisen ikerketak familia erakundearen ikerketatik abiatu zituen eta bere lanetik lortutako hainbat ondorio hauek dira:

-Espazio marjinalak desegituratze familiarra edo gizataldeen desegiteagatik sortzen dira, beti ere, pasibotasun, etsipen edo fatalismoaren baloreekin loturik.

-Pobreziaren kultura, pobrezia material eta ekonomikotik bereizten du. Kointziditu dezaketen arren, bi errealitate ezberdin dira. Badira subjektuak urritasun eta eskasiarekin bizi ez direnak baina pobreziaren kultura daukatenak, hau da, famili sozializazioari esker belaunaldiz belaunaldi transmititzen den bizimodu zehatz bat.

-Desantolaketa familiarra zurien familia antolakuntzaren kontrakoa da.

Hortaz, teoria honen arabera pobrezia famili desantolaketaren eraginez ematen da. Marjinazioaren produkzioaren oinarrian dagoen ezaugarria prozesu jarraikorra, iraunkorra eta aktiboa da. Desegituraketa sortzen duen errealitatea da.

Chikagoko Eskolari kontrajarririk, eskola honek dio norbanakoak balio sozialak bereganatzen dituenean, ezinezkoa dela horietatik libratzea. Dena den, norbanako hauengan ez dago lehiakortasunik (hitzaren zentzu modernoan), biziraupena baizik. Pertsona hauen izaeraren ezaugarri izango lirateke inpultsoak ezin kontrolatzea eta orainean bizitzea (momentuan sortzen zaizkien beharrian emozionalak asetzeko premia eta epe ertain edo luzerako proiektuak ez egitea). Azkenik, garaiko gizartearen ezaugarria ez da marjinazioa izango baizik eta zaurgarritasuna.

Pobreziaren kulturaren eskolaren arabera, Chikagoko Eskolak proposatutako antolakuntza espaziala garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa marjinazioa gainditzeko. Hezkuntzaren bidezko sozializatorako beste mekanismo bat erabiltzea ezinbestekoa da. Marjinazioa kontrol sozialerako sistema baten eta gizarte dominantearen balio sistemaren ondorioa da. Hau dela eta, estrategia espaziala ez da nahikoa izango eta kultura arloa ere bultzatu behar da. Hau, hezkuntzaren bitartez lortuko da, honi esker, kulturek beraien testuingurura egokitzeko ahalmena izango baitute. Helburua, beti ere, kultur marjinatua kultural eta sozialki hiriko espazio dominantean integratzea izango da eta horretarako hezkuntza eta sozializazioa erabiliko dira.

1970. hamarkadatik aurrera beste aldaketa estruktural bat eman zen gizartean, bai zentroan nahiz periferian. Aldaketa guzti hauen ondorioz, hiru teoria ezberdin sortu ziren marjinazioa azaltzeko. Hirurek talde marjinatuak parte hartzen duten gizartearekin

erlazioan aztertuko dituzte. Marjinazioa gizataldeen edo norbanakoen eta gizartearen arteko harremanetatik sortzen dela ere baieztatuko dute. Ikergaia aldatzen da orain marjinazioa gizartearen barruan emandako egiturazko aldaketan ondorio bezala aztertzen delako.

4.3.3. Teoria kritikoa

Marx eta Keynesen arabera, merkatua nahitaezkoa da baina Estatuak arautu behar du. 1970. hamarkadatik aurrera gertatutako mundu krisia ez da ekonomikoa, politikoa baizik.

Krisia ordena sozial berri bat sortzeko elementuak agertu zirenean hasi zen:

- Lanaren banaketa internazional berria.
- Gizarte garatuen desindustrializazioa.
- Hirugarren sektorearen zabalkuntza azkarra.
- Hegoaldeko industrializazioa eta metropolizazioa.

Aurreko aldakek lan merkatuaren desegituratzea ekartzen dute eta honekin:

- Lan prozesuen segmentazioa: erdiguneko zonalde batetik murgildutako zonaldeetarako deszentralizazioa
- Berregituraketa prozesuak: sindikatuen botere galtzea, soldata finkoa galtzea, negoziatorako boterea galtzea, afiliatuen kopurua galtzea, etab. Azken finean, Estatuarekin negoziatzeko ahalmena galtzea.

Aipatutako bi aldaketek, Ongizatearen Estatuaren galera azkarra ekarri dute. Honetaz gain, Estatuak krisi fiskal larria jasango du.

- Hala ere, legitimatzaile sozialaren papera mantendu behar du.
- Erregulatzaile sozialaren papera betetzeko ezintasuna du eta egoera hau izan arren, gastu soziala mantentzen du.
- Klase ertain ezberdinak sortzen dira.
- Globalizazio ekonomikoa ematen da eta lan indarrean honela eragiten du:
 - Lan eta formazio egituraren birkualifikatze azeleratua.
 - Kontratazio moduan aldaketak: malgua eta prekarioa. Lan finkoaren eta egonkortasunaren amaiera.

-Lan malgutasuna goi mailako estatusarentzat hobea da behekoentzat baino.

Internazionalizazio eta globalizazioaren eraginez, ordura arte oinarritzko oreka bat zuten hainbat sektore sozial prekarizatuak geratzen dira. Ongizatearen Estatuaren krisiak gizartean oreka minimo bat zuten subjektu eta kolektibo asko pobrezia baztertuak geratzea ekartzen du. Honela, 1980tik aurrea prekarietatea eta pobrezia dira marjinazio iturri nagusia.

Orokorrean, Zerbitzu Sozialak ere murriztu egiten dira euspen mekanismoak bilakatzen dira integrazio sozialerako baliabideak baino gehiago. Egoera honekin batera, Zerbitzu Sozialen pribatizazioa gertatzen da. Gainera, goi kalitateko zerbitzuak sortzen dira, goi mailako klase sozialen beharrak asetzera zuzentzen direnak: unibertsitate ikasleak, hirugarren adin konkretua, etab.

Ondorioz, egitura aldatzen da eta marjinazioa errealitatea garrantzitsu batean bilakatzen da. Dena den, espazio marjinatuetan kulturalaren ideia desagertzen da eta marjinazioa jasaten duen subjektuaren inguruan ere ikuspegi galera ematen da. Planteamendu hauen ondorioz sortzen da Azpiklasearen Teoria.

4.3.4. Azpiklasearen Teoria

1980. hamarkadatik aurrera garatu zen teoria hau testuinguru soziopolitiko eta ekonomiko berriaren ondorioz. Azpiklasea norbanakoen talde heterogeneoa da. Marjinatuak ez dira berriak, bai ordea, marjinazio prozesuak. Azpiklasea osatzen duten subjektu motak honakoak dira:

-Pobre pasiboak: gizarte aldaketek sortutako egitura berrietara egokitzea lortzen ez duten pertsonak. Estatuaren laguntzekiko menpekotasun kronikoa azaltzen dute. Modu honetan, Estatuak ez ditu subjektu hauek marjinaziotik ateratzen, are gehiago, egoera hori elikatzen du.

-Delinkuentzian eta drogen munduan bizi diren pertsonak

-‘Trapitxeroak’: pobreak izan daitezke edo ez, baina biziraupena murgildutako ekonomian oinarritzen dute. Ez dituzte delitu bortitzak egiten.

-‘Traumatizatuak’: bizi duten marjinazio egoera huts egite pertsonalaren ondorioa da eta arrazoi ezberdinengatik eman daiteke: alkoholarekiko dependentsia, ‘*sin techo*’-ak, buru gaixotasunak dituztenak, zahar isolatuak, etab.

Aurreko guztiek, marjinazio forma berriak dira eta guztiek Malthusen 'pobre duingabeekin' antzekotasunak dituzte.

Azpiklaseak ez dauka berezko nortasunik norbanakoak egoera ezberdinetatik datozelako, baina denen egoera dator sistemaren berregituraketaren ondorioz. Azpiklasea izateari uztea posible litzateke merkatu eta politika logikara sartzen laguntzeko politika edo esku hartze bereziak egongo balira. Hala ere, hau ez dago beraien esku, izan ere, hurrengo ezaugarriak ere badituzte:

- Kualifikazio falta.
- Epe luzeko langabezia.
- Asistentziazko Estatuaren barruan bizi diren familiak.

Marjinazioa, ondorioz, hein handi batean izaera ekonomikoa duen prozesu estrukturalaren emaitza da; merkatuaren berregituraketa eta desindustrializazioa. Guzti honekin batera, Estatuaren esku hartzearen berregituraketa ere ematen da.

Wilsonen arabera, marjinazioa hiriko fenomeno bat da desindustrializazio prozesua sakona egon den lekuetan agertzen dena eta bereziki talde minoritarioi eragiten diena (latinoak, afroamerikarrak...). Talde hauek gizarte hegemonikoaren aurrean berezko kultura bat sortzen ari dira eta, zentzu honetan, azpikultura dira.

Wilson subjektu hauen pentsaera, balore propioen eraikuntza logiketara iristen ere saiatzen da. Modu honetan, marjinatuen jokamoldeak azaltzen saiatzen da.

Azpiklasea modu honetan ulertuta, ez da bizi estilo edo bizitzeko forma bat baizik eta pertsona jakin batzuentzat aukera posibleak murrizten dituen sistema lehiakor baten aurrean ematen den erantzuna. Gainera, azpiklaseko kultura (azpikultura) belaunaldi belaunaldi transmititzen da.

Azkenik, Estatuaren kontrol mekanismoek 'kanpotik' marjinatu hauek ikusteko modua ere baldintzatzen dute. Marjinazioa handitzen doan arren, hau geroz eta ikusezinagoa da eta, modu honetan, ertain eta goi klaseak lasaitu egiten dira (zentroan bizi den gizataldea eta babesten dituen programak sortuz).

4.4. Pobrezia bazterketa sozialaren iturri bezala

Orain arteko teoria guztiek, txirotasuna oinarrizko faktore bezala seinalatzen dute kolektibo eta subjektuen marjinazio sozial eta kulturala azaltzeko. Dena dela, pobrezia besterik gabe ekonomikotzat har dezakegu edo perspektiba zabalago bat mantenduz beste dimentsio soziokulturalekin erlaziona dezakegu. Existitzen den pobrezia bakarria ez da ekonomikoa; txirotasun kulturala, ideologikoa, harreman txirotasuna eta bestelako txirotasunak ere existitzen dira.

Txirotasuna, lehenengo komunitate nekazariak komunalak izaten utzi zutenetik existitu da. Hala ere, inoiz ere ez da gaurko aberastasun polarizazioa ezagutu, inoiz ere ez da hainbeste jende txirotasun ekonomiko egoeran bizi. Egoera honen erruduna gaur egun nagusia den sistema dela ematen du: sistema kapitalista alegia.

Estatistikek diote kapitalismoak planeta guztiaren %15-ari bakarrik eskaintzen dizkiola abantailak, %30-ak bere ondorioak pairatzen ditu eta %55-ak bizirauteko arazo oso larriak ditu. Kapitalismoa polarizazioa da, aberastasunaren kontzentrazioa. Munduko biztanleriaren %15-a planeta osoko aberastasunaren %80-aren jabea da. Teoriko askok ondorio hau baieztatzen duten arren, benetako arazoak irtenbideak bilatzen direnean sortzen dira. Eskaintzen diren konponbide guztiek ez dituzte kapitalismoaren oinarrizko printzipioak zalantzan jartzen, ezta bere estruktura ere. Printzipioak honako hauek dira:

-‘Laissez faire’, bakoitzak bere etekin handiena bilatzen badu, merkatuaren ‘esku ikusezinak’ denen onerako den oreka lortuko du.

-Hazi egin behar da, eta gero eta gehiago. Ekonomiak mugarik gabe hazi behar du.

-Ekonomia hazten bada, denentzat da hobea. Hazkundeak gora egiten badu, enplegua eta aberastasuna ere hazi egingo dira.

-Ekonomiak pribatua izan behar du. Sektore publikoak pribatizatu egin behar dira, ondasunen eta prezioen banaketa egokiaren arduradun bakarria merkatua delako.

-Ez dago ‘epe luzeraik’ eta, hortaz, ez dute garrantzirik epe ertain eta luzeko planifikazio ekonomikoek, sistemak berehalako irabaziak behar ditu.

-Gizakiak izatearen ‘kreatzioaren erregeak’ dira eta naturak bere zerbitzura egon behar du, hemen eta orain, bere irabaziak ahalik eta hoberenak izan daitezten.

Sineskera hauek dira gaur egun munduan dauden marjinazio, txirotasun eta desberdintasun egoeren arduradunak.

Gaur egun, txirotasuna aipatzeko hainbat kontzeptu erabiltzen dira: ‘mesede gutxiagoko kolektiboak’, ‘ongizaterik gabeko kolektiboak’... Horrelako eufemismoen erabilera ez da ausazkoa, errealitatearen ezjakintasuna eta zehaztasun falta sortzen baitute, honela sistemaren boterea sendotzen delarik.

Txirotasunari buruzko ikerketak ez lirateke zenbaki eta zifra kopuruetan bakarrik oinarritu behar, garrantzitsua da pobrezia sortzen duten faktoreak aztertzea ere. Honela, ezagutza horretan oinarrituz pobrezia sortzen duten prozesu konplexuak ezagutzeko gai izango ginateke.

‘**Txirotasun-muga**’ kontzeptua erabili ohi da txirotasunari buruzko ikerketak egiten direnean, baina arazo metodologiko bat dakar: definitzea ze pertsonak diren pobrak eta zeintzuk ez. ‘Txirotasun-muga’ termino monetarioetan oinarritutako ardatz bat definituz markatzen da: maila batera iristen ez dena txirotzat hartzen da.

Bestalde, badago ‘txirotasun-muga’ baino kontzeptu murriztaileago bat: **txirotasun larriaren arriskua**. Honen ezaugarria, oinarrizko beharrianak betetzeko objektiboki nahikoa ez den diru sarrera bat ezartzea da.

Metaketaren pobrezia, bizi maila egokia izateko beharrezkoak diren kontsumorako ondasunetara heltzeko ezgaitasunarekin dauka zerikusia. Ez da egoera zehatz bat baizik eta orokorra, ez da koiunturazkoa baizik eta egiturazkoa, hau da, bizi baldintzetan prekariedade egoera batean bizitzea. Oinarrizko ezaugarriekin dauka lotura: etxebizitzaren baldintza prekarioak eta bizirauteko nahiko ez den ondasuna.

Ongizate faltarako arrisku egoerek, gizarte jakin batean esperotako ongizate eta erosotasun maila minimoak mantentzeko beharrezkoak diren diru sarrera nahikorik ez izatearekin dauka lotura. Zaurgarritasun egoera larri batean bizi diren norbanako eta taldeekin dauka erlazioa.

4.5. Ondorioak

1980. hamarkadatik aurrera, eredu ekonomiko kapitalistaren krisiak pobre berriak, bazterketa arriskua etab. asko sortu zituen. Hauetako asko produkzio sistema hegemonikotik zetozen pertsonak ziren, baina honen berregituraketarekin batera

marjinazio egoera batera pasa ziren. Hpnela, pobrezia eta ondorioz, marjinazioa, ez zen gutxiengo etnikoen arazoa bakarrik sistema berak baztertutako marjinatu berriak sortzen baitira.

Pertsona baten pobrezia eta marjinazio egoera neurtzen duen neurria, muga, klase ertaina izango da. Ertain klasea eta bere balio sistema normaltasunaren adierazgarria da eta bertatik aldentzen den guztia marjinal, gabetu edo pobre bezala ulertuko da. Egungo krisi ekonomiko ere, 1980. hamarkadakoaren antzerako ondorio soziokulturalak sortzen ari da. Langabezia milioika familia eta norbanakoentzat mehatxua larria da eta hauek pobrezia egoera batera bultzatzen ari ditu. Marjinazio egoera, beraz, orain arte sisteman parte hartzen zuten norbanakoengan ere ematen ari da. Ondorioz, mundu osoan geroz eta pertsona gehiago bizi dira marjinazio egoera batean. Marjinazioa ez da urruneko egoera bat klase ertainarentzat, mehatxu erreala baizik, sistemaren malgutasunaren ondorioz edozein momentutan estatus aldaketa bizi baitezake.

Egoera honen aurrean, Zerbitzu Sozialek Ongizatearen Estatuaren erreminta bezala bete duten papera luze kritikatu izan da. 1920 hamarkadaren amaiera aldean sortu zirenetik (Ipar Amerikan), pertsona marjinatu, baztertu eta dirugabeen kopurua handituz joan da. Errealitate honek, hauen funtzioa kolokan jartzen du. Zalantza zera da, zerbitzu hauen benetako helburua pobrezia gutxitzea eta marjinazioa gainditzea den ala benetako funtzioa gizatalde hauek geldiaraztea eta honela anabasa soziala ekiditea den. Ikuspegi kritikoak baieztapen honen alde daude. Estatuak sortutako Zerbitzu Sozialek hainbat pertsona eta gizatalde haren menpe mantentzen laguntzen du. Helburua, sistema osoa (sistema kapitalista dena eta merkatuaren logikaren bitartez arautzen dena) ukitua ez izatea eta pertsona eta talde hauek integratuentzat (ertain eta goi klasea) mehatxu bat ez izatea da.

Aurreko egoera ekiditeko hainbat proposamenek hitzarmen sozial baten beharraz hitz egiten dute. Ez dute konpartitzen klase ertainak eta goikoak beraien interesak defendatzeko beheko klaseei eta, bereziki, marjinatuei zuzendutako erremintak sortzearen ideia. Konponbideak integrala, osoa eta bateratua izan behar du eta ez gizatalde bakar baten onurarako bakarrik (klase ertaina).

Beste proposamen bat, esku hartze sozialek norbanakoak bere osotasunean kontutan hartu behar dituztela da, hau da, beraien egoera aztertu behar dela. Ez da gauza bera guztiz baztertua bizitzea edo zaurgarritasun egoera batean egotea. Erlazio zuzena dago bi egoeren artean, normalean, denbora kontua baita zaurgarritasun egoera bat bazterketa egoera

batean bukatzea. Horregatik, esku hartze batzuk bazterketa gainditzera zuzendu behar dira eta beste batzuk berriz, zaurgarritasuna lantzera. Hauen kasuan gainera, esku hartze egoki bat ezinbestekoa da berriz ere gizartean barneratzeko eta baztertze egoeratik aldentzeko.

Pertsona eta gizataldeen gizarteratzea ezin da bilakatu hauen egoera bereizgarrian hoenk beraien nortasunean eragina izango baitu eta, azkenean, gizarteratu batean bilakatu daitekeelako (eta ez gizaki batean). Ezinbestekoa da gizarteratzea prozesu bat izatea, pertsonen bizitzan garai bat baino ez izatea eta amaiera izatea. Gizarteratzea egoera bat bezala ulertzeak Zerbitzu Sozialen euspen sozialaren rola konfirmatu baino ez du egiten.

Ezinbestekoa da, baita ere, zaurgarritasun egoeran edo arriskuan bizi diren pertsona edo gizataldeekin esku hartzeak egitea hauen bazterketa ekiditeko. Horretarako, esku hartzeak beste mota batekoak izan beharko dira: enplegu politikak, etxebizitza, erlazio familiarren kudeaketa, kualifikazioa hobetzea... Hau da, esku hartze integrala izan beharko du, arlo guztiak modu koherente batean tratatuz.

Ondorioz, bazterketa soziala kate luze baten amaieran dagoen errealitatea da. Zerbitzu Sozialen ardura, esku hartze egokia egitea da. Bazterketa prozesu baten moduan ulertu behar da. Gizarte langintza beharrezkoa izango da bazterketa soziala dagoen kasuetan baina, edozein kasutan, honen iraupenak mugatua izan beharko du eta ez pertsona horien egoera arruntean bilakatu. Bazterketa eta gizarte langintzaren beharra ez dira pertsonen nortasunaren ezaugarrietan bilakatu behar. Honek, beraien bizitzaren fase edo garai bat izan beharko du.

4.6. Bibliografia

CASTEL, Robert. "De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso" In: *VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura N^o 21*. Board; Barcelona, 1995.

DENEUVE, S.; REEVES, Ch. "El modelo norteamericano. Reflexiones sobre los mecanismos de control social" In: *VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura N^o 21*. Board; Barcelona, 1995.

LIZCANO, E. "Para una crítica de la sociología de la pobreza" In: *VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura N° 21*. Board; Barcelona, 1995.

5. GAIA. GENERO SISTEMA ETA TEORIA FEMINISTA EGITATE SOZIALEN AZTERKETAN



EDUKIEN AURKIBIDEA

5. Genero sistema eta teoria feminista egitate sozialem azterketan

5.1. Oinarritzko kontzeptuak

5.2. Teoria feminista eta antropologiaren ekarpenak

5.2.1. Androzentrismoa eta patriarkatuaren kritika

5.2.2. Sexismoa eta matxismoa

5.2.3. Genero sistema

5.2.4. Sexuaren arabera lan banaketa

5.3. Berdintasunerako politika publikoak

5.4. Bibliografia

5.1. Oinarrizko kontzeptuak

Genero sistemen analisia estrategikoa da gizarte langintzarako gizarteak egituratzeko oinarrizko printzipioaz ari delako. Genero sistemak emakume eta gizonen arteko ezaugarri biologikoak oinarri hartuta egitura hauen arteko harreman hierarkizatuak botere harremanak egituratzen ditu. Beraz, ezaugarri biologikoetan oinarrituz ezberdintasun sozialak ezartzen dituen sistema da genero sistema.

Jaiotzen garen momentutik (baita lehenago ere) sozializazio prozesu bereizgarri batean murgilduta gaude. Honen bitartez, norbanakook, gizon eta emakumeok, maskulinoa eta femeninoa dena barneratzen dugu. Gizarteak, esan bezala, itxaropen ezberdinak sortzen ditu gizon eta emakumeengan. Horrexegatik, sozializazio agente ezberdinek (familia, eskola, lana, komunikabideak, eguneroko harremanak etab.) giza arau, gustu, gaitasun, lehenetasun, etab.en inguruko beharrezko ezagutzak eskaintzen dizkigu gizarte egitura mantentzeko helburuarekin.

Sozializazio bereizgarriaren bitartez norbanakoei haien sexuaren arabera rol ezberdinak esleitzen zaizkie. Prozesu honi esker, genero rola sortzen dira. **Genero rola** pertsona batek bere sexuaren arabera bete behar dituen funtzio eta betebeharrak dira. Genero rol hauek pertsonak gizartera egiten dituzten ekarpenak (adb. rol femeninoak etxeke espazioan eta maskulinoak espazio publikoan), garatzen dituzten ekintza zehatzak (adb. emakumeek zainketa lanetan eta gizonak ekonomian) eta gaitasun eta jarrerak (adb. emakumeak sentikorrak eta gizonak emozionalki indartsuak) arautzen dituzte. Arazo nagusia da rol banaketa hauek hierarkizatuak direla da eta ondorioz, genero sistema honek ezberdintasun sozialak sustatzen dituela. Beraz, genero sistemaren ondorioz, sexuen arteko posizio soziala ez da simetrikoa eta ezberdintasun hau gizartearen esparru guztietan ikusi daiteke. Sexuaren araberako diskriminazio prozesu hau ematen da gizartea eredu sozial patriarkalean bizi delako. Sistema patriarkala boterea, eskubideak eta onurak sistematikoki gizonengan dagoenean ematen da.

Feminismoa sistema patriarkala hau sustatzen dituzten ideologia (matxismoa) eta estrategiak (sexismoa) erakutsi eta salatzen duen mugimendua da. 1960. hamarkadan hasi zen gaur egun ezagutzen dugun feminismoaren ibilbidea. Teoria feminista honen ekarpenik handienetarikoa genero sistemaren teoria izan da. Honen arabera, sexua eta generoa bi gauza ezberdin dira. Sexuak gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia (hau ere berrikusia izan da) eta generoak, berriz, maskulino eta femenino kategoria kulturalen eraikuntza litzateke. Genero sistema eraikuntza soziala da eta gizartea

modu hierarkikoan antolatzen du, maskulinitasunaren hegemonian oinarrituz. Aurrekoarekin lotuta, feminismoak ere sexuek egiten duten espazioaren okupazio ezberdindua salatu du; emakumeak esparru pribatuan kokatuz eta gizonak berriz, publikoan. Honek, bi sexuen arteko ezberdintasun larriak sustatzen ditu esparru ekonomikoan nahiz politikoan ere.

Sistema patriarkalean bizi diren emakumeek jasaten duten ezberdintasun eta bazterketa egoeraz informazio teoriko ugari ekoiztu du feminismoak XX. mendetik aurrera. Posizio batzuen arabera, patriarkatua unibertsala da eta ondorioz, baita emakumeen bazterketa egoera ere. Baina feminismoaren ekarpenak ez dira teorikoak bakarrik, baita praktikoak ere mugimendu sozial eta elkarte ekintzen bitartez. Horretaz gain, 1975tik aurrera (Emakumeen Nazioarteko Urtea ospatu zenean Lehenengo Konferentzia Mundialaren ondorioz), estatu parlamentarioek berdintasun aukeren printzipioa bereganatu zuten beraien legedian eta honek eraldaketa nabaria suposatu zituen sexuen arabeko diskriminazio egoera ugariren kontra. **Aukera berdintasunaren** helburua gizon eta emakumeek gizartearen esparru guztietan (ekonomia, politika, kultura, artea...) aukera berdinak izan ditzaten egoera aproposa sustatzen duen testuingurua sortzea da. Gobernu maila ezberdinetan aurrera eramaten ari diren politika, lege eta programa guzti hauek **berdintasun formala edo legala** (araudietan eta gobernu politiketan gizon eta emakumeok tratatu berdina jasotzea) garatzea ekarri du. Hala ere, oraindik ibilbide luzea geratzen da gure gizartean **berdintasun erreala** lortzeko (tratu berbera praktika sozial guztietan). Haustura honetaz ohartzea ezinbestekoa da eta berdintasun formala errealekin ez nahastea. Ezberdintasuna agerian dago oraindik ere eta horren adierazlerik argiena emakumeen kontrako indarkeria da.

Berdintasun formalaren barruan berdintasun politikak kokatu behar ditugu. Hauek generoen arteko berdintasuna sustatzera zuzentzen diren praktika, neurri eta arau ezberdinek osatzen dituzte. 1975. urtean sortu ziren eta harez gero, Estatu europar bakoitzak eta horien barruan, administrazio bakoitzak bere ekintza sarea sortu du gai honen inguruan.

5.2. Teoria feministak: antropologiaren ekarpenak

Feminismoa mugimendu filosofiko gisa ilustrazio garaian sortu zen Olympe de Gouges (1748-1793) edo Mary Wollstonecraft (1759-1797) bezalako emakumei esker. Garai honetako feminismo europarraren helburu nagusia emakumeak hezkuntza jasotzea eta

bozkatzeko eskubidea izatea ziren. Gouges-en “Emakumeen eskubideak eta hiritartasuna deklarazioa” lanean (1791) argi antzeman daitezken helburu hauek. Bi urte geroago, lan hau publikatu zen eta horregatik lepoa moztu zioten gillotinan.

XIX. mendean zehar, burges klaseko emakume sufragistek sustatu zuten mendebaldeko feminismoa. Sufragismoa emakumeak bozkatzeko eskubidea aldarrikatzen zuen. Sufragismoa onartu zuen lehenengo herrialdea Zelanda Berria izan zen. Estatu espainolaren kasuan 1931. urtean bigarren Errepublikan bereganatu zen baina 1937. urtera arte iraun zuen bakarrik orduan erregimen franquista ezarri eta bertan behera utzi zuelako eskubide hau. Emakumeek ez zuten bozkatzeko eskubidea berreskuratu 1977. urtera arte.

XIX. mendean zehar mugimendu feminista ugari garatu ziren bai Ipar Ameriketara nahiz Europan zehar ere, jatorri sozial eta etniko ezberdinak zituzten emakumeek sustatuta. Edozein kasutan, gaur egungo feminismoa 1960. urtera arte ez zen sortu. Garai hartako eztabaida nagusia generoen arteko berdintasunaren (berdintasunaren feminismoa) eta ezberdintasunaren (ezberdintasunaren feminismoa) artekoa izan zen. Lehenengoak, berdintasunaren feminismoak, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzea bilatzen du, berdintasuna ezarri eta azkenean, generoak gaindituz. Bigarrenak berriz, ezberdintasunaren feminismoak, emakumeak gizatalde sozial moduan sortzen dituzten ezaugarri soziokulturaletaz gain gizonengandik bereizten dituzten ezaugarri biologiko garrantzitsuak ere ezin direla ukatu eta goraiatu behar direla defendatzen dute. Ezberdintasunaren feminismoaren oinarritzko arazoa esentzialismoa da. Hau da, emakumea kategoria moduan sortzen duena ezaugarri biologikoetan kokatzen du, berezkoz eta naturalizat joz eta honekin kategoria honen barruan dagoen aniztasuna ere ukatzen du.

Antropologia Feministak kulturen ikerketari egin dizkion ekarpenak oso garrantzitsuak izan dira. 1970. hamarkadan sortu zen Antropologia feminista rta hau, era berean, emakumearen antropologiatik eratorri zen.

“Emakumearen antropologia” 1960. hamarkadan sortu zen ordura arte eginiko ikerketa antropologikoak emakumeen ikuspegitik osatzeko asmoarekin. Ordura arteko lanak, gizonen egindako lanak gehien bat, ez zuten emakumeen ikuspegia kontutan hartzen eta ez zituzten emakumeen bizimoduak azaltzen. Emakumearen antropologiak emakumeen inguruko etnografia asko ekoiztu zituen baina, aldi berean, emakume kategoria estatikoa ere sortu zuen. Hauxe izan zen, hain zuzen ere, honi egindako kritikarik aipagarriena. Muga

hau gainditzeko asmoarekin “emakumeen antropologia” (pluralea) sortu zen. Honen helburua, munduko kultur ezberdinetako emakumeen aniztasuna erakustea zen.

1980. hamarkadaren hasieran “generoaren antropologia” sortu zen. Honen aztergaia ez zen emakumea ezta emakumeak ere, honi interesatuko zaiona gizon eta emakumeen arteko erlazioak izan dira, hau da, generoen arteko erlazioak eta baita feminitate-maskulinitate kategoriak zein emakume-gizon kategoriak aztertzea ere. Jarraian, Antropologia Feministaren oinarritzko ekarpenak aztertuko ditugu.

5.2.1. Androzentrismoa eta patriarkatuari kritika

1960. hamarkadan, esan bezala, ikergai objektu berriak kontutan hartu zituzten lan antropologiko ugari sortu ziren. Emakumeak aztergai zituzten lan hauek Women Studies delako mugimendu teoriko metodologikoaren barruan kokatu ziren. Honen xedea, emakumeek gizartean zuten xedea eta garrantzia erakustea eta hauen boterea aldarrikatzea izan zen.

Antropologia honen lehenengo ekarpena aurreko praktika antropologiko guztiaren errebisioa eta kritika izan zen haren kutsu androzentrikoagatik. Diziplina hau jaio zen momentutik, XIX. mendearen erdialdean, emakumeen papera kultur talde ezberdinetan sistematikoki ezkutatuta geratu zela kritikatu zuten, gizartearen subjektu aktibo bakarrak gizonak izango balira moduan tratatuz. Lan antropologikoek erakusten zuten generoen arteko asimetria hau maila etnografikoan (landa lana egitetik sortutako materialean) nahiz etnologikoan (material etnografikoaren inguruan egindako azterketak) ikusi zitekeela, baita hizkuntzaren erabileran ere.

Androzentrismoa mundua begiratzeko eta gertaera sozialak interpretatzeko modu zehatz bat da. Begirada hau gizonen ikuspegitik egitea inplikatzan du eta honen oinarrian dagoena mundua ulertzeko modu zehatz bat da; mundua gizonen sortua eta gizonentzako sortua izan da eta horregatik, gizonen ikuspegia da nagusi bizitzaren arlo guztietan.

Adibide gisa: Askotan Historia liburuek jasotzen duten informazioa gizonen historiarekin harremana duela kritikatu ohi da. Hau da, aipamen gutxi egiten dira emakumeak protagonista izan ziren gertakizun edo fenomenoei, ez eman ez direlako baizik eta horiek garrantzi historiko gutxiago izan dutela uste delako baizik eta, horregatik, sistematikoki alde batean uzten direlako. Modu honetan, emakumeak gizonen historian sartzen dira eta honek haien ezkutatzeko soziala dakar.

Bestaldetik, aztertzen eta ikasten diren lan artistiko edo zientifiko gehienak gizonen egindakoak dira. Ematen du honela denboran zehar emakume artista edo zientzialariak ez direla egon baina hau ez da egia, errealitate sortua da ezkutatzearen estrategiaren bidez.

Testuinguru zientifikoan eta ezagutzaren produkzio testuinguruan ematen den generoen arteko erlazio asimetrikoa da androzentrismoa. Asimetria hau sistema patriarkalaren ondorio zuzena da.

Patriarkatua grekotik dator eta etimologikoki esan nahi duena 'aitaren boterea' da. 1970. urtean antropologia bezalako diziplinek kontzeptua jaso zuten ikuspegi feminista batetik gaur egungo nahiz iraganeko gizarteetan eman izandako gizonen nagusitasuna eta boterea salatzeke. Historian zehar eta modu ia unibertsal batean, gizartearen agintea gizonengan egon izan da bi arrazoi edo helburu nagusiengatik:

1. Sexualitatearekin loturiko interesa batengatik (plazera ziurtatzea)
2. Erreproduktzioarekin loturiko interesa (ondorengoak izatea)

Interpretazio honen arabera, patriarkatua gizonen emakumeengana sustatutako politika sexual zehatz baten emaitza da, estrategia eta jarrera ezberdinez osatua dagoena. Baina badira beste mota batzuetako interpretazioak ere. Adibidez gizonen interesak esparru sexualarekin bakarrik ez dutela lotura baieztatzen dutenak eta baita lan eremua kontutan izan behar dela aipatzen dutenak ere.

Sistema patriarkalak, hortaz, gizon guztiei mesede egiten die, alde pribilegiatuan kokatuak geratzen direlako jaiotzen diren momentutik. Orokorrean, emakume taldearen interesak gizonen azpitik geratzen dira. Hala ere, gizonen taldekoa izateak ere hainbat baldintza eskatzen die subjektuei eta gizontasunaren baldintza horiek betetzen ez dituzten gizonak ere sistema honengatik baztertuak edo gaizki tratatuak izan daitezke (ahulak, homosexualak, sentikorrak...). Beraz, gizonen artean ere hierarkiak sortzen dituen sistema baten aurrean gaude, maskulinitasun hegemoniko bat kokatzen duena boterearen zentroan.

Sexu batek bestearenganako botere hau sustatzeko bi kategoriak, gizona eta emakumearena, ezberdinki enkulturatzea ezinbestekoa da. Sozializazio ezberdinduari esker, pertsonok gure sexuari dagozkion rola bereganatzen ditugu genero sistema erreproduzitu eta garatuz.

Baina patriarkatuak ezartzeko dituen moduak ez dira berdinak munduko toki ezberdinetan. Batzuetan zapalketa eta bazterketa zuzena estrategia argiak erabiltzen ditu. Kasu hauetan, emakumeek segurtasun fisikoa ere ez dute ziurtatuta gizarteak haienganako bortizkeria justifikatzen duelako.

Adibide gisa: Afganistanen emakumeak lapidatzen dituzte publikoki adulterioa egiteagatik salatuak direnean (askotan ere, hori gertatu denik ez da beharrezkoa erakustea).

Berdintasun legala lortu den herrialdeetan emakumeak baztertzea legez kanpoko da baina, hala ere, honek ez du esan nahi ideologia patriarkala desagertu denik. Hau, modu sotilago batean ematen dela baizik.

Adibide gisa: lan berdina egiteagatik emakumeek lankide gizonen baino soldata baxuagoa jasotzen dute edo emakumeak izatea etxeko lanez arduratzen diren ia bakarrak, ezberdintasunaren adibideak dira gure gizartean ere.

Legearen aurreko berdintasuna ilusio bat dela agerian uzten duten adibideak agerian geratzen dira sarri. Horren lekuko ditugu La Manadaren kasu hurbila edota Nagore Laffage-ren erailketaren epaiketa.

Are gehiago, ustezko berdintasun legala duten gizarteetan ere, askotan, emakumeen kontrako erasoak eguneroko kontua dira, etxean nahiz kalean.

Adibide gisa: indarkeria matxista emakumeek jasaten duten indarkeria da arrazoia genero sistemaren asimetrikotasunetik datorrenean. Askotan, komunikabideetan halako notiziak agertzen direnean gizona edanda, drogatuta hala arazo psikologiak zituela aipatzen da. Honelako aipamenekin arazoaren benetako arrazoia ezkututzen da; gizonen sistematikoki emakumeenganako boterea erakusketa. Gizartearen arazo estrukturala da urtero hildako ugari sortzen dituen gure gizartean; 2011. urteko lehenengo 6 hilabeteetan 51 emakume izan ziren eraso matxistaren biktima ofizialki erregistratuak.

5.2.2. Sexismoa eta matxismoa

Sistema patriarkala mantentzeko eta aurrera egiteko hau elikatzen duten ideologia eta praktikak egotea beharrezkoa da. Ideologia hori matxismoa da eta horrekin loturik aurrera eramaten diren praktika ezberdinak berriz sexismoari egiten diote erreferentzia.

Matxismoa sistema patriarkala sustatzen duen ideologia, jarrera eta diskurtsoa da. Diskurtso honen azpian dagoena gizonen nagusitasunaren aldarrikapena da eta, era berean, emakumeen gutxiagotasuna eta diskriminazioa. Gehienetan, jarrera edo diskurtso matxistak iraingarriak izaten dira eta beraien helburua publikoki nahiz pribatuki gizonen garrantzia azpimarratzea da. Gure gizartean, matxismoa askotan ezkutuan ematen da eta honela, hainbat esamesa, txantxa edo txisteren forma hartzen du, inportantziarik gabeko komentarioak izango balira bezala. Edozein kasutan, halako jarrerak sistema patriarkala mantentzen eta sustatzen laguntzen dute eta sotilak izanik gizartean onartuak izaten dira sarri.

Sexismoa estrategia anitzez osatua dago eta hauei esker ezartzen da sistema patriarkala gizartean. Horregatik, gizartearen esparru guztietan ageri da: soziala, politikoa, ekonomikoa, hezkuntza, artea, zientzia, etab. Praktika sexisten helburua emakumeak gizonenganako gutxiagotasun egoera batean mantentzea da gizartearen esparru ezberdinetan eta modu sistematiko batean. Victoria Sau psikologo eta feministak honela definitzen du sexismoa:

Patriarkatuaren barruan erabilitako metodo guztiak barne biltzen ditu menderatutako sexua, emakumezkoena, gutxiagotasun, mendekotasun eta esplotazio egoeran mantentzeko asmoarekin. Sexismoak giza bizimoduaren esparru eta erlazio sozial guztiak hartzen ditu barne eta horrexegatik oso zaila edo ia ezinezkoa da haren adierazpen forma guztien zerrenda egitea (Sau 2002).

Egile berdinari jarraiki, lau dira sexismoak gizartean ezarritako estrategia motak: ezkututzea, baztertzea, menderatzea eta balioa kentzea. Emakumeak **ezkututzea** gizartearen hainbat esparrutan emakumeak eta haiekin lotura duten aspektuak ez aipatzeko joera sistematikoa da. Honen ondorioz, haien ekarpena ezkututzen da (adb. hizkuntzaren erabileran maskulino generikoa erabiliz). Emakumeak gizartearen hainbat esparrutatik modu kontziente nahiz inkontziente batean apartatuta geratzen direnean (adibidez, enpresetako erabaki postuetatik sistematikoki at geratzea) **bazterketa** jasaten ari dira. Emakumeen **menderatzea** hauek behin eta berriz izaki pasiboa eta desiorako objektu moduan aurkezteko joeratik ere sortzen da (adibidez, publizitatean irudi sexistak erabiltzeko joera). Azkenik, emakumeei eta, batez ere, hauek egiten dutenari **balioa**

kentzeko joera ere oso zabaldua dago (adibidez, antzaz ‘emakumeen’ aisialdi ekintzak direnak, eskulanak besteak beste, ‘gizonezkoen’ ekintzak baino garrantzia gutxiagokoa direla uste da, kirolak adibidez).

Atal honekin amaitzeko aipatu behar da berdintasun legala lortu duten herrialdetan, askotan uste denaren kontra, sexismoa oraindik ere presente dagoela. Ezberdintasun bakarra hau adierazteko modu sotilagoak ematen direla da eta, horregatik, batzuetan, zaila egiten zaigu ikustea. Hala ere, sexismoa ematen den esparrua eta momentua ondo identifikatzeko ahalegina egitea garrantzitsua da esku hartze egokia egin nahi izan ezker.

5.2.3. Genero sistema

Antropologia feministak gizartearen analisiari eta gizon eta emakumeen berdintasunari egindako ekarpenik garrantzitsuen genero sistema kontzeptua izan da dudarik gabe. Kontzeptu honen bilakaera 1970. hamarkadan kokatu behar dugu.

Genero sistema gizartea antolatze edo egituratzeko egiturazko faktorea da. Gizartea osatzen duten bi azpitalderi, gizonak eta emakumeak, ondo berezitutako rol sistema bat esleitzean datza. Antropologiaren ikerketa konparatiboek erakutsi duten moduan, gizarte gehienek sexuaren gaineko rol banaketa egiten dute. Baina rol hauek diferentzian oinarritzen badira ere (sexuak ezartzen dituen ezberdintasun biologikoetan), praktikan, ezberdintasun soziala ere sortarazten dute. Ezberdinarekin zera adierazi nahi da, gizartea honela antolatze modua ez dela neutroa, kontrari, hierarkikoa dela eta horren azpian generoen balorazio bat dagoela; maskulinoak balio eta garrantzi gehiago dauka femeneninoak baino.

Genero sistemari buruz sakontzeko, lehenik eta behin hura oinarritzen den logika ondo ulertu behar da. Sexua eta generoaren arteko ezberdintasunari buruz ari gara eta baita generoa antropologiarentzat eta beste gizarte zientzientzat ere analisi kategorial garrantzitsua dela ulertu behar da.

1970. hamarkadan “antropologia feministak” garatutako analisi transkulturalari esker zera ondorioztatu zuen: sexuaren arabera markatutako rola oso ezberdinak zirela kultura batetik bestera. Hainbat aurrekarien lanak, adibidez 1930. hamarkadan Margaret Mead antropologoak Melanesian egindako ikerketak, aurrerago mota honetako hausnarketak egitea ahalbidetu zuten. Lan guzti horien azterketa eta gero antropologiak, fenomeno

ondorioztatu zuen rol horiek ez zeudela biologikoki determinatuak, baizik eta guztiz eraikiak edo kulturalak zirela. Testuinguru horretan, genero kontzeptua erabiltzen hasi zen sexua kontzeptuaren ordean. Generoa kontzeptuak, gizon eta emakumeen izaera biologikotik ez zetozen ezaugarri guztiak izendatzeko erabili zen, hau da, oinarri biologiko batetik (sexua) gizarte bakoitzak eraikitako gizon eta emakumeen kategoria sozialak (generoa).

Sexua, hortaz, norbanakoen ezaugarri biologikoak dira eta gizon eta emakumeak naturalki bereizten dituzten berezkitasunez osatua dago. Ezaugarri mota hauek izaera hormonalak, genetikoak, fisiologikoak eta hein handi batean, giza espeziearen erreproduzioarekin dute harremana. (Azken urtetan sexua ere eraikia dela defendatu da hainbat teoria feministetatik, dikotomia bezala ulertu beharrean sexua *continuum* moduan ulertuz).

Aitzitik, generoa sozialki definitutako gizon eta emakumeen kategoriak dira eta hauek maskulinoa eta femeninoa denaren pertzepzioa dakarte. Denbora eta espazio bakoitzean aldatu daitezke, ez direlako kategoria ez natural ez estatikoak. Hortaz, gizarte gehienetan gizon eta emakumeak kategoriak banatzen dira ezaugarri biologikoetan oinarrituz (batzuetan gehiago daude) eta hauetan oinarrituz zenbait jokabide eta ezaugarri esleitzen zaizkie, genero ereduak sortuz, egitate kulturalak direnak. Genero eredu hau hierarkikoa izaten da eta gizartearen egitura osoaren oinarrian egoten da.

Era berean, generoa sexuan oinarritzen dena, pertsona bakoitzak gure sexuari jarraikiz egin dezakegunaren eta egin ezin dugunaren adierazlea da. Horretarako, generoak hainbat arau, tradizio eta balio bereganatzen ditu eta, hauekin batera, baita horiek babesteko kontrol sozialerako sistema gogorra ere. Modu horretan, beraien generoaren arabera jokatzeko ez duten pertsonak zigor soziala jasotzen dute maiz (adibidez, gizon eta emakume homosexualak baztertuak izan dira historian zehar eta gaur egun ere, beraien egoera ez dago normalizatuta).

Hortaz, generoa ez da bakarrik pertsona definitzeko aukera posible bat baizik eta pertsona horiei gizartearen barruan irizpide ezberdinak bati jarraituz, posizio soziala emateko estrategia ere bada. Modu honetan, gizonak eta funtzio nahiz balio maskulinoak sozialki hobeto baloratuak daude emakumezkoenak baino, hortaz, gizonak posizio sozial altuago bereganatzen dute emakumeak baino. Izan ere, generoa boterea artikulatzen duen oinarritzko elementua da.

Genero sistemaren ekarpenik aipagarriena naturalizazioaren gainditzea izan zen. Naturalizazioak emakume eta gizonen definizio esentzialistari egiten dio erreferentzia. XIX. mendean, gizarte modernoak gizarte berdinzaleak izateko baliabideak garatu zituzten ilustrazioaren ondorioz. Baina praktikan, berdintasun hau ez zen errealia izan kolektibo asko, emakumeena bezala, berdintasunaren definizio horretatik at geratu zirelako. Egoera hau justifikatu ahal izateko naturalizazioaren tresna edo baliabidea erabili zen.

Honen bitartez, gizartean gizon eta emakumeen artean zeuden desberdintasun sozialak irizpide biologikoen bitartez justifikatzen ziren. Estrategia berdina erabili ohi zen komunitate beltzarekin hauen azalaren kolorea (ezaugarri biologikoa) hauen beheko posizio soziala justifikatzeko erabili baitzen. Naturalizazioaren ideologiak gertaera sozialei azalpen biologikoak ematen saiatzen da eta, honela, gizataldeen ezberdintasunak aldaezinak balira moduan azaltzen ditu. Baina errealitatean, desberdintasun soziala guztiz arbitrarioa da eta, beraz, eraldatua izan daiteke, ez baitago ezer bere baitan honela izan behar denik erakusten duena, naturalizazioak uste duenaren kontra. Hau da, ez dago gizon eta emakumeen ezaugarri biologikoetan ezer gizonek emakumeak baino garrantzi sozial gehiago izan behar dutela justifikatzeko. Hau genero sistematik (sozializazio ezberdinzalearen bidez gizon eta emakumei rol berezituak atxikitzea) eta sistema patriarkaletik (gizartea antolatzeko modu zehatza zeinaren arabera onura soziala sistematikoki gizonengan egoten den) abiatuz azaldu daiteke soilik.

Generoak, hortaz, sexuen arteko diferentzietan oinarrituz egiten den eraikuntza kulturalari egiten dio erreferentzia. Honek, praktikan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna dakar gizartea modu hierarkiko batean antolatzeko estrategia izanik. Generoak, gizon eta emakumeen arteko ustezko diferentzia biologikoak abiapuntutzat hartzen ditu gizartearen esparru guztietan maskulinoa eta femeninoaren arteko haustura sortzeko. Baina berriz ere, maskulinoa eta femeninoa dena ez dira errealitate naturalak baizik eta eraikuntza sozialak eta kulturalak eta, beraz, aldagarriak dira.

Generoa, adina, etnia edo erlijioa bezala nortasun kategoria garrantzitsua da. Baina besteekin aldentuz, honek gizartea bi talde handitan banatzeko duen gaitasunagatik, maskulinoa eta femeninoa, pertsonen oinarritzko nortasun kategoria izatea dakar.

Esan bezala, 1960 hamarkadaren amaieratik aurrera, genero kategoriaren sorrera oso garrantzitsua izan zen azterketa feministentzako. Gaur egunera arte aldaketa asko eman dira zentzu honetan beti ere eraikuntza sozialaren ideia abiapuntutzat hartuz. Gaur egungo

feminismoak baieztatzen duen legez, ez bakarrik generoa, sexua ere eraikuntza soziala da hein handi batean. Sexuaren inguruko ikuspegi dualistak (gizona eta emakumea) ez ditu kontutan hartzen hermafroditak edota jaioren sexuarekin ados ez dauden transexualen kasuak ere.

1990. hamarkadatik aurrera, beraz, genero ezberdintasunak guztiz ezabatzeke ahalegin handiak egin zituen feminismoak. Horretarako, sexua, generoa eta sexualitatearen arteko erlazioen azterketak areagotu ziren. Diskurtso feministaren barruan honekin bilatu nahi zena generoa edo sexualitateagatik gizartetik modu sistematiko batean baztertuak geratzen diren kolektiboak kontutan hartzea zen (homosexualak, transexualak, hermafroditak...).. Gizatalde guzti hauen arazoek erakusten zuten generoak sortutako bazterketa egoerak askoz anitzagoak eta konplexuagoak zirela ohiko emakumeen eta gizonen arteko banaketa baino. Generoak ezarritako dikotomia horretatik ondorioztatutako arazo guzti hauek gainditzeko, teoria feministak norbanakoak, praktikan, generoari dagokionez 'migratzaileak' garela hausnartzen hasi zen. Migratorioak zeren gure bizitzan zehar, gure sexuarekin bat ez datorren nortasun generikoa garatu edo indartu dezakegu momentu ezberdinetan (Sau 2000:155). Hau da, egin behar dugun lehenengo gauza genero ezberdinetaz hitz egitea da (ez bi bakarrik) eta gero, aniztasun horren ondorioz egokiena generoaren ideia bera bertan behera uztea dela (Maquieira 2001:173). Generoa deuseztatu beharko litzateke egile honen aburuz, praktikan, kontrol baliabide eta desberdintasun sozialerako erreminta boteretsua delako.

Generoak dakarren errealitatearen interpretazio dikotomiko horrekin apurto nahian, azken urteetako feminismoak maskulinitatearen azterketari ekin dio. Maskulinitate bakarra existitzen ez dela erakutsi eta gizon izateko aukera ezberdinak badirela defendatzen du. Maskulinitatea, tradizionalki, bakartzak jo izan da. Feminitateari kontrajartzen diren joera eta jarrera guztiak osatzen dituzte modu horretan, honen boterea baieztatzen laguntzen dituzten praktikez osatua. Baina eredu ezberdinak daude baita maskulinitatean ere eta eredu horiek ere hierarkikoki daude antolatuak. Baieztapen hau aitzindaria izan zen bai gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko orduan eta baita genero aniztasuna aldarrikatzeko orduan ere. Lehenenik, gizon sentikorrek, maitakorrek, zaintzaileak eta ez bortitzak badirela erakusten duelako eta bigarrenik, biologikoki gizontzat har daitekeen hori nortasun generiko ezberdinak izan ditzakeelako, ez bakarrik maskulinitate hegemonikoari dagokiona.

5.2.4. Sexuaren arabera lan banaketa

Sexuari dagokion oinarritzko dikotomiari, arra vs. emea, bestelako dikotomia sozialak atxikitzen zaizkie: maskulinoa vs. femeninoa, publikoa vs. pribatua, kultura vs. naturaleza, produktiboa Vs erreproduktiboa. Sexuaren arabera lan banaketak azken binomio horretan oinarritzen da hain zuzen ere. Honen arabera, sexu bakoitzari lanarekin lotutako rolak eta zereginak esleitzen zaizkio askotan ere, beste sexuari betetzea debekatzen zaizkionak (Amoros 1991:227). Baina ez dago pertsonen ezaugarri fisikoetan hauek garatu beharreko lanak baldintzatzen dituzten ezaugarriarik. Horrexegatik, lan rolak eta zereginak sexuaren arabera banatzea ez da ezer naturala, aitzitik, sozialki eraikitako errealitatea da beti.

Gizadiaren jatorritik, pertsonok zeregin ezberdinak bete izan ditugu eta ezagutzen ditugun gizarte gehienetan sexuaren arabera banatuak egon izan dira. Zereginen banaketa ezberdindua 'beste' sexuak bete ezin dituen zereginen eta funtzioen inguruko debeku sistema konplexu batean oinarritzen da. Ildo beretik, Amorošek baieztatzen duen moduan, ezkontza ezinbesteko erakunde bilakatzen da. Ezkontzaren bitartez bi sexuen arteko elkarrekiko menpekotasuna ziurtatzen delarik (Amoros 1991:128)

Momentu historiko askotan eta kultur aniztetasun batean emakumeei etxeko zereginekin eta zainketaekin loturiko eginbeharrak atxiki zaizkie (eremu pribatuko lana). Gizonezkoek, berriz, etxetik kanpo ematen ziren eginkizunak (eremu publikoa). Baina lanaren banaketa hau ez da hemen geratzen, antropologia feministak erakutsi duen moduan, modu sistematiko batean gizonezkoek dagozkien jarduerari balio sozial eta ekonomiko handiagoa ematen zaie emakumezkoen bano. Honen ondorio praktikoa emakumeek gizonengandik ekonomikoki menpekotasun egoera batean bizitzea da. Lanaren sexu banaketak errealitate hau sustatzen laguntzen du eta emakumeak sozialki eta ekonomikoki menperatzeko estrategiatzat har dezakegu bere ondorioengatik.

Berdintasun legala modu formalean lortu duten herrialdeek, horrekin batera sexuaren arabera lan banaketa ere gaitu dutela uste da. Egia da halako gizartetan emakumeek eremu publikoko lanpostu ugari lortu dituztela. Hala ere, badira hainbat egoera oraindik ere sexuaren arabera lan banaketaren eragina erakusten dutenak. Hauek dira gaia honen inguruan gertatzen diren hainbat arazo adibideak:

- **Erantzunkidetasuna:** industrializazioarekin batera, emakumeak modu masibo batean sartu ziren soldatapeko lan mundura. Aitzitik, gizonak etxean sartzea eta zainketa zereginen banaketa ez zen, inola ere, neurri berean gertatu. Gaur egun gizonak etxeko lanez eta zainketa lanez neurri berean ez arduratzeak dakarrena emakumeen lanaldia gizonena baino askoz luzeagoa izatea da. Emakumeen lanaldia bikoitza da lan produktiboa eta erreproduktiboa kontutan hartuz gero. Egoera kontutan izanik, emakume askok beraien jardunaldien murrizketa eskatzeko beharra ikusten dute. Praktika honek bi errealitatekin du erlazioa. Alde batetik emakumeen lana balio gutxiagokoa dela sinesten denez, logikoa da pentsatzea bera izateak lanaldia murrizten duena eta ez gizona. Ondorioz, familiako gizona izango da ekonomikoki askea eta baita bere ibilbide profesionala garatzeko aukera izango duena.
- **Segregazioa edo diskriminazio bertikala:** emakumeen lan promozioarekin loturik, diskriminazio bertikaleko egoerekin aurkitzen gara askotan. Hauek arazo larriak izaten dituzte erabakitze postuetara edo kargu altuetara iristeko orduan. Badago egoera hau elikatzen duen ideologia ere. Honen arabera, emakumeok ez gaude gaituak taldeak zuzentzeko edo ardura handiko erabakiak hartzeko. Honek, emakume askoren ibilbide profesionala gogor kaltetzen du. Emakume langile askori ezarritako muga honi “kristalezko sabaia” deritzo. Izan ere, itxuraz ez dago emakumeen garapen profesionalari traba egiten dion elementurik, baina praktikan emakume gehienek ez dute botere posturik lortzen. Berdintasun legala dituzten gizarteetan, gaur egun erabakitze postuak oraindik ere gizonenak dira eta honek emakumeen garapen laborala nabarmenki kaltetzen du.
- **Segregazioa edo diskriminazio horizontala:** sexuaren arabera lan banaketaren ondorioa da ere mota honetako diskriminazioa. Emakumeak lan munduan sartu dira baina haien agerpena ez da orekatsua hainbat esparrutan, konkretuki, gizonezkoen esparruak uste diren horietan. Gaur egun oraindik ere badira hainbat sektore emakumezkoenak edo gizonezkoenak bakarrik direla uste direnak. Gainera, lan mundua sexuaren arabera banatua dagoen bezala, goi mailako hezkuntzan ere hala gertatzen da. Badira maskulinizatutako hainbat ikasketak (ingeniaritzak bezala) eta feminizatutako beste batzuk, adibidez, gizarte langintza. Esan beharra dago ere, azken urteetan joera horietako batzuk aldatzen ari direla ikasketak hauetan eta hau oso datu positiboa da errealitate soziala zentzu honetan aldatzen ari dela erakusten duelako. Edozein kasutan, emakumeek emakumezkoak diren ikasketak eta lanak betetzea eta aldi berean,

gizonezkoak diren horietan sartzeko zailtasunak izateak islatzen duena segregazio mota horizontala da.

- **Soldata diskriminazioa:** aurrekoen gain, lan produktiboetan aritzen diren emakumeak ere 'soldataren bretxa' jasan behar dute. Legalki bidezkoa ez bada ere, askotan, lan berdina egiteagatik emakumeek jasotzen duten diru kopurua berauen lankide gizonena baino baxuagoa izaten da.

Munduko toki askotan emakumeak gizonen menpe bizi dira ekonomikoki (senarra, aita, neba...) sexuaren araberako lan banaketak hauek erreproduzio lanetan kokatzen dituelako. Hala ere, berdintasun legal formala lortu duten herrialdeetan ere badira lanaren banaketa sistema honetatik ondorioztatzen diren hainbat diskriminazio eta balio gutxitze praktikak ere.

5.3. Berdintasunerako Politika Publikoak. Oinarrizko printzipioak eta egitura instituzionala

Berdintasun Politikak estatu parlamentarioetan sortzen dira eta esku hartze helburu zehatz bat lortzeko ematen diren erabakitze, tresna eta bultzakada egitura multzoa bezala ulertzen dira. Aukera berdintasunerako politikek instituzio publikoek aurrera eramandako neurri eta estrategia ezberdinak dira eta hauek emakumeek gizartean berdintasunean parte hartzeko oztopo eta trabak gainditzeko lagundu nahi dute. Berdintasun formala berdintasun errealean bihurtu nahi da beraz hauen bitartez. Esan daiteke gizon eta emakumeek gizartearen esparru pribatu nahiz publikoan modu orekatsuan parte hartzea sustatu nahi duen erantzun instituzionala dela.

4/2005 Legea, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoa hurrengo moduan definitzen du aukera berdintasuna bere 3. kapituluan:

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Laburbilduz, Berdintasun Politiken azken helburua gizonak eta emakumeak aukera berdinak izan ditzaten testuinguru egokia sortzea da eta modu honetan gizarte moduan esparru sozialean, pribatuan, kulturean, ekonomikoan eta politikoan aurreratzea genero rolek eta estereotipoek ezarritako mugak gaindituz.

Berdintasun Politiken jatorria Nazioarteko Erakundearen aurkitzen dugu, konkretuki 1975. urtean Emakumeen Nazioarteko Urtea izendatu zenean. Ekitaldi sinbolikoaz gain, urte horretatik aurrera munduko emakume guztiek jasaten zuten diskriminazio formala eta erreala gainditzera zuzenduta zeuden oinarritzko akordio eta konpromiso instituzionalak hartu ziren. Jarraian, urte horretatik aurrera eman diren konferentzia mundial eta hartu diren erabaki garrantzitsuenak jasotzen dira.

- Emakumeen Nazioarteko I. Biltzarra: 1975. urtean Mexiko hirian ospatu zen eta bertan, emakumeen diskriminazio egoera gainditzeko lehenengo ituna sinatu zen, 1979. urtean efektiboa bilakatu zena.
- Emakumeen kontrako diskriminazio forma guztien kontrako hitzarmena: lehenengo itunetik ondorioztatutako emaitzetatik 1979. urtean emakumeen kontrako diskriminazio mota guztien kontrako lehenengo neurrien sorta bildu zen.
- Emakumeen Nazioarteko II Biltzarra: 1980. urtean ospatu zen Copenhague hirian eta bertan espresuki landu ziren kontzeptuak berdintasuna, garapena eta bakearenak izan ziren.
- Emakumeen Nazioarteko IV Biltzarra: 1995. urtean ospatu zen Pekinen eta aurreko biltzarrekin aldentuz aldaketa teoriko eta metodologiko garrantzitsua suposatu zuen gaur egungo mundu mailako Berdintasun Politikei hasiera emanez. Bertan, gizon eta emakumeen berdintasuna ez bakarrik legalki baizik eta errealki ere efektiboa egiteko oinarritzko irizpideak hartu ziren. Praktika publiko eta politikoetan genero perspektiba eta administrazioaren diseinua, garapena eta ebaluazioan genero analisia sartzea edo *mainstreaming*-a.

Berdintasun Politikak fokapen zehatz batekin aurrera eramandako erabakiak, neurriak, tresnak eta bultzatze egiturak dira. Gizartearen garapenarekin batera eta metatutako ezagutzari esker, politika hauek aldatuz joan dira sortu zirenetik gaur egunera arte. Honekin loturik, 1970. hamarkadatik aurrera gaur egunera arte aurrera eramandako politikek bi

orientabide nagusi izan dituzte; ekintza positiborako neurriak eta genero zeharkakotasuna edo *mainstreaming*-a.

Ekintza positiborako neurriak generoa, arraza, adina edo pertsonaren bestelako ezaugarriengatik sortutako desabantaila egoerak orekatzera zuzenduta dauden neurriak dira. Behin behineko izaera dituzten neurriak izango dira beti diskriminazio egoera gainditzen denean neurri hauek ere desagertuko direlako. Sexuaren arabera diskriminazioa biztanleriaren %50-i (emakumeak) beste %50-a baino tratu kaltegarriagoa ematea litzateke. Sexuaren arabera diskriminazioa bi motatakoa izan daiteke:

- Diskriminazio zuzena: ikusten errazena da, norbaitenganako tratu kaltegarria modu argi batean ematen da horren arrazoi bakarra emakumea izatea delarik.
- Zeharkako diskriminazioa: ikusten zailagoa da itxurazko neutraltasun batean oinarritzen baita nahiz eta praktikan erabaki horren ondorioak beti jotzen duten emakumeen kontra. Emakumeek zeharkako diskriminazioa askotan jasaten dituzten esparruak gizartearen eremu publikoak eta familia dira, mekanismo tradizionalen eragin handia baitute. Honen adibideak dira:
 - Eremu pribatua: zereginen eta arduren banaketa desorekatsua.
 - Hezkuntza: eskolako materialak maskulinizatuak daude eta lanera prestatutako hezkuntza estereotipoetan oinarrituta.
 - Lan eremua: hainbat lan praktika gizonezkoenak edo emakumezkoenak izatea eta gizonezkoenek prestigio eta egoera ekonomiko hobea izatea.
 - Komunikabideak: estereotipo sexisten mantenua.

Zeharkako diskriminazioa aurreikusteko bi baliabide erabili behar dira: genero ikuspegiaren integrazioa eta inpaktu informea. Genero perspektibari esker zeharkako diskriminaziorekin loturiko joerak, jarrerak eta prozedurak aurreikusi daitezke. Gizon eta emakumeen berdintasunerako euskal legeak honela definitzen du genero ikuspegiaren integrazioa: “Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea” (4/2005 Legea gizon eta emakumeen berdintasunerako 3. artikulua 4. puntua).

Bestalde, erabaki administratibo eta juridikoen generoaren arabera eragina aurreikusi behar da eta horretarako generoaren arabera aurrebaluazioa egingo da: “Administrazio-arau edo egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo

kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean aztertzea” (19 artikulua).

Edozein kasutan, genero berdintasunarekin loturak dituzten proiektu eta programekin lotura duen kontzepturik aipagarriena azken bolada honetan mainstreaming-arena da. Politika publikoetan mainstreaming-a geroz eta garrantzia handiago hartzen ari da. Honek esan nahi duena esku hartze publiko guztian genero ikuspegia modu sistematiko batean kontutan hartzen da.

Europako kontseiluak honela definitzen du kontzeptua:

Prozesu politikoen antolakuntza (berrantolakuntza), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa genero berdintasunaren ikuspegia politika, maila, garai ezberdinetan eta erabaki politikoak hartzen dituztenengan ere barneratzen dela ziurtatuz.

Hau da, politika publiko eta arau guztiek (ez bakarrik horretaz jarduten dutenek bakarrik) genero ikuspegia kontutan hartzen dutela ziurtatzean datza eta, modu honetan, balizko zeharkako egoerak ekiditea edo gainditzea.

5.4. Bibliografia

Amorós, Celia (1991). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Antrhopos: Barcelona.

Cobo, R. (2000). Género y teoría social. *Revista Internacional de sociología (RIS)*, Nº25, 5-20.

Kideitu. El enfoque de género. *Aula formativa hacia la igualdad*.

Ley 4/2005, de 18 de febrero, para igualdad de mujeres y hombres.

Maquieira, V. (2001). Género, diferencia y desigualdad. En E. Beltran y V. Maquieira (eds.) *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Alianza Editorial: Madrid (127-190).

Ministerio de Administraciones Públicas. (2006). *Políticas de Igualdad de género. Normativa vigente*.

Sau, V. (2000). Reflexiones feministas para principios de siglo. *Cuadernos inacabados nº 34*. - (2002). *Diccionario ideológico feminista. (Vol 1.)* Icaria: Barcelona.

6. GAIA. ETNIZITATEA ETA MIGRAZIOAREN INGURUKO INTERPRETAZIO ANTROPOLOGIKOAK



EDUKIEN AURKIBIDEA

6. Etnizitatea eta migrazioaren inguruko interpretazio antropologikoak

6.1. Etnia eta etnizitatea. Cristina Blanco-ren "Las migraciones contemporáneas" (2000) liburuaren laburpena

6.2. Etnizitatea eta migrazioa. Cristina Blanco-ren "Las migraciones contemporáneas" (2000) liburuaren laburpena

6.3. Migrazioa eta integrazio ereduak

6.3.1. Asimilazioa

6.3.2. Melting-pot

6.3.3. Multikulturalismoa

6.3.4. Interkulturalitatea

6.4. Bibliografia

6.1. “Etnia eta etnizitatea”. Cristina Blanco-ren liburuaren laburpena

Frantses tradizioko antropologo unibertsalistek etnia kontzeptuaren erabilera saihestu zutenez hau orientabide partikularistaren esku geratu zen. Azken orientazio hau, jatorriz konnotazio arrazazko eta biologikoetatik estali egin zen. 1970ko hamarkadatik aurrera, etnia eskusibotasun esentzialistatik berreskuratu zen nahiz eta etnizitatea edo talde etnikoen kontzeptuak haren ordeztu erabiltzea nahiago izan. Modu honetan, haren esanahia berria desitxuratu zezaketen nahasteak saihestu nahi izan ziren.

Etnia, etnizitatea edo talde etnikoaren definizio anitzak existitzen dira baina guztietan orientazio bikoitza antzeman daiteke; esentzialista/*objetibista* eta erlazionala/*subjektibista*.

Lehenengoan, elementu objektiboek talde etnikoen mugatzaile moduan agintzen dute... hala nola, jatorri, historia, arraza, hizkuntza eta ezaugarri kulturalak berdinak. Ezaugarri komunak izateak taldekideei kohesio sentimendu bat partekatzea eta nortasun kontzientzia komuna izatea ematen die. Bigarrenengoan, taldearen esanahiaren elementu mugatzaile nagusia esleipena edo atxikipena bera da.

Bi orientabideek ezaugarri komuna dute; talde etnikoaz ari garenean, subjektu ezberdinez osatutako komunitateaz ari gara. Subjektu hauek beraien artean berdinak sentitzen dira (barneratzea) eta ondorioz, beste subjektu eta komunitateekiko ezberdinak (kanporatzea).

(Ikuspegi esentzialista) Elementu kultural objektiboak, hizkuntza funtsean, etnien existentziaren adierazleak izango dira. Modu honetan, tradizioari eta komunitatearen arbasoei kultura egiten hasten zaie, egiazko espiritu hartzaileak izango balira moduan.

(Ikuspegi erlazionala) Etniaren interpretazio esentzialista, talde etnikoen azterketa, elkarrekintzarako talde sozialengatik ordezkatzeko hasten da. Talde etnikoetatik edo etnizitateaz hitz egitea nahiago da, etnia kutsu biologiko eta arrazazko kargatuta baitago.

Kultura bigarren mailako elementu bat da etnizitatearen definizioan baina garrantzitsua da, nortasuna mantentzeko erreferentziazko eduki sinbolikoa eskaintzen duen heinean. Etnizitatean, funtsezkoa identitate kolektiboa da... esleipena edo atxikipena, alegia. Modu orokor batean esanda, talde etniko bat beste batetik atxikipengatik bereizten dela baieztatu dezakegu.

Barth antropologoaren lanaren lau ideia garrantzitsuenak:

1. Etnia bat talde bat da subjektiboki beste bati edo batzuei aurre egiten diona. Desberdintze prozesu hau nahi izate hutsagatik gertatzen da.
2. Gertakizun hau, garai guztietan zehar eman diren herrialdeen arteko desberdintze prozesuetan gertatu da. Honek islatzen duena zera da, herrien arteko ezberdintasun objektiboak, kontrajartze subjektiboaren aurrean, antzigabeak direla.
3. Etnia baten historia ez da kultura baten historia, etnia horrek besteekiko erakutsi duen aldakortasunaren historia baizik.
4. Dikotomizazio etnikoaren funtzio soziala bikoitza da: talde etnikoaren barruan estatusa eskaintzen du eta kanpoan etnien arteko erlazioak arautzen ditu.

Ez da “gu” sentimendua desagertu dela, baizik eta “gu” horren edukia partikularismotik unibertsalismora pasa dela. Gizarte moderno eta arrazionalak talde kontzientziaren egitura unibertsalistak behar dituela ematen du orain.

Modernizazio prozesu honek, hain zuzen ere, migrazio prozesuei atxikitzen dizkio. Hauek eraldakuntza sozialaren indarrak dira. Tokiz aldatzea norbanakoari sortarazten dion kokapen ezak, norbanakoak bere antzinako lokarrietatik askatzen ditu eta, era berean, bere energia eraikitzaileak sustatzen ditu.

Gizadiaren historiak, toki eta denbora guztietan, subjektuek giza talde zehatz baten kide sentitzearen beharraz hitz egiten digu. Taldeak baldintza historikoen arabera aldatu daitezke baina subjektuek “gu” talde batean kokatzeari ez diote sekulan uko egin nahi izan... Atxikipen etnikoa (territorialki, kulturalki edo historikoki definitutako taldea) beste taldeekiko antzekotasun/ezberdintasun moduan ulertua, historian zehar mantendu izan da.

Zibilizazio modernoaren eraginaren ondorioz, kultura bat desagertu daiteke edo posible badu beste kulturekiko harremana ukatu eta bere burua isolatu, baina mugako bi jarrera hauen artean akulturazioak daude, kultura-zibilizazio nagusiarekiko egokitzapena, alegia.

Berezko nortasuna konformatzeko giza beharrian batetik eratorria, berariazkoa denarekiko kide izatea ez da zibilizazio modernoaren ezaugarri unibertsalistekin kontrajartzen.... Eduki kulturalak aldatzen badira ere, honek ez du esan nahi

norbanakoarentzat esanguratsua den gizatalde batekin identifikatzeko beharra desagertzen denik. Gizakiak beti du beharrezkoa gertuko eta esanguratsua den gizatalde bati atxikitzea.

Nazio nortasunaren printzipioaren benetako faktore erabakigarria kontzientziaren faktore subjektiboa da. Beti agertzen dena beste taldeetatik bereizten den talde baten partaide izatearen kontzientzia da. Hau dela eta kontzientzia edozein talde etnikoren amankomuneko ezaugarria izango da. Kontzientzia hau, esan bezala, beste taldeetatik ezberdina sentitzea baino ez da, hura justifikatzen dituzten elementu objektiboak egonda edo ez.

6.2."Inmigrazioa eta etnizitatea". Cristina Blanco-ren liburuaren laburpena

Immigrazioak, ondorioak ditu bai talde hartzailearentzat nahiz etorkinentzat ere. Immigranteen korrontea txikia denean, elkarreragin edo doitze prozesuen ardurua nagusia etorkinengan geratzen da. Aldiz, etorkinen masa handia eta jarraikorra denean, hainbat arazo sozial geratzen dira agerian. Gizarte batean etorkinen talde lokalizatuak daudenean, hauen eta bertakoen arteko elkarrekintzaren beharrari erantzun soziala eman behar zaio. Benetako arazoa sortzen da bertakoak eta etorkinak talde etniko ezberdinetakoak direnean, hau da, sozialki onartutako 'gu' eta 'beste' topatzen direnean.

Migrazio handiak dira arazo etniko eta nazionalen arrazoi nagusienetarikoa, izan ere, modu honetan jatorri kultural ezberdinak dituzten taldeak harremanetan jartzen baitira. Hau dela eta, inmigrazioak etnizitatea sortzen (edo bultzatzen) du, 'beste'-a (etorkina) 'gure' lurraldean (honela sentitutakoa) sartu baita.

'Gu'-aren inguruko kategoriak oso zabalak dira: familiarik gizadira arte baitoaz.... Bada, beraz, 'gu' unibertsal bat (giza espeziea). Horretaz gain, norbanakoen kategoria txikiei erreferentzia egiten dizkien bestelako 'gu' asko daude (familia, klana, lagunak, enpresa...). Hauek, norbanakoengan duten eragina oso handia da, izan ere, pertsonen arteko harreman zuzenak ematen baitira bertan. Azkenik, badira erdibideko kategoriak hainbat gizatalde sozialei dagozkienak (langileria, emakumea, gizona, gaztea...).

Talde nortasun hau kontziente eta ikusgarria egiten denean eta 'besteak' baztertzeko nahiz 'besteetatik' bereizteko indar nahikoa duenean, talde etniko baten aurrean egongo gara. Honek, era berean, 'beste'-ekiko interakzio arau zorrotzak sortuko ditu.

'Beste'-aren inguruko definizioak estereotipoen gainean eraikitzen dira gehienetan, taldeei hainbat ezaugarri, errealak edo ez, atxikiz. Etorkina, 'bestea' kategoriari dagokion subjektua bihurtzen da, hura 'gure' komunitatean eta lurraldean kokatu egin delarik.

Etorkinarekiko adierazpen ezkorrak bi motatakoak izan daitezke: lehenengoak oinarri sozioekonomikoa du eta, bigarrenak, oinarri politiko-nazionala... Etorkina izatea, askotan, nahikoa da gizarte hartzaileak gaitzespen jarrera bat erakusteko. Bizi-eremu batzuetan edo guztietan ematen dira etorkinenganako gaitzespen jarrera hauek.

6.3. Integrazio ereduak

Migrazioa eta kontaktu kulturalari dagokionez, lau integrazio eredu ezagutzen dira:

- ▶ Asimilazioa
- ▶ Melting pot
- ▶ Multikulturalitatea
- ▶ Interkulturalitatea

Lehenengo biek, asimilazioak eta melting pot-ak, atzerriko komunitatearen **akulturazioa** ekarriko lukete. Etengabeko kontaktuan bizi diren talde kultural baten edo batzuen ezaugarri kulturalen elkartrukea suposatzen du, baina, kontaktu horren ondorioz talde horietariko baten jatorrizko ezaugarri kulturalak (talde gutxiengodunarenak, hain zuzen ere) eraldatuak izan daitezke. Immigrazio prozesuaren ondorioz gertatzen den akulturazioan kultur hegemoniko eta ez-hegemonikoen arteko harremanaren ondorioz, azken hauen desagertzea ematen da. Hau da, talde dominantearen kultura bereganatzeak norberarena desagertzea dakar.

6.3.1. Asimilazioa

Kultur eta talde sozial ezberdinen arteko kontaktua dela eta, teorikoki proposatu zen lehen integrazio ereduak izan zen. Ikusi dugun bezala, Estatu Batuetan garatu ziren halako planteamenduak, konkretuki 1920. hamarkadan, Robert Park Chicagoko Eskolaren sustatzailearen eskutik.

Asimilazioa, talde hegemonikoaren erreakzioa da, kultur nahasketaren ondorioz gizarte hegemonia galtzeko beldurrari erantzun bat. Beste modu batean esanda, “beste”-ren etorrerarekin “bertakoengan” sortutako beldurraren ondorioz proposatutako integrazio eredia da asimilazioa. Honen arabera, etorkinek gehiengo kulturalaren balore eta arauak barneratu behar dituzte (etnozentrismoa) eta zeregin hau hauen ardura da.

Etorkinak gizarte hartzailearekiko bizi duen egokitzapen prozesua da. Honek, gizarte hartzaile horren kultura eta ohiturak bereganatu behar ditu. Ondorioz, etorkinen integrazioa gizarte hegemonikoaren eredu kulturala bereganatzearen arabera izango da. Beraz, egokitzapen prozesu honen ardura osoa etorkinarengan dago, bere erantzukizuna baita gizarte hartzailearen bizimodua eta kultura bereganatzea. Honek sorburuko nortasuna galdu eta gizarte hartzailearena bereganatzea suposatzen du.

6.3.2. Melting-pot

1940. hamarkadan eta kasu honetan ere Estatu Batuetan, asimilazioak zekartzan mugak eta arazoak ikusirik beste integrazio eredu batera abiatu zen gizarte, melting pot deritzona. Modu soil batean esanda, eredu honen arabera, gizartearen kide guztiak (jatorri kultural ezberdinekoak; etorkinak eta bertokoak) fusionatu egin behar ziren. Fusio honen ondorioz gizarte berri bat sortuko litzateke, ezaugarri kultural eta arrazazko baturaren eta nahastearen ondorioz eratutakoa.

Aurrekoarekin alderatuz, integrazio eredu honek gizartekide guztiak inplikatzeko gizarte eredu berri baten eraikuntza, ez bakarrik kanpotarrak. Teoria mailan oso aurrerakoa izan zen denen baturaren ondorioz gizarte berri bat aldarrikatzen duelako, ezaugarri guztien baturatik sortutakoa, alegia. Modu honetan, teorian mailan ere, kultura eta arraza guztiak gizarte berri honen protagonistak izango lirateke. Baina errealitatea bestelakoa da. Praktikan gertatzen dena, kultura gutxiengodunak, hegemonikoaren ezaugarriak bereganatzen dituela da eta, modu honetan, asimilazioa gertatzen da baina modu sotilago batean.

Hurrengo integrazio ereduak irizpide komuna konpartitzen dute: komunitate etorkinek eta bertakoek, biek, ez dituztela berauen nortasunaren ezaugarriak galdu nahi. Beraz, integrazio eredu batek nahi hau errespetatu beharko luke.

Modu honetan, egokitzapena, guztiek bizikidetasunerako irizpide komunekin bat eginez lortuko da. Elkarbizitzarako printzipio hauek ordea, talde bakoitzaren berezitasun

kulturalak bere neurrian mantentzeko aukera eskaini behar dute. Hau posible izango da, harreman horretatik sortutako arazoak, elkarbizitzako oinarrizko irizpide hauek kolokan jartzen ez dituen bitartean. Modu honetan, taldearen berariazko kultur nortasuna iraunaraztea eta era berean, gizarte berrian parte izateko nahia elkarlotu behar ditu.

6.3.3. Multikulturalitatea

Gizarte baten barruan, kultura eta nortasun etniko anitzak elkarrekin bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du. Modu honetan, gizarte modernoak kultura anitzen baturaz eginak egongo lirateke. Errealitate honek, ordea, talde kohesioa sustatzea dakar.

Kultura bakoitzak, testuinguru anitz honetan, bere nortasuna mantentzeko aukera dauka eta era berean, kultu-kide guztien arteko elkarbizitza posible izango da.

6.3.4. Interkulturalitatea

Multikulturalitateak inplikatzeko dituen mugak gainditzeko intenzioarekin interkulturalitatearen ereduak sortzen da. Honen arabera, multikulturalitateak gizartea kulturen batura edo mosaiko baten modura ulertzen ditu baina beraien arteko elkar harremana bultzatu gabe. Interkulturalitateak, ordea, positibotzat jotzen diren erlazio ereduak lortzearen aldeko jarrera litzateke, beti ere, kulturen arteko elkarreraginean

Eredu honek, beraz, jatorri kultural guztien errespetuaz gain, kulturalki ezberdinak diren subjektu eta erakundeen arteko elkarrekintza edo interakzioa aldarrikatzen du eta helburu honetarako aproposak diren estrategiak bultzatzen ditu.

6.4. Bibliografia

BLANCO, Cristina. "Etnia y etnicidad" In: *Las migraciones contemporáneas*. Alianza; Madrid, 2000 (97-107. orrialdea)

7. GAIA. ONDORIOAK. ANTROPOLOGIAREN EKARPENAK GIZARTE LANGINTZARA



EDUKIEN AURKIBIDEA

7.1. Antropologia aplikatuaren ekarpenak gizarte langintzara.

7.1.1. Ekarpen teorikoak

7.1.2. Ekarpen metodologikoak

7.1.3. Ekarpen etikoak

7.1. Antropologia aplikatuaren ekarpenak gizarte langintzara.

Antropologia eta gizarte langintzaren arteko harremana errealitate bat da diziplinartekotasuna oso ezaugarri positiboa den egungo zientzia testuinguruan. Oso modu laburbilduan, antropologiak izaera guztiz praktikoa duen gizarte langintzari edozein giza egitatetan esku-hartzeko beharrezkoa den aurretiko ezagutza teorikoa eskaintzen diola esan dezakegu. Hala ere, ikuspegi holistikoa batetik abiatuta, antropologiaren ekarpenak esparru teorikotik baino haratago doaz.

Conrad Phillip Kottak-en hitzetan (2007) antropologia norbanakoen, gizataldeen nahiz komunitateen ezaugarri kulturalen aniztasuna modu holistikoa, sistematikoa eta konparatiboa batean aztertzen duen gizarte zientzia da. Izaera konparatzailea du eta ezaugarri hau da, hain zuzen ere, diziplina hau gainontzeko gizarte zientzietatik bereizten duena. Edozein kasutan, antropologiak hiru motatako **ekarpenak** egiten dizkio gizarte langintzari: **teorikoak, metodologikoak eta etikoak.**

Antropologia aplikatuaren ikergaiak, antropologia teorikoarena bezala, Kultura eta aniztasun kulturala dira. Bien arteko ezberdintasun nagusia lehenengoak izaera eta helburu guztiz praktikoa duela, bigarrena guztiz teorikoa delarik. Baina honek ez du esan nahi antropologia aplikatuak teoria erabiltzen ez duenik. Errealitatean izaera teorikoa eta praktikoa du aldi berean. Zentzu honetan, antropologia aplikatuak testuinguru soziokulturala ezagutzeko informazio baliogarria eskaintzeaz gain (antropologia teorikoak egiten duen moduan), aldaketa soziala sustatzeko diagnostikoa eta estrategiak ere proposatzen ditu. Laura Bartoli-ren ustez, antropologia aplikatuak norbanako eta gizataldeen bizi baldintzen egoera hobetzeko beharrezkoak diren teoriak, metodoak eta teknikak eskaintzen ditu (2007).

Esandako guztiaren ondorioz, antropologia aplikatuaren helburua guztiz praktikoa da, izan ere, arazoduna izan daitekeen edozein egoera sozial eta kulturalari konponbidea bilatzea du helburu. Antropologia aplikatuak komunitate batek sustatzen dituen aldaketak ekonomikoak, sozialak, teknologikoak, kulturalak, etab. izan daitezke. Aldaketa guzti hauekin bilatzen dena pertsonen bizi kalitatea hobetzea da.

Zentzu honetan, antropologia aplikatua eta gizarte langintzaren arteko interdependentziak oso garrantzitsuak dira arazo sozialak ezagutzeko, baloratzeko eta hauei konponbidea

bilatzeko orduan. Gizarte langintzaren helburua arazo sozialen prebentzioa eta modu honetan pertsonen, familien, taldeen, erakundeen nahiz komunitateen gizarteratzea denez, antropologia aplikatuaren ekarpenak ezinbestekoak ditu. Modu honetan, gizarte bateratua lortuko da non gizakideen bizi kalitatea eta ongizatea errealitatea izaten den.

7.1.1. Ekarpn teorikoak

Antropologia aplikatuak gainontzeko gizarte zientzien moduan, gizarte langintzak esku hartu behar duen errealitate horretaz beharrezkoa duen aurretiko ezagutza errealista eta sakona eskaintzen dio.

Antropologia aplikatuak eskaintzen duen ezagutza teorikoak gizarte langileari ahalbidetzen dio haren lana zuzendu behar duen gizataldearen egitura soziala, prozesu soziala, aldaketa soziala, ohiturak eta orokorrean esanda, kultura bera hobeto ezagutzen eta ulertzen. Hau ezinbestekoa da, batez ere, gizarte langileek beti 'bestea'-rekin lan egiten dutela kontutan izaten badugu. Ezinbestekoa da 'bestea' horri buruzko aurretiko ezagutza izatea ez badugu nahi gure lana aurreiritziz eta etnozentrismoz josi.

Laburbilduz, gizarte antropologiak errealitate sozialak eskaintzen duen ezagutza holistiko eta transkulturalari esker, gizarte langilea gai izan daiteke edozein arazo sozial aztertzen eta horren gainean esku-hartze bat diseinatzen, planifikatzen eta aurrera eramaten.

7.1.2. Ekarpn metodologikoak

Antropologia aplikatuak gizarte langintzari egin diezazkion ekarpen metodologikoak ezagutzara heltzeko erabiltzen duen metodo antropologikoaren abantailetan dago hain zuzen ere.

Metodo antropologikoaren ekarpen garrantzitsuena lehenengo fase etnografikoan dago edozein komunitate eta gizatalderen ikerketa intentsiboa egiteko informazioa *in situ* jasotzeko erabilitako teknikei esker. Hauek gizarte langileari esku hartu behar duen errealitateari buruzko informazio errealagoa eta gertukoagoa lortzen laguntzen diete. Gainera, metodo antropologikoak gizarte langintzaren profesionala aztergai duen komunitatearekin harremanetan jartzen du. Honek, aurrerago esku hartzean bertan emango diren beste faseetarako beharrezkoak diren ahalmenak garatzen lagunduko du,

hala nola, profesionala eta komunitate kideen arteko elkar ezagutza, konfiantza, datu guztiak enpirikoki alderatzeko aukera, etab.

Laburbilduz, metodo antropologikoak gizarte langileari bere lana burutzeko beharrezkoa duen informazioa tokian bertan jasotzea ahalbidetzen dio eta honek inplikatzeko duen gizarte langileak bere esku hartzea hasi baino lehenago aztergai duen komunitatearekin harremanetan jartzen dela lehen eskuko informazio baliogarria lortzeko. Honek, azkenengo puntuarekin elkarlotzen du.

7.1.3. Ekarpn etikoak

Esan bezala, metodo antropologikoaren ekarpn garrantzitsuenen artean, gizarte langintzaren profesionalak aurrerago esku hartu behar duen komunitatearekin harremanetan jartzea da. Baina antropologia aplikatuak eskaintzen duen ezagutza transkulturala eta lekuan lekuko informazioa jasotzeak, profesionalak alde aurretik pertsonekin lan egiteko beharrezkoak diren hainbat gaitasun etiko ondo garatzea dakar. Zentzu honetan, antropologia aplikatuak 'bestea'-rekin lan egiten ikasteko beharrezkoak diren gaitasunak eskaintzen dizkio. Gizarte langintzan 'bestea'-z ari garenean gizarte zerbitzuen erabiltzaileez edo esku hartze programa bat zuzentzen den edozein komunitateaz ari gara.

Antropologiaren ekarpn etikorik nagusia giza aniztasuna antzematen, ulertzen eta errespetatzen jakitea da. Honi esker, gure praktika profesionalean edozein 'zentrismo' mota ekiditen saia gaitzke.

'Bestea' ezinbesteko kategoria analitikoa da antropologiarentzat. Lehenik eta behin, 'beste'-tzat, 'ni' edo 'gu' ez garen beste guztia hartzeko joera daukagu. Hau da, nire nortasun mugatik at kokatzen den pertsona eta gizatalde oro izango da 'bestea' niretzat. Beraz, munduko pertsona eta gizatalde guztiek dute beraien 'beste'-a. Oso adierazgarria izaten da landa testuinguruan betidanik egon diren herrien arteko liskarrak adibidez. Beraz, gizarte langileak aspektu honetaz oso kontziente izan behar du eta, era berean, ulertu komunitate batera lan egitera sartzen denean, bera 'bestea' bilakatu dela gizatalde horren partaideentzat.

Berriz ere diot, 'bestea' oso kategoria analitiko garrantzitsua dela antropologiarentzat honi esker pertsonok gure nortasuna eraiki eta azpimarratzen dugulako. Honetaz kontziente

izan behar gara lanean ari garen momentu oro 'besteak'-k (edo erabiltzaileak) gure tokitik begiratzea ekiditeko. Modu honetan, 'besteak' gure eskema kulturaletik azaltzea eta ezagutzea ekidin behar dugu. Gizatalde edo kultura bakoitza haren arau eta balio sistemaren arabera aztertu beharko dugu beti.

Beraz, antropologia aplikatuak zerbitzu sozialen erabiltzaileak diren pertsonekin lan egiteko behar-beharrezkoak diren hainbat abilezi eskaintzen dizkio. Zentzu honetan, ekarpen etiko nagusia antropologiari esker gizarte langileak lanean ari denean aurreiritziak alde batera uzten ikasten duela da. Konfiantza, errespetua, pazientzia, entzute aktiboa, etab. dira gizarte langileak landu behar dituen bestelako gaitasunak eta guzti hauek, metodo antropologikoaren garapenari esker ere bereganatu daitezke.